



**SOLASEAN
ETA
JOLASEAN**

**Euskararen belaunaldiz belaunaldiko
transmisioa indartzeko modulua**

**E
R
A
N
S
K
I
N
A
K**

**IPUINEN
KONTAKETA**

HADE

IRAKASLEAREN LIBURUSKA

Solasean eta Jolasean izeneko material hau HABEk Eusko Jaurlaritzaren Jarraipen-programaren baitan sortutakoa da. Programa horrek erabilera handiagoa eta hobe indartzeko neurriak hartzea du eginbide, lehentasuna emanaz ahozko erabilerari eta belaunaldi gazteenekin harreman hurbilagoan dauden belaunaldi heldu eta euskaldunei. Eginbide horretan hiru lan-ardatz jorratzea du helburu: herriarren sentsibilizazioa, belaunaldi gazteenen eskolaz kanpoko erabilera areagotzea eta, helduen hizkuntz gaitasuna hobetuz, beroien erabilera handiagotzea.

HABEren berariazko jardun-esparrua hizkuntz trebakuntza izaki, esku artean dituzun ikas-modulu hauek sortzea deliberatu genuen. Material hau euskaldun helduei zuzendutakoa da eta, belaunaldi gazteenekin euskara erabiltzeko jardun-gaiak ditu abiapuntu. Gai horiek landuz, hizkuntz gaitasuna bera ere landu nahi da, eta, orobat, helduek haur eta gaztetxoekin dituzten harremanetan euskara gehiago eta hobe erabiltzea.

Material hau sortzerakoan, beraz, lehentasuna ahozkotasunari eman nahi izan diogu, nahiz eta gaien lanketan, gutxi-asko, trebetasun guztiak erabiltzen diren.

Erabiltzaileen eskuetan dago, beraz, material hori erabiltzea eta egokitzen joatea, eta, noski, hobekuntza-proposamenak egitea, HABEk horiek guztiak kontuan har ditzan. Euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa indartzen joateko beste modulu batzuk sortzen lagunduko ahal du!

Jokin Azkue Arrastoa
HABEren zuzendari nagusia

EGILEAK:

Proiektuaren arduraduna: **Xabier Elortza** (HABEko Programa Berezien arduraduna)
Didaktikaria: **Agurtzane Maiz** (HABEko teknikaria)
Diseinua eta maketazioa: **Olaia Ubeda**
Sabin Arzelus (HABEko teknikaria)
Alex Mungia (HABEko teknikaria)
Mertxe Salegi (HABEko idazkaria)

Gure esker ona, neurri batean edo bestean, modulu hau egiten lagundu diguten guztiei:

Pello Añorga, Joxe Arratibel, Luisa Castrillo, Itziar Garitagoitia, Juan Kruz Igerabide, M. Jose Insausti, Arantxa Iturbe, Ixiar Sarasola, Koro Urbieta eta Tomasa Uriarte.

1.

TRANSKRIPZIOAK ETA SAIOETAKO ERANTZUNAK

1.1.1. Eranskina.	4. or.
1.2.1. Eranskina.	6. or.
2.3.1. Eranskina.	8. or.
2.3.2. Eranskina.	11. or.
2.4.1. Eranskina.	13. or.
3.5.1. Eranskina.	14. or.
3.5.2. Eranskina. (gipuzkeraz)	15. or.
3.5.2. Eranskina. (bizkaieraz)	19. or.
3.6.1. Eranskina.	20. or.
5.7.1. Eranskina.	23. or.
5.8.1. Eranskina.	31. or.
5.8.2. Eranskina.	32. or.
6.9.1. Eranskina.	34. or.
7.12.1. Eranskina. (gipuzkeraz)	35. or.
7.12.1. Eranskina. (bizkaieraz)	38. or.
7.13.1. Eranskina. (gipuzkeraz)	41. or.
7.13.1. Eranskina. (bizkaieraz)	43. or.
7.13.2. Eranskina.	44. or.
9.16.1. Eranskina.	46. or.
9.18.1. Eranskina.	47. or.
9.18.2. Eranskina.	52. or.
10.19.1. Eranskina.	55. or.

2.

IPUINAREN EZAUGARRIAK

1.- Ipuinaren garrantzia: hizkuntzaren zein pedagogiaren ikuspegitik.	56. or.
2.- Ipuinen egitura eta kontaketarako euskarriak.	62. or.
3.- Ipuinen kontaketa kontalariaren ikuspegitik.	64. or.
4.- Ahozko euskara ipuin-kontaktetan gidari	67. or.

3.

IPUIN-BILDUMA

74. or.

4.

JARDUEREN OSAKETARAKO HELBURU ETA EDUKIAK

79. or.

1. TRANSKRIPZIOAK ETA SAIOETAKO ERANTZUNAK

1.1.1. Eranskina

EGOERAK

A. Egoera:

Aita ez da oso ondo moldatzen euskaraz. Hori dela eta, amak du etxe horretan ipuinak kontatzeko ohitura. Afalondoan sukaldean daude, eta umea oheratzeko ordua da.

- Aita, gaur zuk kontatu behar didazu ipuina, ez didazu eta sekula kontatzen!
- Amak nik baino hobeto kontatuko dizu, maitea —dio aitak—.
- Hala, Nerea, zoaz ohera —dio amak—. Berehalaxe joango naiz ipuina kontatzera. Beste batean kontatuko dizu aitak.
- Begira, ni ere joango naiz ipuina nola kontatzen den ikustera —dio aitak— horrela beste baterako ikasiko dut.

Umea oheratzen denean:

- Zein ipuin kontatuko dizut? —galdetzen dio amak—.
- "Gertrudis sorginarena", ama!
- "Gertrudis sorginarena"? Ez al duzu gero amets txarrik egingo?
- Ez!
- Ez ahaztu ipuin bat dela eta ez dela benetan gertatu!
- Bai, ama!

Amak, orduan, liburua hartu, eta, marrazkiak erakutsiz, ipuina "kontatzen" hasi da.

*"Gertrudis sorgina basoan bizi zen, etxe beltz batean.
Etxea beltza zen kanpotik eta beltza barrutik.
Alfonbrak beltzak ziren.
Aulkiak ere beltzak ziren.
Ohea beltza zen eta maindire beltzak zituen eta mantak ere beltzak ziren.
Eta bainugela ere beltza zen.
Gertrudis bere etxe beltzean bizi zen Jeremias bere katuarekin (hau ere beltza zen, noski).
Eta horrela hasi ziren arazoak.
Egun batean ...".*

B. Egoera:

Neguko igande arratsalde bat da, eta familia guztia bilduta dago. Bazkalondorena da, eta helduak tertulian ari dira. Seme-alabak eta hauen lehengusuak beste gela batean jolasten aspertu eta zer egin ez dakitela daude.

- Badakit zer egingo dugun: aitari esango diot ipuin bat kontatzeko! —dio etxeko semeak—.
- Aitari? —lehengusuak harrituta—. Nik gurasoei ez diet ipuinik kontatzeko eskatzen, beti ipuin berak kontatzen dituzte eta oso gaizki gainera!
- Ah, ba, gure aitak ipuin asko dakizki, amonak eta kontatutakoak! —dio semeak—.
- Bai eta liburuetan azaltzen ez direnak! —dio alabak—.
- Bai, bai, goazen; ikusiko duzue.

Umeak gurasoengana doaz.

- Aita, kontatu ipuin bat!
- Ipuin bat? —osaba harriturik— Utz ezazue aita pakean, hizketan ari gara eta! Ez al daukazue nahikoa jostailurik jolasteko?

- *Benga, aita, konta iezaguzu ipuin bat!*
- *Bueno, segi ezazue zuek lasai hizketan —dio aitak— ipuin bat kontatu eta etorriko naiz.*
- *Motel, motel ... —dio osabak, ulertu ezinik—, nola hasiko haiz ba, orain, ipuin bat kontatzen?*
- *Berehalaxe nator —dio osabak—.*

Aita, orduan, egongelara joan, umeak borobil batean eserarazi, eta aspaldiko ipuin bat kontatzen hasi da:

“Guri orain iruditzen ez bazaigu ere, hasieran gauza guztiek zekiten hizketan: lurrekoek, uretakoek eta airekoek. Landareetan goroldioa zen hitz egiten ez zuen bakarra.

Goroldioaz kupiturik hitz egiten erakustera joaten zitzaizkion bere lagunak. Udaberrian ihintza jaisten zen goizean maitasun-hitz politak esatera. Udako egun beroetan otsoa zuen laguna, eta gainean etzanik ipuinak kontatzen zizkion. Udazkenean hego-haizea etorri eta muxu ematen zion. Amets epel eta goxoak egiten zituen orduan goroldioak. Neguan elurrak jantzi zuriz estaltzen zuen andregairik politena baino politago egoteko. Baina goroldioak ez zien hitzik esaten; mutu jarraitzen zuen.

Nola edo hala erakutsi nahi zioten mintzatzen, baina ezin. Hainbeste ahalegin egin zuten, azkenean ...”.

C. Egoera:

Amak bere gustuko gauza egiteko asmoa du: liburu bat irakurri, musika entzun, telebistako programaren bat ikusi, baina seme-alabek (5 eta 3 urte) ipuina kontatzeko eskatzen diote.

- *Ama, kontatu ipuin bat!*
- *Ipuin bat orain? Gauean kontatuko dizuet, oherakoan!*
- *Jo, kontatu orain beste bat!*
- *Bueno, orain irakurri egingo dizuet eta gauean kontatu. Benga, ekarri nahi duzuen ipuina!*
- *Nik ekarriko dut! —dio semeak—.*
- *Ez, nik ekarriko dut! —dio alabak—.*

Biak doaz, eta ipuin banarekin etortzen dira.

- *Ama, irakurri hau! —semeak—.*
- *Ez, irakurri hau! marrazki gehiago du eta politagoak! —alabak—.*
- *Bueno Asier, orain Aizpearena irakurriko dut eta gauean zurea; konforme?*
- *Jo! beti Aizpeak nahi duena egin behar!*
- *Hamelingo Xirularia...*

Juan Cruz Igerabide daukagu gaur guk hemen gure artean, bera idazle eta irakasle da. Idazle bezala haurrentzako ipuinak idazteaz gain, ipuinei buruzko ikerketak ere egin izan ditu, eta, beraz, ipuinen kontuan aditua delako gonbidatu dugu gaur hona.

Egunon, Juan Cruz!

Kaixo, egun on.

Esango al diguzu zer eskaintzen dion ipuinak umeari?

Bueno, ipuinak, nolabait, haurra munduaren aurrean jartzen du irudimenaren bidez, eta, esango nuke bi gauza eskaintzen dizkiola batik bat: alde batetik, babesa; babes psikologikoa gurasoen ahotsaren bidez, gurasoen ahotsak haurra babesturik sentiarazten du, eta ipuina kontatzen doakion heinean babes hori nolabait indartzen joaten da, eta, beste aldetik, haurrak buruan jasotzen ari den ezagutzak eta ikuspegiak ordenatzen laguntzen dio.

Hor adibide bat jarriko dut pixka bat ikusteko: Zazpi antxumeen ipuin hori adibidez, ez? Guztiok ezagutzen duguna. Zazpi antxumeak nolabait haurren buruan izango lirake haurren zazpi aldeak. Nolabait, haurren osotasuna edo agertuko lukete; haur bakar bat da, beraz, zazpi antxume horiek. Gero, ama daukagu, zazpi antxumeak babesten dituen, eta otsoa. Otsoak sinbolizatzen du munduaren kanpoko mundua, munduaren amenazua, ezta? Eta, orduan, haurrak ez dauka bakarrik irteterik mundu horretara, amaren babesa behar du, eta otsoa hor zain dago noiz harrapatuko haurra. Otsoak haurra bakarrik harrapatzen baldin badu, jan egiten du, baina hor dago ama gero, berriz ere, otsoaren tripatik erreskatatuko duena umea.

Hortaz aparte, otsoak antxumeak jaten dituen, ipuinean agertzen da bat gorde egiten dela eta salbatu egiten dela eta erloju baten atzean gordetzen dela antxume hori. Horrek, nolabait, adierazten digu ipuin horrek haurrari esan nahi dio denborarekin, hazitzearekin gai izango dela bera ere munduari, otsoari aurre egiteko, amaren laguntzaz; eta denbora pasatzearekin mundua, otsoa menderatzeko gai izango da. Pixka bat horrelako gauzak erakusten dizkigute ipuinek.

Hori adibidez oso haur txikientzako ipuina izan daiteke. Handixeagoentzako ipuina gai berarekin hiru txerrikumeena da, adibidez. Hiru txerrikumeen ipuinean ikusten dugu, zera ... amarik ez da agertzen, eta agertzen da, nolabait, hiru txerrikume horiek ere, haurra bera da, baina hiru adinetan, gero eta helduagoa izango da, eta ikusten dugu nola txerrikume azkarrenak, txerrikume zaharrenak dominatuko duen otsoa, azkenean. Berak etxe sendo bat egingo du, adinaren aurrean dihoan heinean, eta otsoa dominatuko du.

Horrelako gauzak ikusten ditugu ipuinetan, eta, nolabait, esan dugun munduaren ezagutza hori ordenatzen joaten da haurraren buruan. Eta, beste aldetik, nolabaiteko lasaitasuna eta esperantza ematen dio haurrari: haziko zara, eta orain egundoko gauzak eta beldurgarriak iruditzen zaizkizun horiek gero zuk zerorrek dominatuko dituzu. Otsoa zuk zerorrek jango duzu. Zeren, ipuin orijinalean, hiru txerrikumeen ipuin orijinalean, hirugarren txerrikumeak otsoa jan egiten du, eta hori esan nahi du: handitzean, zuk ere mundua dominatuko duzu, denbora behar duzu.

Zer eragin du ipuinak hizkuntzaren garapenean?

Nere ustez, beste fenomeno askorekin batera, ipuinak garrantzi handia du hizkuntzaren garapen eta eskuratze horretan, ezta? Nolabait..., alde batetik, ipuinak irudimena lantzen du, asko, eta munduaren ezagutzarako ahalbideak handitu egiten ditu. Beste aldetik, nolabait, barne-munduari eta kanpo-munduari izenak jartzeko modua da ipuina, eta, orduan, haurrari ere horrek mundua izendatzeko eta mundua ezagutzeko eta bereganatzeko baliabideak aberasten lagundu egiten dio, asko.

Nik esango nuke lehen sei-zazpi urte horietan garatzen da haurraren; barneratzen du hizkuntza, batez ere gurasoen aldetik, eta gero, eskolan hasten denetik eta abar, eta hor hizkuntza hori nolabait ipuinen bidez eta poesiaren bidez eta horrelako testuen bidez, edo horrelako kontakizunen bidez aberasten baldin bada, haurraren hizkuntzarekiko sena formatu egingo da. Sena era aberatsean formatuko da, eta nik horri behintzat, garrantzi handia ematen diot.

Adibidez, ipuinak ohiko leku eta denboretatik aldendu baino gehiago zabaldu egiten du haurra. Ipuinak aukera ematen dio edozein lekutara eta edozein denboratara joateko, eta horrek pixka bat lekuaren eta denboraren nolabaiteko infinitotasun bat ematen dio buruan. Eta horrek zer sortzen du beraren barruan? Nolabait jakinmina edo ikasteko grina bultzatzen du. Beste gauzak, ezezagunak dituen denborak, ezezagunak dituen espazioak, ezezagunak dituen jakintzak eskuratzeko grina edo irrika bat sortzen dio, ezta? Orduan, batetik, hori izango litzateke gauzarik garrantzitsuenetakoa. Baina beste gauza bat badu ipuinak hizkuntzarekiko, eta da ipuinak barne-bizipenekin eta sentimenduekin lotura zuzena egiten duela, eta horrek orduan haurrari hizkuntza sentimentuz eta barne-bizipenez betea eskuratzen laguntzen dio. Eta zer esan nahi duen horrek? Hizkuntza bero bat edo hizkuntza motibatu bat egiten eta garatzen ari dela haurra. Ez da hizkuntza hotza erabat eta nola esango nuke ... gauza izena jarrita besterik gabe, ez, baizik bere barrutik pasatako hizkuntza bat, bere sentimenduekin uztarturiko hizkuntza bat eskuratzen duela haurrak. Eta nik, behintzat, hori uste dut oso oinarritzkoa dela hizkuntza bat lantzerakoan.

Eta bukatzeko, zer egin behar dute gurasoek umeak ipuinetara zaletu daitezen?

Bueno, ez dago hor misterio handiegirik: kontatu, kontatu eta kontatu ezagutzen dituzten istorioak, kontatu irakurtzen dituztenak. Beharbada, hartzen duzu liburu bat eta irakurriz kontaktzen duzu, baina beste puntu bat badago oso inportantea, eta lehen gure gurasoek eta aiton-amonek egiten zutena eta guk jarraitu behar duguna egiten; gure istorio propioak kontatu. Haurrak izugarritzko jakinmina edukitzen du zuk txikitzen ze istorio izan zenituen, zer gertatu zitzaizun zuri. Eta gurasoak gauza horiek kontatu egin behar dizkio haurrari, kontatu egin behar dio zer gertatu zitzaion amonari, zer gertatu zitzaion bere lagun bati, horrelako gauzak, nik uste dut. Etengabeko kontakizun bat bihurtu behar da haurra, behintzat txikia den adin horretan.

Eta horrek izugarri indartzen du gauza bat, oso garrantzizkoa eta da: haurrak entzuten ikasten du, eta orduan entzuten ikastearekin batera, nolabait, kontzentratzen ikasten du, eta kontzentratzen ikasten duenak eta entzuten ikasten duenak gero hortik irakurtzen ikastera, alegia, irakurle on bat izatera pauso txiki bat besterik ez dago, nolabait, irakurtzea begiekin entzutea da, begiekin bereganatzea. Orduan belarriekin kontzentratzen ikasi baldin badu haur batek, gero, begiekin ere bereganatzen egingo du: hori nik garrantzizkoa ikusten dut.

Hor kalte handia egiten du gaur egun telebistak. Telebistak kontzentrazio hori nolabait ahuldu egiten du, eta nik ez dut esango telebista erabat kaltegarria denik, baina, neurritik gora egiten du kalte hori, eta telebista gutxixeago eta gehixeago kontatu. Ez bakarrik ipuinak, baizik eta norberaren esperientziak eta gertatu zaizkionak gehixeago kontatu gauzak etxeetan. Hori izango litzateke nere aholkua.

1. Zer-nolako ipuinak edo pasadizoak kontatzen zizkizuten umetan?

Montxo Imaz (Ataun)

Ba ni gogoratzen naiz txikitari gehienetan sutondoan izaten zen. Pentsatzen dut negu-garaia izango zela, eta, amonak nola kontatzen zizkigun hainbat istorio; gaztainak erretzeko garaian, eta ilunabar horretan. Hainbat anai ginen, eta hantxe sutondoan eserita errosarioa eta beste gauza batzuk ere izango ziren tartean pentsatzen dut.

M. Carmen Zubiaurre (Azpeitia)

Gure aitak, bera izaten baitzen kontalaria, gehienetan, Fernando Amezketarraren pasarteak edo txisteak edo kontakizunak izaten ziren askotan, baina, baita ere, Joxe Migel Barandiaranek jasotako Tartaloren ipuinak, Mateo Txisturenak eta horrelakoak. Eta gero pasarteak. Gure etxean pasarte eta kontakizun asko izaten zen gerra-denborako pasartei buruz, zeren bai bera aita eta osaba, beste aldetik, gerra-denboran gudari ibiliak ziren, eta, orduan, baita ere, aita prisionero egona zen Madrilen, eta gerra-garaiko kontakizun ugari izaten zen. Batetik, Madrilen bera trabajadoretan ibili zela esaten zuen, eta han ez dakit nolako lanak eragiten zizkiotela, eta, aldiz, osabak, berriz, alde egin zuen; gerra-garaian gudari zelarrik, Frantziara alde egin zuen, eta, gero, han gerra-garaia berriro tokatu zitzaion, eta erresistentzian aritu zen, baita ere, sartu zen. Eta horrelako pasadizu tristeak —batez ere, gerra-garaikoak— izaten ziren orduan.

M. Jesus Otegi (Astigarraga)

Gehienak, ipuinak baino gehiago bere txikitako, haurtzaroko pasarteak ziren, gerra-garaiko pasadizuak ere bai, baserri inguruko gorabeherak, eta hortik aparte Fernando Amezketarraren gorabeherak, txisteak, irteerak, eta, Fernando Amezketarrak gain, Mattin Mottelaren ipuinak ere bai, lapur abildosoaren ipuinak ere bai. Eta beste zenbaitetan ehiztarien gorabeherak ere, aita nahiko zaletua zen, eta kontatzen zizkigun hainbat pasarte.

Pello Esnal (Andoain)

Oso ondo gogoratzen naiz nola fraile Lasalletarrak goizero-goizero eskolan sartu eta lehendabiziko gauza huraxe egiten zigan: Historia Sagradako ipuinak eta istorioak kontatu, eta gogoratzen naiz gainera, batez ere, Egiptoko Joserena nuela maiteena; nola zen Jakoben azken bigarrenengo semea, nola inbidia zioten anaiek, nola saldu zioten faraoiari, nola faraoiaren semerik kuttunena nola izan zen, zer nolako ametsak izaten zituen, eta gero nola deitu zion aitari eta abar eta abar, historia luzea eta oso gogoko nuena baina ez zan hura bakarrik, hantxe zeuden Adan eta Eva, Cain eta Abel, hantxe zeuden Moises eta Isaac, Salomon, David, Sanson ere bai tartean, Judit eta Olofernes eta abar eta abar.

Sekulako istorio pila zen, eta, gainera, beti behin eta berriro kontatzen zizkigutenak eta azkenean buruz ikasten zenituen, eta beti zain egoten zinen noiz etorriko halako pasarte jakin bat, noiz etorriko halako pertsonaje bat, eta, orduan, pixkana-pixkana, mundu oso bat sortzen joaten zitzaizun buruan. Hori eskolakoak eta eskolatik kanpokoak hortxe ziren betikoak; izango ziren Kaperuzita eta horiek. Orduan Txanogorritxorik ez zan, Kaperuzita eta Hiru txerrikumeena, eta abar, eta abar.

2. Gustatzen al zitzaizkizun pasadizo horiek? Zergatik?

Pello Esnal (Andoain)

Batetik, ez ohikoak zirelako mundu honetatik ateratzen zirelako edo, urrutira eramaten nindutelako, bai historian barrena, eta bai lekuz oso urrutira, beharbada, horregatik izango nituen hain gogoko. Baina, batik bat —eta lehen ere esan dut— behin eta berriro errepikatzen zirelako, behin eta berriro egitura berbera azaltzen zelako, ezagunak nituelako eta banekiela-

ko gero zer etorriko zen. Banekielako halako pasartearen ondoren beste bat etorriko zela, eta pixkana-pixkana bukaera ere ikusi egiten zenuen, eta gozatu egiten zenuen, eta nahiz eta behin eta berriro gauza berak entzun, hala ere, gauzak berriak gertatzen zitzaizkizun zuretzat, eta gehiago, ez zan bakarrik entzutea, ez zan bakarrik gogoratzea, zan berriro ere bizitzea eta ipuinean istorioan eta buru-belarri sartu eta pertsonaia haiekin berriro bituz zera guzti hura.

M. Carmen Zubiaurre (Azpeitia)

Beti ere afal ondoren, famili osoa bilduta ginelarik kontatzen zizkiguten, ohera joan aurretik. Eta, nolabait, ipuinetako abenturak eta pasarteak biziara zi egiten zizkiguten kontatzen zizkiguten moduan. Eta, batzuetan, misterioa zegoen tartean, eta ohera joateko garairako izaten zen, bueno, horrelako zera, gauza kilikagarri bat bezala. Eta oso pozik egoten ginen kontakti-zunak eta ipuinak entzuten.

M. Jesus Otegi (Astigarraga)

Normalean, bazkal-garaian elkartzen ginen edo ilunabarrean. Bostak elkartzen ginen aitaren inguruan, eta, nik uste det oso ondo pasatzen genuela istorio zaharrak entzuten, eta giroa oso polita eta lasaia sortzen zela eta komunikazio polita aitarekin.

Montxo Imaz (Ataun)

Etxean egoera goxo bat jartzen zuen, inon ere esertzen ginenean, sutondoan, lehen esan dugun bezala. Edo gaztaina apartatzen, onenak noski ferira eramateko, edo horrelako egoeretan, ilunabarrean eta. Oso polita izaten zen berari entzutea istorio horiek denak. Gainera, gogoratzen naiz, aldi berean, sarritan galdu izaten genuen ohizkoa genuen errosarioa errezatze hori ere, garai hartan egiten baitzen, eta istoriorik bazegoen tartean, inoiz ere galdu egingo genuen.

3. Zure ustez zertan erakutsi zizuten kontakizun haiek?

M. Carmen Zubiaurre (Azpeitia)

Nik uste orain konturatzen hasita, bai Fernando Amezketarren kontakizunak, baita ipuin zahar haiek nolabait, euskal kulturara hurbiltzen gintuztela, alde batetik, eta, gero, gerra-garaiko pasadizo haiek guztiak balio izan zutela beraiek bizi izan zutena gogoan izan eta guri nolabait abertzaletasuna guregan sendotzeko edo giro horretan hezitzeko, batez ere. Orain, konturatuz, hori iruditzen zait.

M. Jesus Otegi (Astigarraga)

Aitak bere ikuspegia agertzen zuela bere kontaketa haiekin eta balore asko. Nik uste balore asko pasa zizkigula seme-alaboi, eta, horrez gain, zenbait afizio ere bai. Lehen esan dudana bezala, aita ehiztaria zen garai hartan, eta nik uste dut nere anaiengan piztu zuela pixka bat afizio hori, edo mendian ibiltzeko afizioa ere bai, edo baserria zaintzeko gusto hori ere bai esango nuke. Bere ikuspegia nolabait ematen zigun kontakizun haietan.

Pello Esnal (Andoain)

Batetik, lehen pixka bat esan dut, halako ikuspegi zabala ematen ziguten munduarena, ez? Halako kultura zabala, beste herrialde batzuk, lehengoko kontuak ezagutu eta abar. Baina, horretaz gainera, nik uste dut sentimentua, sena, irudipena, sormena eta mundu guzti hori ere landu egiten zutela, eta hori bestelako mundua zen, oso desberdina eta askoz aberatsagoa; eta gero, gainera, horrekin batera, nik uste lagundu zidatela mundura egokitzen, mundua ikusten, mundua nolakoa zen jakiten, atzematen, neregatzen, eta, aldi berean, mundu horretara egokitzen. Nik uste kultura osoa zegoela han, eta orain garbiago ikusten dut.

Nik ez dakit hegaztiekin eta gogoan izango duten kabian egon zireneko bizitzaldi hura, baina nik uste neretzako horrelako zerbait izan zela ipuinen eta istorioen mundu guzti hura, kabian goxo-goxo eta bizitutako mundu bat. Eta oraindik ere —eta ez bakarrik orduko istorioak eta gogoratuz—, oraindik ere, ipuinen munduan sartzen naizenean, fantasiaren munduan sartzen naizenean, zinearen munduan sartzen naizenean, berriro ere mundu hartara itzultzen naiz, eta nik uste beste askori ere gauza bera gertatzen zaiola.

Montxo Imaz (Ataun)

Berak kontaktatu zuena, agian, ez zen hain garrantzitsua, ezta? Baina beti bere bitartez jasotzen genituen inguruetan gertatzen ziren berriak; bai feriak, zeuden nobedadeak edo meza ondorenean taldea biltzen zirenean tabernan, herriko berrien errepasoa ematen zuten, eta berak ekartzen zizkigun etxera kontu horiek denak. Eta bera zen, ba, bueno, nolabait ere, gaur eguneko egunkari bat; haren bitartez jasotzen genituen kontu horiek denak.

<p>1. Mandoa</p> <p>2. Azeria</p> <p>3. Satorra eta igela</p> <p>4. Urretxindorra eta zirauna</p> <p>5. Txantxangorria eta kukua</p> <p>6. Otsoa eta mirua</p> <p>7. Hartza</p> <p>8. Erbia</p>	<p>4. Zirauna begi bakarreko sugea izanik, eta urretxindorrak ere begi bat baizik ez, biak konpondu omen ziren aldizka elkarri begia uzten joateko. Ziraunak berea utzi bai, baina urretxindorrak ez inoiz itzuli. Geroztik itsua da zirauna.</p> <p>3. Satorrak ba omen zituen hasieran begiak. Begiak bai eta buztanik ez. Igelak, berriz, buztana bai eta begiak falta. Satorrak ezin omen zituen lurpean begiak baliatu, eta igelari buztanaren truke eman zizkion. Geroztik satorrak buztana badu, eta igelak bi begi.</p> <p>2. Euskal Herriko ipuinetan animaliarik argiena. Begi biziak, sudur ona, hortz zorrotzak eta hanka arinak.</p> <p>1. Izen txarra du. Latza, zakarra eta kaskamakurra: uste ez delarik, ostikoa.</p> <p>6. Haragizaleak dira, eta biak lapurrak. Otsoak agintzen du lurraren gainean, baina mirua da nagusi airean.</p> <p>5. Kukua alferra da. Zazpi urtez ibili omen zen eskolan, eta kuku abesten bakarrik ikasi omen zuen. Ez daki umeak ateratzen ere eta bestek hazten dizkio, txantxangorriari utziz arraultzak.</p> <p>8. Abere guztien artean izukor eta beldurtia atera da erbia . Txikiek eta handiek ikaratzen dute.</p> <p>7. Garai batean baziren hartzak Euskal Herriko mendietan, baina ez ziren herrira jaisten. Beldurra zioten gizonari.</p>
---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

- Arranoa baino	beltzagoa
- Zorria baino	alferragoa
- Ardi zaharra baino	apalagoa
- Erbia bezain	ernea
- Akerraren adarra baino	okerragoa
- Barea baino	motelagoa
- Harra bezain	gizena
- Mandoa baino	egoskorragoa

Nola egiten du, adibidez, oilarrak euskaraz?	kukurruku!!!
Eta txakur txikiak?	ttau-ttau
Eta txerri txikiak?	kurrix kurrix
Eta oilo lokak?	lok lok
Eta igelak?	krok krok
Eta zaldiak?	ij ij ij

Nola esaten zaio, esaterako, behiak egiten duenari?	marrua
Eta otsoak egiten duenari?	ulua
Eta txerriak?	kurrinka
Eta katuak?	marraoa
Eta zaldiak?	irrintzia
Eta lehoiak?	orroa
Eta ardiak?	marraka
Eta txoriak?	txorrotxioa
Eta antzarrak?	karranka
Eta oiloak?	karaka
...	

Oharra: Hemen adierazten diren erantzunak iturri bakar batetik hartutakoak dira. Emailaren esku geratzen da, beraz, tokian tokikoen berri ematea.

- 1.- Pasar un mal trance. → - Kinka larrian egon.
- 2.- Venir jadeando. → - Arnas-estuka etorri.
- 3.- Estar muy enamorado. → - Txora-txora eginda egon.
- 4.- Pisarle los talones. → - Orpoz orpo joan.
- 5.- Picotero, soplón. → - Kontakatilu.

- 6.- Sudar la gota gorda. → - Izerdi patsetan.
- 7.- Estar estupendamente. → - Bapo egon.
- 8.- En menudo tomate te vas a meter. → - Leku onean sartuko zara!
- 9.- ¡Qué chollo! → - Hau mauka!
- 10.- ¡Que te crees tú eso! → - Egon hortan!

- 11.- Lo que hay que ver. → - Hamaika ikusteko jaio gara.
- 12.- El que hambre tiene con pan sueña. → - Zerri gosetuak ezkurra amets.
- 13.- Dejar con un palmo en las narices. → - Ahoa bete hortzekin utzi.
- 14.- No tengo nada que hacer. → - Nereak egin du.
- 15.- Pasaba el tiempo y... → - Egunak joan eta egunak etorri.

Gaur ipuin berri bat kontatuko dizuet, mandazain batena. Mandazaina mandoaren gainean ibiltzen den mutila da, eta mandoa abere bat da, zaldiaren antzekoa. Eta mandazainak Mattin zuen izena, baina badakizue nola deitzen zioten? Mattin Motela, txikitan motel xamarra zen, eta Mattin Motela deitzen zioten.

Bere aita hil zenean, mandoa utzi zion ogibidetzat, mandoa eta munduko bide guztiak aurrez aurre.

— Etxerako eta bideko lapurrentzat egin beharko duk lan —esan zion behin bere aitak—, eta lapurrentzako gehiago, erne ibiltzen ez bahaiz! —esan zion—.

Nafartarra zen Mattin eta ardo-garraioari ekin zion bere aitak bezala. Nafarroako Erriberan erosi ardoa, eta Tolosan eta Donostian saldu, egunero berdin. Eguraldi txarra edo ona, beti bere mandoarekin, ardoa erosten eta ardoa saltzen.

Behin ardoa saldu, eta etxerako bidean lau edo bost lapur atera zitzaizkion bidera.

— Hi, geldi hor! —esan zien—.

Eta mandazainak aberea geldiarazi, eta ez zien ezer erantzun.

— Hi berria haiz bide hauetan dirudienez —esan zien— ba ... elkarren berri jakiten joateko lehenengo gure ohituren berri izango diagu! Har ezak diru-zorroa esku batekin, eta bota guri!

Eta Mattinek esan zien:

— Bai. Berria nauk bide hauetan, eta ez diat diru-zorrorik. Uste nuen ez niala horren beharrik. Nola botako dizuet, ba, dirua?
— Bueno, dirua diru, nahi duan eran bota, gure egitekoa duk biltzea.
— Baina nola botako dizuet, ba, dirua lurrera?
— Hik nahi duan bezala. Berdin duk. Guk jasoko diagu.

Baina mandazainak, eguraldi txarra eta euria egiten zuenerako, bazuen beti belauen gainean eramaten zuen manta eder bat. Eta manta hura bota zien, eta esan zien:

— Tori manta hau, zabaldu lurrean, eta bere gainera botako dizuet dirua!
— Ah, ongi! Zentzu oneko gizasemea haiz bai, ez dituk ez denak hain prestuak —esan zien—.

Eta, manta lurrean zabaltzen ari ziren bitartean, lapurren nagusia bere kontuak ateratzen hasi zen, eta, bitartean, lapurrak asko lasaitu ziren, hainbat erraztasun ematen ziela ikusita.

— Bueno, bota orain txin-txin guztia! —esan zien—.

Eta Mattinek esku bat sakelean sartu, eta parra-parra bota zien dirua manta gainera. Gero, beste sakelean sartu, eta berdin, lehenengo atzaparkada bat eta gero beste bat. Eta lapurrak han joan ziren danak korrika eta presaka, denak elkarri bultzaka dirua jasotzera lurretik. Eta mandazaina mandoaren gainean beti eramaten zuen makila luze bat hartu, mandoaren gainetik lurrera jaitsi, eta han hasi zen lapurrei, dirua lurrean biltzen ari ziren bitartean bizkarrean, eta buruan ematen makilakin. Ipurdia arrastaka zutela alde egin zuten handik, dirua eta manta bertan utzita. Eta Mattinek lurreko manta eta dirua hartu, eta etxera itzuli zen pozik.

— Kontuz ibili beharko nauk, bai. Erne ibili beharko diat hemendik aurrera —esan zuen—. Ez hukeen ez gaur nere aita lotsatuko!

Eta gertakizun hau oso entzuna izan zen han bazterretan. Eta, gainera, herrian lapurra zela hotsa zabaldu zen, baina ez zen nolanhiko lapurra eh! Lapurren lapurra baizik.

Txomin Ipurdi esaera haundikoa da, behartsu haundia, diru-eske dihoa, eta dirurik ez diote eman nahi, eta, orduan baserritar jakintsu bat zan, baserritar lurrakin eta hartuemanak zituna, eta baita ere mendiko abereekin-ta bat egiten zuna, eta hitz egiten zuna beraiekin. Horregatik, egun baten, ama ta bik bizi zien, eta mutil hori ipurdi haundikoa zan, eta herri txiki hartan danak, herri txiki bat zan, eta denak ezagutzen ziran, eta izena jarri zioten: Txomin Ipurdi; ipurdi haundia zeukalako. Eta amari esan zion:

— Ama, gu etxe hontan ez gera ondo bizi. Jakinda nago beste toki batzutan, hor, diru ugari egiten dutela. Badirela erregeak eta badirela beste gauza asko, eta ni hara joan behar naiz diru bila.

Eta amak esan zion:

— Baina, etxean ere motel, etxean ere, etxean izango dek zer bait, eta hemen bizi gaituk, eta nik bakarrik zer ingo diat hi hortik joanda galduta eta?
— Ez, ez. Joango naiz, eta etorriko naiz aberastuta.

Egun baten, hartu zun makila bat, hartu zun zaku bat lepon, janarie behar zun, eta etxean txerria hil zuten, urdaiazpiko bat, gazta bat, ogi batzuk.

Ez zekin noraino jungo zan. Mendi haundik zeuden, eta etxetik atera, eta taka-taka-taka abitu zan; aurrera, aurrera, aurrera. Eta biden zihoala, han bazebilen pizti bat, pizti-abere bat bazebilen, azeri bat, eta ikusi zun zetorrela gizon ipurdi haundi hori: Nora ote dihoa hori? Ezagutzen zun, lehendik ere elkarrekin hitz eginda zeuden, eta gerturatu baino lehenago deitu zion:

— Nora hoa Txomin Ipurdi?
— Hi, azerie, zer nahi dek azeri?
— Nora hoa Txomin ipurdi?
— Ah motel! Erregen etxea, diru pixkat eskatzera.
— Ai! Ni haren oilategin baneoa!

Badakizue azerie oilozalea dana, ta oilategira sartu ezkerro, jan ez, baino denei odola kendu eta hil egiten ditu.

— Ni haren oilategin baneoa!

Bazekin erregek oilok zeuzkana, oilo haundik zeuzkena.

— Han baneoa!

Txominek esan zion:

— Hao motel, ni erregen etxea noan ezkerro, eramango haut, sartu hadi nere ipurdin.

Azeria etorri zan, eta sartu zan Txominen ipurdin, eta aurea, aurea, aurea. Bazihoazten bik, baino Txomin ez zen ikarutzen ezergatik. Hala, bidean zihoala UHHHHH! orru bat entzun zun. Zer gertatzen ote da? Otso haundi bat; otsoa azeria baino haundiago da, eta orain hemen inguru hauetan ez dago, ... nola eta botatzen ez duten, eta arditan kalte haundia iten du, eta harrek ere berdin:

— Noa hoa Txomin Ipurdi?
— Ah motel! Erregearen etxea diru pixkat eskatzera.

Otsoa, azeria ardik bezala, zaldik harrapatzen ibiltzen da, ardik ere bai, baina, batez ere, zaldik; salto gainera, lepotik heldu, eta azpitik zintzurra hautsi, odola atera, eta zaldie akabatuta utzi. Kaltegarria da artzaientzat, eta mendin dabiltzentzat. Eta hari ere esan zion:

— Ah motel! Erregeren etxea joan nahi baldin badek, sartu hadi nere ipurdin.

Hura ere sartu zan, eta bazihoan aurrera, aurrera eta aurrera. Biden zihoala ia galdu zan. Etzun ezagutzen handik aurreakoa, neurri bateaino iritsi zan, eta behin ere etzan handik pasatu Txomin Ipurdi hori.

Iritsi zanean ibai handi bat: Donostin Urumea badakizue? Hura baino handiagoa, zabala, haundi bat. Txomin horrek ikusi zun.

— Eta oain zer egin behar det nik? Ibai honengatik, bi egun etorri, eta hemen gelditu?

Hantxe goraxeago jun, eta pasatzerik ez, beheraxeago ur haundiagoa; atzenen, begira jarri ibaiari, eta esan zion:

— Ibaia, sartu hadi nere ipurdin!

Ibaia, toko-toko-toko! bildu zan dena eta pum! Txominen ipurdin dena. Pasa zun ibai hori —jakina, urik gabe pasa zun— eta iritsi zan mendi baten gainera. Eta han ikusi zun behean zelai bat eta toki landuk. Hori mendin bakarrik ohituta zegon, eta ikusten etxek, haundi batzuk, beste txikiagok, eta ibai haundi hura baino asko gehiago hazita,

— Zer ote da? Zer ote da? Hori izango dek errege bizi den tokie.

Tapa-tapa-tapa joan zan, eta, herrira joan zanen, asko ikaratu ziran gizon basati hura, ipurdi haundi hura ikusteakin, eta, zerbait esaten hasten bazan, ihesi egiten zuten. Baina, nola-hala, jakin zun erregeren palazioa non zeon, eta hara jun zan. Erregeren palaziora jun, eta don-don-don! atea jo, eta erregeren morroi ta neskamek eta, oso ondo jantzita, dotore, hura ikusi zutenen, lehenengo gauza egin zutena da:

— Uh! Ijito hori! Ateak itxi!

Berriz, harek: don-don-don! Eta atzenen:

— Zer nahi duzu?

— Nik erregeandik diru pixka bat, erregekin hitz egin.

— Zu bezelakoak hartzeko dago errege! Ez, ez, ezta pentsatu ere!

Pum! Itxi atea. Bueno honeraino etorri ezkerro, ezin utzi: don-don-don! Aspertu zirenean atzenen, eta erregearena joan behar.

— Aizu, hor gizon bat dago, oso ipurdi haundia da, eta diru pixka bat eta ez dakit zer nahi dun.

Eta erregek:

— Esaiozue dirue lan eginda irabazten dala. Guk ez diogula alperrai ematen, nahi dun tokira joateko.

Joan ziren morroiak eta:

— Aizu, nahi dezun tokira joateko. Hemen ez dagola dirurik alperrentzat eta.

— Ni ez naiz alperra. Ni langilea naiz, baina ez daukat dirurik. Dirua behar dut.

Pum-pum-pum! Aspertu zien, berriz erregegana jun, eta erregek esan zuen:

— Ez al du onez joan nahi? Sartu ezazue gure oilategin, haiek emango diote behar duna.

Oilok ziren haundik. Badakizute ardia zer dan? Ardiak baino handiagok, mokua handia ezpata bezala. Oilo handik zien. Sartu zuten han oilategin Txomin, eseri zan, eta han zai. Zer pasatuko da hemen? Morroiak eta atera zienen, Txominek esan zuen:

— Ah bai! Azerie, atera nere ipurditik!

Eta azaria atera zan, eta oilok han ko-ko-ko! denak garbitu zitun, odola kendu zien, leihotik salto, eta joan zan. Hurrengo goizen erregek esan zien morroiei:

— Zoazte! Hartu atxurre, saski batzuk, lurren zulo handi bat egin, eta gizon horren hezurak lurpen sartzeko.

Joan ziran. Oilotegiko atea ireki, eta Txomin Ipurdi, patxadan, erdi lo, lasai, eta oilo danak akabatuta. Jun ziren erregeana, eta hau eta hau gertatzen da.

— Gizon hori, ipurdi haundi hori eserita dago, eta oilo danak akabatuta.

— Nola izan liteke? Ez al da nahiko oilok? Eraman ezazue zalditegira, haiek erakutsiko diote zer dan bizitza.

Zaldiak ziren haundik. Badakizute elefantea edo zerbait entzun dezute? Haundik. Horrelakoak ziren zaldiak haundik, eta Txomin jarri zen han ere baztertuta. Ateak itxi zizkioten. Ikusi zunen “inor ez zeok hemen”, zaldien batek ostikoren bat emango ote zion, eta:

— Otsoa, atera nere ipurditik!

Atera zan otsoa, eta hango iskanbila. Hasi zan zaldi gainera saltatzen: bat akabatu, bestea akabatu, eta han zeuden hamar edo hogeitazaldi, danak garbituta utzi zituan. Txominek gau guztin lo egin zuen, lasai, lasai lo. Hurrengo goizean esan zien erregek morroiei:

— Zoazte gaur, eta gizon horren hezurak sartu zulo haundia eginda.

Jun ziren, eta Txomin eserita, eta zaldi guztik akabatuta. Eta, ordun, erregek esan zun:

— Gizon honekin ezingo diagu ezer egin. Gizon hau hil egin behar diau!

Nola hil? Herriko jendea etzen nahikoa. Hau haundia zen, eta besteek nolanahi bota zezakeen. Lasto pila haundi bat pilatu zuten, baina haundi-haundia su egiteko, eta lasto pilan gainean jarri zuten, eta su eman zioten. Eta erregea eta herri guztia hantxe zeuden bilduta. Denak pozik.

— Oraintxe, oraintxe ikusiko degu nola erretzen den. Erreko degu dena, txikituko degu, eta horren haragi errea txakurrek jango dute.

Eta Txomin berotzen hasi zenean pixka bat:

— Ibaia, erreka, atera hadi nere ipurditik!

Atera zen plo-plo-plo! ibaia, eta dana, dan-dana, inguru guztie urez bete, eta goratzen, goratzen eta goratzen. Ibaia haundia zan, eta erregek ere ihesi egin behar izan zun. Jendeak ere bai. Joan zan erregea bere palaziora, eta esan zuen:

— Gizon honekin ez dugu ezer egingo.

Eta, orduan, Txomin Ipurdi deitu zun:

— Zer nahi dezu atzenen?

— Nik esan deana, diru pixka bat! Diru pixka bat eskatu nun aurrena, ez zenuten eman nahi izan, eta orain behar det.

— Zenbat?

— Ipurdia bete diru! Ipurdia bete diru!

Erregek palazioan zeuden diru guztik bildu, urrek, zilarrak, diru guztik bildu, eta danak Txominen ipurdira, eta nahikoa ez. Herrin zeudenak danak bidu, eta nahikoa ez, eta Txominek ikusi zun:

— Hemen ez ziok gehio.

Eta esan zien:

— Hemendik aurrekoa barkatzen dizuet. Nahikoa dut oraingoz.

Bere etxera jun zen, eta esan zion amari:

— Ama, ekarri maindireak, ekarri kutzak, ekarri dauzkazun gauza guztiak, eta pol-pol-pol! dirua danetan.

Danak bete zitun, eta gero aberats bizi ziren. Eta atzo, edo heraneun, edo egunotan ikusi dituzue hor goien lainoak botatzen dituzten aeroplano haundi horietan, kea botatzen dun hegazkin haundi horietako bat? Atzo hantxe pasatu zen, diruak gastatu arte. Diruak gastatzen ditunen, berriz ere, erregen etxera jungo da.

Andra-gizonak bizi zien mutiltxu bategaz, eta mutileri esatotzien, mutile hasiez hasiez joan zen mutil ederra, eta esatotzien andra-gizonai, euzoko andra batek esatotzien, horrexek mutil horrek zuek biok hil egingo zaitue, hareri andra-gizonari esateotzien.

Da, ene! andra-gizonak ba beti bildurrez, da mutil hori etortzen jakienien biharretik, ba, beti bildurrez:

- Zegaitik dekozue nireganantza horrenbeste bildur?
- Ba zeuk hilgo gaituzula esateoskue.
- Nok esateotzue?
- Ta ba, hor esateoskue.
- Ba bueno ba, ez zaituet hilko. Joango naz urrin eta zuek bizi hementxe trankil-trankil —eta mutilek martxeuen.

Mutile joan zan urrin, ta isla batera joan zan. Holan isla bat euki eren zerin bertan ondoan da. Ba hara ailege zanién, han plante zanién bere zerien, ezkondu ein zen andra batagaz mutile. Ta mutile zegitauen itsasoan pasajeru. Lagunek paseteuzen lepoan, han islan batetik bestera erabilteusen. Da batetik bestera erabilteusenien mutilek, harek mutilek, mutile hasi ein zen handie, mutile handie zan da. Da baebilen pasetan hantxe itsasoan bata bestie lagunek pasetan ha bera etorten jakozenien, ta bakotxien hiru-lau igual pasateuzen handie, eta indertsue izen zan da. Da baten joan jakon gixon bat, gixon bardingo bat, eta esaotzen:

- Paseko nozu haraxe bestaldera, ta:
- Bai, bai itxaizu apur baten ze bat bakarrik e —esaotzen.
- Baia prisa deko —esaotzen harek—, eta:
- Prisa dekozu?
- Bai. Ta dirurik be eztekot. Baia hiru egi esangotzuaz pasetiarren haraixe —esaotzen harek batek errekatan—.

Beno, ba, haren intentzinoa emotzenien, hartu lepoan eta mogidu zen batera bestera pasaten. Mogidu zanién, hor itsasoan peusutxu batzuk emoeuzenien, kargeu itozan, ha txikie zan baia pisu handie euki euen, harek mutilek da holan beitu otzen azpitik gora pasajeruek, beitu otzen da, holantxe beitu otzen da:

- Bai, eztozu zeripe, errezoie deko horrek, ez dozu penarik zeuk zertuko ze zuk zeru-lurren erregine buruen daroazu —esaotzen eroauenak—.

Ailegeu zien da, bueno, oin hiru egiek esaotzen:

- Beituizu, pasajetako egunik ilunena hobozu gaurik argiena baino.
- Bai, egie da. Pasajetako egunik ilunena be hobie da.

Bigarrena esaotzen:

- Inoen ama ona izen arren, zeure txarra be ha inoena baino hobiozu —esaotzen— zeure ama.

Hari ama sarri akotan jakon berie, han itxi euen etxien da.

- Bai, errezoie dekozu —mutilek esaotzen—, errezoie dekozu.
- Ba beituizu, ni baino pasajeru aberatsaurik ezpozu hartzen, lehen frakak zaharrak dekozuz, baina barri asko ezin zenki ein —esaotzen— baia goserik eztozu paseko esaotzen eta martxeutzen pasajeruek.

Eta mutile atzera joan zen pasajetan ta beno ba, hori akabe da, eh. Praka zaharrak, baia barririk ezileike ein esaotzen, eztozen dirurik emon da, baia esaotzen "goserik ez dozu paseko". Haixe esan, eta martxotzen harek gixonak. Bueno, akabe da hori, eh.

Gaur kontatuko dizuedan ipuina, esan dizuedan bezala, ez dugu sekula kontatu. Irudirik gabe, zuen imajinazioa erabili beharko duzue, ikusteko gure pertsonaiak, eta gertatzen den guztia.

Hiru pertsonai ditugu nagusi: hiru antxumeak, hiru tamaina desberdinetako antxumeak, anaiak eta pertsonai gaizto bat: aztia, azti gaiztoa izkutaturik dago, orain esango dizuet non.

Hiru horien artean zaharrena, denbora gehiago eduki du handitzeko, eta badakizue halako adar luzeak ditu: Ezetz asmatu nolako izena daukan? Adar luzeak dituenez: Adarluze. Lepotik zintzilik daraman zintzarria hola mugitzen zaio bera ibiltzen denean: ton!, ton!, ton!, mantso ibiltzen baita, haundia baita.

Bigarrena, ertaina. Ez du hainbeste denborarik izan adarrak hainbeste luzatzeko eta imajinatzen duzue nolako adarrak ditun?. Motzak, ez du hain luzeak, ez du hainbeste denborik izan, gazteagoa baita, eta badakizue nola izena duen? Adarmotz, bai jauna Adarmotz. Adarmotzek, baita ere, zintzarri bat dauka lepotik zintzilik, baino pixkat bizkorrago ibiltzen da. Halaxe dabil tan!, tan!, tan!, tan!, tan! Hiruren artean txikienak ez duenez astirik izan hainbeste handitzeko, ez zaio oraindik adarrik sortu, eta Adargabe, Adargabe du izena, eta berak zintzarri txiki bat du lepotik zintzilik, eta holaxe egiten dio ibiltzera-koan: tin!, tin!, tin!, tin!

Ea ezagutzen ditugun! Ibiliko naiz, eta zuek esango duzute ze pertsonai den eh? Ondo ezagutzeko gero ipuinean. Ea:

- Ton!, ton!, ton! Adarluze. Oso ondo
- Tan!, tan!, tan! Adarmotz.
- Tin!, tin!, tin! Adargabe.

Bueno, pertsonai bat falta zaigu oraindik aurkezteko: aztia. Eta aztia non bizi den ulertzeko esan, zubiaren azpian.

- Eta nongo zubian?

Kontatu behar dizuet non bizi ziren hiru antxumeak.

Hiru antxumeak bizi ziren hemen, imajinatuko dugu zelai batetan, erdian bazegoen erreka bat, erreka zoragarria, ur askorekin, etzazue pentsa. Eta han, zubiaren beste aldean, beste zelai zoragarria, eta aztia bizi zen zelai batetik bestera pasatzeko zegoen zubiaren azpian, uretan ez, zubiaren azpian bazegoen etzanda egoteko eta bizitzeko tokia, hortxe bizi zen; eta zein zen bere eginkizuna? Zubi horretatik pasatzen ziren antxumeak, arkumeak eta beste animalitxokume batzuk jatea. Bera horretaz elikatzen zelako.

Orain, ipuina kontatuko dizuet. Ze gertatu zen uda horretan? Udara zen, udan bero izugarria egiten zuen, eguzkiak gogor jotzen zuen, eta euririk batez. Aspaldi-aspaldian, batez.

Hiru antxumeen zelaia idortuta, lehortuta, zeharo-zeharo lehorra zegoen. Batere euririk ez, aspalditxoan euririk ez, eta belar xamurrik ez zen sortzen, eta ez zeukaten janik. Hortik ibiltzen ziren miazkatzen, bilatzen belar izpi freskorik.

Eta momentu bat iritxi zen ez zeukatela jatekorik, eta hiruren artean lehendabizi kejavu zena Adargabe izan zen, horrelako abots fina dauka, txikiagoa delako.

- Ai, goseak nago! Ez daukagu ezer jateko, tripako minez nago, eta ez dago belarrik. Zer egingo dugu?

Bigarrena kejavu hasi zena, zein izango zen? Adarmotz, hasi zen:

- Egia da, ez daukagu jatekorik. Ene! Eta hurrengo egunetan ere ez dugu izango. Dana lehortuta dago, zer egin beharko dugu?

Baina Adarluze ez zen kejavu, ez. Bera handiagoa zen, beste errekurtsu batzuk zituen, eta esan zien:

- Lasai anaiok, pentsatuko dugu zer egin arazoa konpontzeko. Utzidazue pentsatzen, lasai —esan zien—.
- Begira iluntzen ari du, ilargia azaldu da zeruan, orain gaua datorrenez goazen lotara. Bihar, goizean goiz, esnatuko zaituztet, eta esango dizuet zer pentsatu dudan arazoa konpontzeko.
- Bale! bale!

Konfiantza handia zeukaten anai handiarengan, eta lotara joan ziren gosez, baina etzan ziren eta lo hartu zuten. Eta zein zegoen lo ere bai, zubi azpian? Aztia, lo zegoen ere bai, Adarluze, zaharrenak, lo hartu zuen. Gau guztia igaro zuten lo, eta eguzkia atera zenean zeruan lehenengo argi izpiekin berehalaxe, zein arduratsua den Adarluze! Ardaluze esnatu egin zan.

- Eguna etorri da, nere anaiak esnatu behar ditut.
- Egun on, Adarmotz, esnatu!
- Egun on, Adarluze!
- Egun on, Adargabe, esnatu!
- Egun on, Adarluze!
- Esango dizuet gauean zer pentsatu dudan arazoa konpontzeko, badakizue zer?
- Zubiaren beste aldera joan egingo gara, han belar fresko, goxo, xamurra baitago, eta han ez zaigu janaririk faltako.

Adargabe serio-serio:

- Baina, zer esaten duzu Adarluze? Zuk badakizu zubiaren azpian aztia dagoela eta jan egingo gaituela.

Eta Adarmotzek ere:

- Egia da Adarluze, zer gauzak esaten dituzun, baina beldur handia daukagu, eta ez dugu pasa nahi zubitik.
- Lasai, orain aztia lo dago, eta, isil-isilik bagoaz, ez da enteratuko.
- Benga Adargabe, zu txikiena izanda, segi, zu aurrena zubitik.
- Beldur haundia daukat.
- Benga segi aurrera, isil-isilik jun eh!

Baino, klaro, bere zintzarriak zarata egiten zun, poliki zihoan arren, egiten zion, ti-tin!, ti-tin!, ti-in!, ti-tin! Zubiaren erdialdean zegoela.

- Nor dabil hor? —Aztia, aztia esnatu—.
- Adargabe.
- Eta zer nahi duzu?
- Zubiaren beste aldera pasa nahi dut, goseak bainago, gure zelaiko belarra lehortu zaigu, eta ez daukagu zer janik.
- Ezin duzu pasa.
- Zergatik?
- Ni ere goseak nagoelako, eta jan behar zaitut.
- Ez, azti jauna, mesedez, ez ni jan, begira ze txikitxo naizen. Ez daukat haragirik. Ez mesedez, ez ni jan. Badakit, jan ezazu nere atzetik datorren nere anaia, bera koxkorragoa da, haragi gehiago dauka, bera jan ezazu.
- Zure anaia?
- Bai.
- Zu baino handiago?
- Bai.
- Ez dakit ba, egia esan oso-oso argala zaude. Hezurra besterik ez zera, bueno, benga, bale.

Eta ti-tin! Ti-tin! Ti-tin! Beste aldera iritxi zen.

Iju!, gure Adargabek lortu du beste aldera pasatzea. Hasi da larrean hor belarra goxo-goxo jaten, eta bere anaien zain.

Beste aldean Adarluzek esan dio Adarmotzi.

- Adarmotz, benga, zure txanda da orain.

- Mesedez, eske..., eske... beldur haundia daukat, Adarluze!
- Lasai. Isil-isilik pasatzen bazera, aztia lo dago, eta ez da esnatuko.
- Bale!

Dardarka zebilen, Adarmotz ere bai, ertaina zen, baina beldurra zeukan. Eta tan! tan! tan! tan!, erdi-aldean zegoenean:

- Nor dabil hor? —berriro aztia—.
- Adar... Adarmotz naiz.
- Eta zer nahi duzu?
- Zubiraren beste aldera pasa nahi dut, hango belar goxoa jatera, gose haundia daukadalako, gure zelaia lehortuta baitago.
- Ezin dizut pasatzen utzi.
- Zergatik?
- Ni ere goseak nago, eta jan behar zaitut.
- Mesedez, ez, ez nazazu ni jan. Begira, badakit, nere atzetik datorren anaia jan ezazu, eske... nik haragi gutxi daukat, ikusten duzu? Argal-argala nago. Jan ezazu nere anaia bera handiago eta indartsuagoa baita, potoloagoa.
- Anaia handiagoa duzu eh?
- Bai!
- Ez dago gaizki pentsatuta, egia esan, ondo jan nahi dut, eta, benga, pasa beste aldera. Tan! tan! tan! tan!

Iuju!, Adarmotzek ere lortu du, eta orain hantxe dago Adargaberekin belar goxoa jaten.

Zer gertatzen da, azkenik? Adarluzek esan duela:

- Bale, nere anaiok lortu dute, orain nire txanda, orain nik pasa behar det.

Ton! Ton! Ton!

- Nor dabil hor?
- Ni, Adarluze naiz.
- Eta zer nahi duzu?
- Hango belarra jan nahi dut, goseak bainago!
- Ez, ezin dizut pasatzen utzi.
- Baina zergatik ez?
- Nik ere jan behar dudalako. Jan behar zaitut, goseak nago ni ere.
- Jan? Zuk ni jan? Ezta pentsatu ere!
- Nola ezetz, indartsua naiz.
- Ja, zu indartsua zara, baina begiratu nire adar zorrotz luze hauek.

Borrokan hasi, Adarluzek adarrak sartu aztiaren kamisoian, auuuuuu! Zer uste duzue egin zuela? Nora bota zuela? Uretara. Eta ur dexente zegoenez, zer gertatu zitzaion aztiari? Ito eta hil.

Eta horrelaxe pasa zen beste aldera. Ton! ton! ton! Beste aldean hiru anaiak bildu ziren.

- Lortu dugu, ausartak izateagatik! Hemendik ez gara mugituko. Eta horrela hirurok eskutik helduta abestitxo bat abestu zuten.

*Hirurok lortu dugu igarotzea zubitik.
Aztia hilda dago gaiztoa izateagatik.
Larala, larala, larala, larala, larala, larala.
Hemendik aurrera gu biziko gara poz-pezik.
Ez gara inoiz joango zelai berde honetatik.
Larala, larala, larala, larala, larala, larala.*

Ipuinak kontatzeko erabil ditzakegu oso baliabide desberdinak, esate baterako, irratia, edo bideoa, edo diapositiba, zergatik ez? Baina, adin hauetan, adin txiki hauetan, ez dago dudarik, batere dudarik, bitartekorik gabe egiten den kontaketak askoz ere xarma eta indar afektibo handiagoa duela. Eta, noski, elkarren artean haurrekin komunikatzeko eta abar, askoz ere indar gehiago eduki lezakeela. Ikusiko ditugu muestra batzuk.

Adin hauetan, adin txiki hauetan, garrantzi haundikoa da hitza, kontakizuna, ipuina, gorputzarekin lotzea, dantza berean sartzea. Herri-folkloreak hainbat adibide eman ditu. Esate baterako:

Arre, arre mandako, bihar Tolosarako etzi Iruñarako; handik zer ekarriko, handik zer ekarriko?

- Koka-kola.
- Koka-kola? Handik zer ekarriko?
- Kolonia.
- Nori botatzeko? Nori botatzeko?
- Juneri.
- Juneri? Ea, bota, bota.
- Ze usain da hau? Ze usain da hau?
- Kolonia-usaia?
- Bai.

Ta, ta, ta, ta, ta, ta, ta, txingurria, txingurria, gora, gora!

- Eh, zer zera zu? Zer zera zu?
- Sudurra.
- Sudurra zera zu? Eta zu, zer zera zu? Tximinia zera zu?
- Lepoa.
- Eta zer zera zu? Zartagia arraultza prejitzeko?
- Zer zera zu?
- Belarria.
- Belarria zera zu.
- Eta zer zera zu? Belarra zera zu?
- Ilea.
- Eta nor zera zu? Nor zera zu?
- June.
- June zera zu?
- Eta nor zera zu?
- Lorea.
- Lorea zera zu?

Tilin! talan! bihar jaia, eskolik ez, joango gara:

- Nor ikustera?
- Aitona..., amona...
- Eta nor gehiago ikustera? Nor?
- Izeba.
- Eta nor gehiago? Nor gehiago?
- Naiara!
- Naiara ikustera. Goazen, goazen Naiara ikustera, goazen goazen.

Begira, han! han! han! Begira. Hemen, hemen, hemen arkakusoa, arkakusoa jo! jo! Salto egin du arkakusoak, eta Juneren eskura, eskumuturrera, salto egin eta sudurrera. Hemen, hemen, sudurretik salto, salto, salto egin eta txakurra etorri zen, guuuuuu!, eta arkakusoa sartu zen txakurraren larru tartean eta ohuuuuu! alde egin zuen, eta geroztik arkakusorik ez dago Juneren gorputzean.

Egun hartan ni mukizua naiz, badakizue zein mukizua naizen, Pello mukizu batzutan deitzen didate, eta egun hartan mukiak! mukiak! Sartu nuen nere hatza, eta sartu eta gero ezin atera.

- Ai! Zer egin? Zer egingo dut ama? Arraioa! Zer egingo dut? Zer egingo dut?
- Nori eskatuko diot laguntza?
- Txakurrari.
- Txakurra etorri zaitetz.

Guau! guau! Txakurra etorri eta neri bultzaka hasi.

- Tira lagundu! Lagundu! Tira! Tira! Tira!

Eta txakurrak ezin, inola ere ezin. Zer egingo? Txakurrak ezin!

- Nori eskatuko diot laguntza?
- Juneri.
- June etorri zaitetz.

June etorri, eta June hasi zen bultzaka, bultzaka, tiraka, tiraka txakurrari eta txakurrak neri, tira eta tira, tira, baina ezin libratu.

- Zer egingo dut? Zer egingo dut? Nori eskatuko diot laguntza?
- Loreari.
- Lorea etorri!

Lorea etorri, eta hasi bultzaka. Nori? Juneri, eta Junek txakurrari, eta txakurrak neri. Tira, tira, tira, baina ezin. Zer egin?

- Nori eskatuko diot laguntza?
- Medikuari. Medikuari eskatuko diot laguntza. Medikua —ring! ring!—, etorri zaitetz, arren!

Eta medikua etorri zen, eta medikua bultzaka. Nori? Nori? Nori? Loreari. Eta Loreak:

- Nori? Nori? Nori?
- Juneri,

Eta Junek:

- Nori? Nori? Nori?
- Txakurrari.

Eta txakurrak:

- Auuuuuuu!!!

Eta libratu, eta ipuina.... bukatu.

Ahhhhh!... Egun hartan esnatu, eta han urrutiko mendietatik agertu zen eguzkia, eta eguzkia atera bezain agudo, nere hatz txikerra, jaten duena piperra: kuku! esnatu egin zen. Eta ez hatz txikia bakarrik. Baita ere esnatu zen alferra, alfer ontzia, tipo ederra: kuku! Eta esnatu zen luzea, jirafak baino lepo luzeago duena: kuku! Eta hiru baziren esnatu zirenak. Eta une hartan esnatu zen laugarrena denetan bizkorrena: kuku! Eta lau sardina bakalau! hantxe. Eta bosgarrena zurrunka gozoan, roooooo ufffff!, roooooo ufffff!, roooooo ufffff!

Eguzkiak deskribitu zuen bere zirkulu perfektoa hirian barrena, eta urrutiko mendietan desagertzerakoan, lehenengo hatz txikia, txikerra jaten duena piperra lotara joan zen: kukukuku! Eta bigarrena, alferra, tipo ederra, kukukuku! Eta luzea, jirafak baino lepo luzeago duena, kukukuku! Eta laugarrena, bizkorra, kukukuku! Une hartan esnatu zen denetan potzoloena:

- Kukurruku! Kukurruku!
- Eh, isilik egon zaitez!
- Ez dut nahi, parrandero bat naiz!, parrandero bat naiz!
- Isilik egon zaitez, lo egin behar dugula!
- Ez dut nahi, parrandero bat naiz!

Eta une hartan hatz luzeak bere lepoa luzatu zuen, eta hasi zen pentsatzen eskubiko belarriarekin, hasi zen pentsatzen ezkerreko belarriarekin, hasi zen pentsatzen pentsamenduarekin, eta, baita ere, pentsamendu zorrotza ere, pentsatu.

- Non dago azeria?
- Azeria egurra biltzen!
- Eta egurra zertarako? Zertarako?
- Sua egiteko! Sua egiteko!
- Eta sua zertarako, Zertarako?
- Arraultza prejitzeko! Arraultza prejitzeko!
- Eta arraultza nork jateko? Nork jateko?
- Nik!, nik!, nik jateko!
- Eta hatz potoloak jan zuen arraultza prejitu guztia.

Eta une horretan euria hasi zuen.

- Eh Pello! Pello! Busti egingo gerala, busti, busti!
- Ba, sar zaitezte nere txokoan, aterpean, kukukuku!

Eta hantxe gelditu ziren kukututa aterpean, eta besteak, inbidioso hutsak ziren eta.

- Guk ere bai! Guk ere bai!
- Benga latoso zikinak zuek ere bai, benga kukukuku.

Haiek han sartu eta Ahhhh..... sartu, eta ni loak hartu, eta ipuina bukatu.

Behin omen zen, behin omen zen,
behin omen zen, behin omen zen,
behin omen zen, behin omen zen,
jaun zahar bat, jaun zahar bat,
zahar-zahar bat, zahar-zahar bat.
Egin omen zuen, egin omen zuen,
putssss! puzkar handi bat, puzkar handi bat,
puzkar handi bat, puzkar handi bat.
Joan omen zen, joan omen zen,
baratzara, baratzara.
Jan omen zuen, jan omen zuen,
aza, aza.

Jan omen zuen, jan omen zuen,
kalabaza, kalabaza.
Eta egin omen zuen, eta egin omen zuen,
eta egin omen zuen, eta egin omen zuen,
kaka berde-berde-berde bat, kaka berde-berde-berde bat,
kaka naranja-naranja-naranja bat, kaka naranja-naranja-naranja bat,
kaka hori-hori-hori-hori bat, kaka hori-hori hori-hori bat,
eta kaka aggg, ze nazka!

Behin omen zen, behin omen zen,
jaun zahar bat, jaun zahar bat,
jaun zahar bat, jaun zahar bat,
jaun zahar bat, jaun zahar bat,
Ahhh....., Ahhh.....,

Orain arte ikusi dugu ipuina lotzen gorputzarekin, dantza berean sartzen, erritmoa zaintzen, baina, baita ere, eguneroko objetuekin kontatu dezakegu hainbat ipuin; esaterako, pintzarekin. Pintza, haurrek ezagutzen dutena. Oso ondo, pintza!

— Krua! Krua! Krua! Jango zaitut, jango zaitut —esaten zidan— jango zaitut.
— Ez! Ez! Ez! Ez!

Baina joan eta joan, eta sudurra krassk.

— Ai! Ai! Ai! Min! Min! Min! Min!
— Krua! Krua! Krua!

Eta une hartan ikusi zuen sabela, tripa kassk!

— Ai! Aiiii! Mesedez. Ez! Ez! Ez! mina hartzen dut, mina hartzen dut.
— Krua, krua, krua!

Eta ikusi zuen hatza.

— Kassk!
— Ai! Mesedez, min hartzen dudala; mesedez, joan hortikan.
— Krua! Krua! Krua!

Eta ikusi zuen hantxe nire belarria.

— Kassk!
— Aiii!, mesedez, ken, ken, ken hortikan, ken hortik.
— Krua! Krua! Krua!

Eta une hartan ikusi zuen hantxe soineko ederra, urdina, fina.

— Krua! Krua!
— Eta une hartan harrapatu, eta hantxe geratu gure pintza gorria.

Geroztikan, horregatikan ikusiko duzue pintza zintzilikatua erropa tartean.

Ikus dezakezue objetuekin kontatu dezakegula ipuina, baita lumarekin ere, edozer gauzarekin. Luma.

Ai, luma! Gure luma beti triste egoten zena, ez zuen inorekin hitz egiteko gogorik.

- Zer gertatzen zaizu?
- Ohhh hegan egin nahi dut! —esaten zuen lumak—, hegan egin nahi dut!
- Hegan? Ba, hasi zaitez hegan.
- Baina nik ez dakit hegan egiten —esaten zuen—.
- Begira hor lagun bat, eta joan zen luma, eta esan.
- Zein da zure izena? Zein da zure izena?
- June.
- Zein da zure izena? Zein da zure izena?
- Lorea.
- Ahhh! —esan zuen lumak—, baditut bi lagun, bi lagun. Eta egin zen oso ezagun.

Eta gure luma hasi zen hegan egiten. Ahhhhh! Ahhhhh! Eta hegan hasi, hegan hasi luma, handia, eta, hegan egiterakoan, sortu zuen haizea suhhhhh!, suhhhhh!, suhhhhh!, gure lumari esker.



Halakoak dira ipuinak. Ikusten dezute gauza sinpleekin nola kontatu dezakegun hainbat ipuin. Baina inportantea da horretarako gauzak, objetoak oso ezagunak izatea haurrentzat. Adin honetan ere garrantzi haundikoa izan daiteke girogarriren bat erabiltzea, haurraren atentzioa fokalizatzeke, zentratzeke, ez dispertsatzeko. Esate baterako, erabil dezakegu panpinen bat, panpin musikal bat, gure Maria.

Ai, Jesus! Jose eta Maria! Bere izena Maria. Eta gure Maria hasi zen mugitzen, lepoa mugitu zuen alde batera eta bestera, gaur egungo kotxeko parabrisa bezala.

- Ai, Maria! Nahi al duzu ipuinen bat entzun?

Eta Maria lepoa mugitzen, eta gu ere lepoa mugitzen, alde batera eta bestera.

- Maria ipuina entzuteke hemen utziko zaitut, ttakalo, ttakalo, ttakalo.
- Maria! Ipuina entzun nahi duzu? Bai?

Mariak baietz esaten digu. Eta ikusten duzue nola fokalizatzen duen atentzioa.

Edo erabil dezakegu kaxaren bat, esate baterako, honako hau.

- Kaxa ireki zaitez, kaxa, ireki zaitez!
- Kaxa ireki zaitez, kaxa ireki zaitez!

Eta kaxa ireki egin zen, eta kaxa ireki eta erabil dezakegu. Objeto musikalen bat, esate baterako. Ipuina hasteko izan daiteke baliagarria, edo ipuina lotzeko edo.

- Kaxa ireki zaitez, kaxa ireki zaitez!

Erabil dezakegu, baita ere, potea.

- Pote, pote, pote, pote, pote, pote.
- Nor ote? Nor ote? Nor ote? Nor ote?
- Mundua, mundu txikia, mundu txikia bezain handia.
- Salto matxinsalto, salto matxinsalto.

Baina, salto egin aurretikan, esan behar diogu:

— Buelta, buelta txiribuelta; buelta, buelta txiribuelta.

Eta hasi zen bueltaka, bueltaka.

— Salto matxinsalto, salto matxinsalto.

Eta egin zuen salto goraka, gora, eta berriz ere lehengo lekuan sartu, ze ipuneko jenioak horrelakoak dira, agertzeko eta desagertzeko, mundu txikia bezala.

— Pote, pote, pote, pote, pote, pote.

— Nor ote? Nor ote? Nor ote? Nor ote?

Tresna hauek izan daitezke oso girogarriak, baliagarriak, atentzioa, esan dugun bezala, zentratzeko, ez dispertsatzeko, eta rito berriak inaguratzeko.

— Kaxa ireki zaitez, kaxa ireki zaitez!

Eta kaxa ireki zen, eta agertu dezakegu, esate baterako, kandela. Eta kandela agertu, eta poxpolu-kaxa eta sua, noski, sua. Poxpolua hartu, eta sua piztu. Sua piztu, eta, irauten duen bitartean, ipuina kontatu, eta, bukatzen denean, ipuina bukatu, eta kea agertu.

Eta agertu dezakegu kaxatikan gauza asko, gure kaxatikan gauza asko.

— Kaxa ireki zaitez, kaxa ireki zaitez!

Eta kaxa ireki zen, eta agertu zen handik, gure gauza dizdiragarria marka, ipuinentzat marka, zuk nahi baduzu zinemara joan, askotan ordaindu behar duzu, txartel batekin sartu behar duzu, zergatik ez erabili guk beste marka; eta haur bakoitzari jarri.

— Ea etorri zaitez, —eta bakoitzari sudur gainean jarri—. Begiratu, begiratu nolako sudurra duzun, hementxe duzu marka; eta orain zuk.

Eta, baita ere, kontalariak noski, eta ia presto kontatzeko, edo erabil dezakegu....

— Kaxa ireki zaitez, kaxa ireki zaitez!

Eta kaxa ireki zen, eta erabili linterna, edo erabili perkusioa. Zergatik ez? Nahi duzue abestu? Haurrak beti egoten baitira abestiak entzuteko.

Ipuina txokolate-txokolate,

ipuina tomate-tomate,

ipuina patata-patata,

ibili alpagata.

Eta bat, eta bi, eta hiru, eta lau, eta bost, eta sei, eta behera, eta gora eta behera, eta gora, eta txalo, eta txalo, eta txalo, eta txalo.

Ipuina txokolate-txokolate,

ipuina tomate-tomate,

ipuina, ipuinaren ordua.

— Nahi duzue ipuina entzun?

— Bai.

— Ba, nik "di" esaterakoan, zuek erantzun "da", eta ipuinarekin hasiko gara.
— Di!
— Da!
Behin batean... Eta ipuina hasi.

Nik sei esaterakoan, zuek eseri.

— Bat, bi, hiru, lau, bost eta sei, orain eseri,
— Prest zaudete?
— Bai.
— Kontento?
— Bai.
— Listo?
— Bai.

Ikusten duzue, ipuinaren bitartez, nola markatu dezakegun espazioa, formato berrian sartu, ipuinaren formatoan.

—Zuek ez zarete beldurtuko espazio honekin?
— Ez!
— Zuek ez zarete beldurtuko itzaltzen badugu argia?
— Ez!

Zeren ipuina ere kontatu dezakegu argirik gabe, edo linternarekin; Zergatik ez?

— Ez zarete beldurtuko, ez? Ez zarete beldurtiak ?
— Ez!

Argiari begiratu eta esango diogu:

— Argia itzali, bat, bi eta hiru: —argia itzali—.

Eta argia joan zen. Eta beste argia han zegoen.

— Argia itzali!

Eta argia joan zen, eta handik Auuuuuu!, agertu zen monsturuaren liburua.

— Hemen nago, auuuu!

Ikusten duzue ze nolako monsturoa? Eta monsturoak esan:

— Ahhh gose naiz, gose naiz, eman zerbait jaten, eman zerbait jaten!; bestela, jan egingo zaituztet, auuuuu!

Eta batek esan zuen:

— Nik, nik emango dizut jaten.
— Ea eman zerbait jaten! Zer emango didazu jaten?
— Txorizua.
— Aummm! Eskerrik asko.

Eta han zegoen bestea.

— Jango zaitut, ez badin badidazu zerbait ematen jateko!
— Zer emango didazu?
— Ezer ez!

- Ehhh, ezer ez, mesedez eman zerbait jateko.
- Zer emango didazu?
- Koka-kola.
- Aummm! Eskerrik asko.

Eta monstrua kontentu-kontentu hantxe geratu zen.
Baina bazegoen beste monstrua.

- Auuuu! Jango zaituztet! Auuuu!!!



Behin batez, herri txiki batetan aita, ama eta Barbantxo bizi ziren. Barbantxo txiki, txiki, txikia zen. Bere aitak basoan egiten zuen lan, aizkolaria zen. Egun batean ama gaixorik zegoen eta ohean gelditu zen. Horregatik Barbantxok prestatu behar zuen janaria, amatxok esan zion:

- Kontuz ibili, eta ez erori.
- Ez ama, ez naiz eroriko —esan zuen Barbantxok—.

Baina Barbantxo bazkaria prestatzen ari zen, eta eltze barrura txirrist egin, eta erori zen. Igotzen hasten zen, baina txirrist egiten zuen. Azkenean, kostata, baina lortu zuen eltze gainera igotzea. Bazkaria hartu, eta, astoaren belarrian sartuta, mendira joan zen. Bidean mutil batzuk topatu zituen, haiek astoa bakarrik zihoala pentsatu zuten, eta dili! dale! astoa joka hasi ziren. Barbantxok oso haserre esan zuen:

- Arraioa! Astoa pakean utzi.

Eta mutilek ihes egin zuten beldurtuta. Bueltan lehengo mutilak topatu zituen.

- Nora zoazte mutilak? —galdetu zuen Barbantxok—.
- Apaizaren etxera, txerria hil du eta debalde jango dugu.

Eta denak saltoka eta korrika joan ziren. Apaizaren etxean Barbantxok txerriaren belarritikan oihuka esan zuen:

- Hau goxoa apaiz jauna!

Apaiza etorri zen, eta, hasieran, ez zuen inor ikusi; gero, Barbantxo topatu zuen txerriaren belarrian. Barbantxok ihes egin zuen, eta belarretan ezkutatu zen. Han behi bat zebilen, eta, belarrarekin batera, Barbantxo jan zuen behiak. Ilunabarrean, Maddi ikuilura joan zen. Maddi apaizaren neskamea zen, eta han ahots bat entzuten zuen.

- Hemen nago! Hemen nago!

Hasieran, Maddi beldurtu egin zen, baina, gero, Barbantxo ezagutu zuen.

- Non zaude Barbantxo?
- Behiaren barruan!
- Eta noiz irtengo zara?
- Behiak tur-tur egitean!

Behiak kaka egin zuen, Barbantxo zikin-zikina irten zen. Gero, oso ederki bizi izandu ziren, baina, hau da kusidatea eh?

- Zer da hori? Behiaren kaka, ezta?
- Benetan txikia da Barbantxo, ezta?
- Bai, oso txikia.

Eta kontatu zion ipuina, kilkerraren ipuina. Nik krik! Eta zuek krak!

- Krik!
- Krak!
- Mister Krik!
- Mister Krak!

Egun hartan, jende guztia hasi omen zen kantari:

Eguzkia miau-miau, atera da riau-riau, pon-pon!
Eguzkia miau-miau, atera da riau riau pon pon!
Gero, gero, gero, bero.
Gero, bero, gero, bero.
Eguzkia miau-miau, atera da riau-riau, pon pon!

Eta, eguzkia igotzean, arraultz txikitik jaio zen kilker txikia, eta kilker handiak begiratu zion kilker txikiari, eta esan:

- Hola, kilker txiki! Hola, kilker txiki!
- Egun on, kilker txiki! Egun on, kilker txiki!
- Kanta, kanta, kilker txiki! Kanta, kanta, kilker txiki!

Kilker txikiak hegoak mugitu zituen, astindu hegoak, hegoak harrotu, baino ez zitzaion kanturik atera, eta begiratu zion kilker handiak goitik behera.

- Tonto arraioa! Utikan!

Eta handik bidali zuen. Eta kilker txikiak:

- Ai! Ai! Ai! Nik ez dut balio kantatzeko, ez dut balio kantatzeko.

Eta jarraitu eta jarraitu ikusi zuen hantxen zomorroa, ikusi zuen mantis bat, matxinsaltoaren antzekoa, eta ikusi zuen harra sagarretik ateratzen, eta zomorro guztiak esan kilker txikiari:

- Hola, kilker txiki! Hola, kilker txiki!
- Egun on, kilker txiki! Egun on, kilker txiki!
- Kanta, kanta ezazu! Kanta, kanta ezazu!

Eta kilker txikiak eginahala eta bost egin, hegoak mugitu zituen, hegoak zabaldu, baino uste duzue atera zitzaiola kanturik? Ezta kantu nimiñorik ere. Begiratu zion batak besteari:

- Esparrago buruhandia! Esparrago buruhandia!
- Esparrago buruhandia! Esparrago buruhandia!
- Babalorea! Babalorea!
- Kilker-lorea! Kilker-lorea!
- Joan hadi hemendik! Joan hadi hemendik! Baaaahhhhh!!!

Eta hantxe ostikoka handik bidali zuten.

- Ai! Ai! Ai! Nik ez dut balio kantatzeko! Ez dut balio kantatzeko!

Eta kilker txikiak aurrera jarraitu zuen. Ez zekien zer egin, ez zuen lagunik. Nora? Eta han, aurrekaldean, ikusi zuen xirrita

xomorroa, eta ikusi zuen aurrekaldean erlea, eta ikusi zuen aurrekaldean erle alferra, eta ikusi zuen aurrekaldean matxino-
rratz, eta denek esan:

- Hola, kilker txiki!
- Hola, kilker txiki!
- Arratsalde on, kilker txiki!
- Arratsalde on, kilker txiki!
- Kanta, kanta kilker txiki!
- Kanta, kanta kilker txiki!

Eta kilker txikiak:

- Nik badakit kantatzen.

Hegoak astindu zituen, hegoak harrotu zituen, hegoak, hegoak, baino ez zitzaion kanturik atera, deus ere ez.

- Demonio oilaskoa!
- Demonio oilaskoa!
- Joan hadi hemendik!
- Joan hadi hemendik!
- Tonto arraioa!
- Tonto arraioa!
- Tonto buruhandia!
- Tonto buruhandia! Baaaahhhhh

Eta handikan bidali zuten.

- Ai! Ai! Nik ez dut balio kantatzeko, eta, gainera, ez dut lagunikan.

Eta burua makurtu zuen, eta etsitua, etsitua, eta jarraitu zuen aurrera. Eta hantxen moskituak ikusi zituen, gauaren erdian, eta ikusi zuen tximeleta. Tximeleta mendian lore baten... Ez! Ez lore baten gainean eta ez deus. Ez zuen ezer egiteko gogorik. Eh! Aurrekaldean ikusi zuen bat-batean hantxe kilkerra, bera bezelako kilkerra, eta, gainera, antenak zituen.

- Zu ni bezelakoa zera.
- Bai, kilker handi.
- Kilker handi? Ni naiz kilker txikia.
- Bai, kilker handi. Neri kantatuko al didazu zure kantua?
- Kantua? Nik ez dakit.
- Bai, kilker handi, kanta ezazu, kanta ezazu!

Eta kilkerra ez zen hain txikia sentitu; baina, konturatu zen bera bezelako lagun bat azkenean aurkitu zuela, eta une hartan hegoak zabaldu zituen, hegoak harrotu, eta bat-batean gauaren erdian kantua entzun zen.

- Kri, kri, kri, kri, nik badakit kantatzen.
- Kri, kri, kri, kri, bai kilker handi, zu nere benetako laguna zera.

Eta gauaren erdian kilkerren kantua entzun zen: Kri! Kri! Kri! Kri! Maitemindu ziren, eta kilkerrek hantxe jarri zituzten arraultzak. Baina etorri zen udazkena, etorri zen negua, eta kanta egin zen desagertu.

1. Makilaz jo	<input type="checkbox"/> Kiski-kaska!
2. Zerbait puskatu	<input type="checkbox"/> Krak!
3. Kolpean erori	<input type="checkbox"/> Prost!
4. Edan	<input type="checkbox"/> Zanga-zanga
5. Ate joka	<input type="checkbox"/> Dan-dan!
6. Ura irakiten	<input type="checkbox"/> Bor-bor!
7. Derrepente azaldu	<input type="checkbox"/> Brau!
8. Zarata handiz erori	<input type="checkbox"/> Blaust!
9. Koska egin	<input type="checkbox"/> Drausk!
10. Tximistaren argia	<input type="checkbox"/> Dzirt-dzart!
11. Tripetako hotsa	<input type="checkbox"/> Gur-gur!
12. Gezurrezko barrea	<input type="checkbox"/> Ijji!
13. Pauso motxak eginez ibili	<input type="checkbox"/> Tipi-tapa!
14. Masailean jo	<input type="checkbox"/> Zapla!
15. Jipoia eman	<input type="checkbox"/> Dinbi-danba
16. Zaldia trotean	<input type="checkbox"/> Draka-draka
17. Uretan ibili	<input type="checkbox"/> Txapla-txapla
18. Euri ugaria	<input type="checkbox"/> Zarra-zarra!
19. Lehertu	<input type="checkbox"/> Buuun!
20. Lozorroan	<input type="checkbox"/> Zzzzz!
21. Trumoia	<input type="checkbox"/> Burrruuun!

Oharra: Hemen adierazten diren erantzunak iturri bakar batetik hartutakoak dira. Emailearen esku geratzen da tokian tokikoak aukeratzea.

Sorgina zan emakume itsusi bat, emakume itsusi bat zan sorgina, eta beste emakume ederra ezkonduka zegon, baina ez zan pobrea. Lehen esan ditudanak pobreak ziren, oraingo hau ez zen pobrea, palazio eder baten bizi zan.

Garai hartan, aspaldikon, ez zegon kotxerik, automobilik, zaldiak. Baina zaldik ere ez zauzkaten danak. Herria hartan bakar-bakarrik zauzkaten zaldia eta karroa aiuntamentun, herriko aiuntamentun.

Nagusia eta etxeoandrea, emakume eder hori, atera ziren behin, arratsalde baten, eta bero egiten zun, oso bero. Joan ziren herriraino eta kotxian buelta bat eman behar zutela, kotxean ez karroan, eta emakume eder horri esan zion:

— Zuk itxoin ezazu iturri hontan, nik zaldia eta karroa ekarri bitarten.

Emakumea jarri zen han eserita, eta han zegon geldi-geldi. Bitartean, etorri zan sorgina, ekarri zun pitxar bat, eta ura hartzera iturritik. Etxeetan ez zegon urik, tuborik eta ez zegon, bakarrik iturrin, handik ura hartzera, eta ura hartzekoan putzu bat zegon iturri inguruan, eta eguzkiak emanda ikusi zun errainu bat, errainua da, norberaren, ispilu baten bezala, uretan agertzen da norberaren aurpegia edo, eta emakume itsusi harrek ikusi zuan erreinu hura, emakumea ez zen ikusten, beste aldean zegon, eta esan zuen:

— Ni hain ederra izan, eta ni uretara bialtzen?

Hartu pitxarra eta zirt, zart! Txiki-txiki egin zuen. Ez zitzaion gustatu uretara joatea, hura hain ederra izanda. Itsusia zen baino berak uste zun ederra zela, eta zirt! zart! hautsi zuen pitxarra. Jun zen etxera, eta nagusiari esan zion:

— Aizu!

— Zer?

— Ni hain ederra izan, eta ni iturrira bidaltzen? Ez naiz gehiago joango iturrira.

— Ez zerala joango?

Eman zion lurrezko ontzi bat, ez, egurrezkoa, errera bat esaten zena, burnikin eta lotutako bat. Hura burun hartu, joan zen iturrira. Lehen bezala, erreinu hura ikusi zun, eta berriz:

— Ni hain ederra izan, eta ni iturrira bidaltzen?

Hartu eta ri-rau! Lehen baino zailago, baina hura ere hautsi zun; egurrak kendu, burniak bota, eta egin zun.

Eta, joan zen etxera nagusiarena, eta ez zun neskame izan nahi:

— Ni ez naiz izango neskame, hain ederra izanda, neskame? Ezta pentsatu ere!

— Ura ekarri ezazu —esan zion nagusiak—.

— Ura ez det ekarriko.

Eman zion, badakizue ardoa ibiltzeko bota txikie, bota larruzkoa, zatoa, zato txikie, eman, eta...

— Ekarri hau bete, zato txikie bete ura.

Joan zen, eta oraindikan erreinu hura han zegon, bestearen itzal hura, eta hasarretu zan emakume sorgin hori, ni hemen nagola, eta hartu zuen bota txiki hura, eta bat jo, ta beste jo, ta hasi zen. Eta zer egin zuen han zegon emakume harek? Gaixoa hau, eta parrez hasi zan, orduan sorginak pentsatu zuen:

— Beste norbait badago hemen.

Begiratu zun eta...

— A! Zu al zinen hemen? —Harrituta bezala—. Zu al zinen hemen? Zer egiten duzu ba? —Oso txuri, hitz egiten, eta oso txuri-txuri—. Zer egiten duzu, ba?
— Nere gizona jun da zaldie eta karroa ekartzera, biok paseo bat emateko, eta hementxe nago zai, noiz etorriko.

Eta:

— Nahi al duzu ileak orraztea? —esaten dio sorginak—.
— Ez dut beharrik, orraztu berria etorri naiz.
— Nik ederki dakit, oso ondo dakit hori.

Hasi zen orrazten, eta orratz handi bat sartu zion buruan, eta emakume hori uso bihurtu zan. Eta emakume zahar hori eseri zan han, bere tokian. Orraztu bitartean galdetu zizkion senarra nolakoa zen, nun bizi zan, zer egiten zun eta gauza asko galdetu zion senarrataz. Usoa jun zan, eta gelditu zen emakume zahar hori, beltzaran bat zan eta itsusia.

Etorri zan gizona, eta hura ikustean:

— Zer pasatu da?

Eta:

— Eguzkiak beztu nau, txoratu egin nau, eta mareatu egin naiz, eta ni naiz zure emaztea.

Ezin sinestu zuen, baina, hala ere, beste inor ez zegoen, eta berarekin jun behar izan zun bere etxera. Bere etxen inork ez zuen ezagutu, ez semeek, ez neskameek, inork ere ez zuen ezagutu bere etxera joanda. Egunero begiratzen zioten, ahalegiak egiten zuan leheneko emakume hark bezala, benetako emaztea bezala, ondo ibiltzeko eta gauzak zuzen egiteko, baina beti antzematen zioten:

— Hau ez da gure ama, hau ez da nere emaztea.
— Zer pasatu da? —Beti zeuden kezka horrekin—.

Etorri zen udazkena, eta uso batzuk azaldu ziran baratzen, hango arboladin eta uso batzuk, eta uso haietako bat jarri zan palazioko balkoi baten ondon, eta denak famili guztia han zeudela:

— Nagusi jauna, ondo? —Usoak hitz egiten zuen—.
— Nagusi jauna, ondo?
— Bai?
— Moreno beltza eta ni Natxo?

Eta salto egiten zun, eta igesi; eta, horrela, aldi baten egin zun. Eta beti emakume zahar horrek, beti:

— Hoa hortik, hoa hortik! Uso zikin hori! Ez hona azaldu, ez hona azaldu! Hoa hortik!

Harek bazekien zein zan. Halako baten, gizona gertuatu zan, eta esan zun:

— Uso hori nola edo hala nik harrapatu behar diat, ba, uso hori hartu behar diat eskutan.

Hala esan zunen:

— Nagusi jauna ondo?
— Bai?
— Moreno beltza eta ni Natxo?

Eta saltoka hasi zen, eta hartu zun hankatio. Beste atso zahar hori sorgin hori, hasi zen:

— Hoa hortik, kendu zazue hortik, kendu.

Burrukan bezala hasi zan, eta gizonak hartu zun usoa, eta, leuntzen bezala:

— Hauxe uso polita.

Eta ikusi zun buruan koxkor bat zeukala.

— Zer ote da koxkor hori?

Hasi zen ateratzen, eta orratz burubeltz haundi bat atera zion, eta, momentu hartan, bere emaztea, emakume eder hura, plaff!!! Hantxe bertan gertatu zan.

— Ai! Nere emaztea! Eta beste hori zein da?

Orduan, esan zion:

— Iturrian nengon, hori etorri zan, hau egin zun, beste hori egin zun.

Eta, orduan, harrapatu zuten, sorgin horrek zer egin zuan, eta.... dana esan zuten. Poztu ziran ama ikustekin. Eta besteak zer egin zun? Balkotik salto, eta ihesi abiatu, baina danan artean harrapatu zuten.

Eta badakizute zer egin zioten? Orduan sorginei egiten zitzaiena. Labe bat piztu zuten, egur asko jarri —labea, badakizute, ogia egiteko-eta erabiltzen den horietako bat—, labe haundi bat piztu zuten, herri guztia bildu, hantxe sartu, eta hantxe hil zuten, sorgina zelako. Eta besteak, berriz, emaztea, senarra, semek, handik aurrera paken bizi izan ziren. Baina senarrak etzuen behin ere bakarrik emaztea uzten.

Beitu, bizi zien etxe baten andra-gizonak hiru alabagaz. Eta ama hil ein jakien. Eta akorde jakon gizonari aber berari zer gurotzien beren umiek pregunte ein bitziela. Ta preguntotzien. Zaharrenari deituotzen eta aber berari zenbat gurotzen.

— Ene, ba, aite, nik asko. Neupe eztakit zenbat gurotzudan. Neure burueri beste edo gehiau.

Bueno, deituotzen bigarrenari, aber berari zenbat gurotzen.

— Ene, aite, ez dot pentsetan munduen beste geuzerik dauenik nik zuri gurotzudan baino gehiau dauenik —harek bestiek esaotzen barriro.

Eta hirugarrenari esaotzen:

— Zuk zenbat gurostazu? Baia banan, eh?

Da harek esotzen:

— Beituizu, aite, gatzak haragieri gurotzen beste baino gehiau gurotzut.

Hirugarrenak, gatzetxuenak esotzen hori. Ta aitek pentzeuen: ene! ba harek eztotzela ba gure, aber gatzak haragieri zer gurotzen. Eztotzela gure harek bape eta soldadu biri esaotzien hartu ha eta eroan basora eta ekarri deuezala berari haren bihotza eta hatzamar txikien puntie. Hil deiela.

Soldadueri ba hiltiek pena emototzien eta akordeu jakien txakurtxo batek segiduotziela atzien. Eta neskiek zer eieuen? Maleta handi bat ein beren erropakaz eta urteuen etxetik. Ta joan zien. Eta txakurtxu horrek segidu euenien ein itzien, txakurre hil eta haren bihotza kendu eta berari neskiari hatzamar txikitxue kendu, holan puntie eta bendeu ha eintzien.

Ha bendotzienien eta zertu ba, itxi eben harek basoan. Basoan bertanbehera itxi eben eta segitako mendire esaotzien, ez bertara etorten ibilteko. Bizirik ixteotziela eta segitako mendire.

Bueno, joan zan neskie mendire, joan zan neskie mendien gora eta topo eban mutil eder bat beren baso-erropakaz eta esaotzon mutileri aber hareixek erropak berari kanbiko lezkiozan beren erropakaitik, berak aldien dekezenakaitik. Mutilek ukusi euen ha erropa elegantiekaz, eta baietz, kanbiekotzezala. Mutileri akorde jakonian

— Ene! ni horrekaz erropakaz etxera joaten banaz esango dere: Jesus, hau zer da edo non tope deuz honek erropak!

Baietz, kanbiekotzezala. Bilustu zien biek, batak itxi euzen lekutxu baten erropak eta bestiek beste lekutxu baten eta jantzi ebezen batak bestien erropak han lekutxuen.

Atzera junte zien arkalaz mudeute, bata mutil eta bestie neska, neskie izen zana mutil eta mutil izen zana neska. Eta:

— Oin, hemen zuk badakizu hor inun krieurik faltako dan?

— Eztakit, baia beituizu (akorde jakon mutilai), hantxe handikaldean dekozu baserri bet, eta bizi die ama-semiek krieda bikin. Ha etxe ona ozu -esaotzen mutilek.

Bueno, partidu zien eta segidu euen mutilek. Topeuen etxeori eta preguntotzien. Semia ez zan etxien egon mutile etxera etorri jakienien, baia kriedak eta ama etxien eon zien, eta baietz, baia ardi zaintzeko eta ardien txabolan lo eiteko biderela krieue esaotzien.

Ba berak ingo deuela, hiltie baino gurau euen ta.

Gero preguntotzien aber ze izen dekon eta beran izena motza dala. Eztauela izen motzik, izenak danak diela politek, bakotxan izena berie dala. Ba, berari Periko Zorritzto esatotziela.

Hartu eren eta ardiok erakutsi eutsezan eta kortie ardiena.

Harek gordeta euki euen hara etxera joan orduko erropa-maletie. Hara etxera bidien gaztaina handi-handi bat eon zan bidien, eta han, ba maletie gorde ein euen. Joan zan etxera ezebe barik, on zan moduen.

Gero bota eren ogera, lo eiten pastore-txabolara, eta han lo ein eta hurrengo egunien etorri jakien barrero. Ardioi zer ein bitzien edo zertu, eta joan zan. Eta joan jakozan halantxik egun partidie. Ondo gobernetotziezan ardiek. Gusture egon zien. Danak gusture egon zien.

Etorri zien herriko jaiek eta esaotzien, ba arratsaldiean ia berari be itxikotzien fiestara, hara jaira, bailera joaten.

Baietz esaeutsan amak. Amak pozik euken ha neskie, mutil eiten euen bertan baia neskie izen zan bera, eta ondo, oso pozik euki euen eta.

Bueno ba, bete euzen ardiek ondo, sartu euzen txabolan. Joan zan basora, gaztainen barruen ekezan beran erropak, jantzieuzen beran erropak eta harek mutil erropak han itxieuzen gaztainien barruen, han bertan.

Joan zan erremerira elegante jantzite eta joan zanien erremerira, herrira ailegeta inguruen, gazte bat zertu ein jakon eta hak ha gaztie ezetzeuen, etxeko uzaba izen zan, beren uzaba haixe izen zan.

Hasi die berbetan eta ba, enamorau die. Arkalaz guste die eta egune emoeben han, arratsaldien moduen, eta gero iluntzie. Eta mutilek esaotzen:

- Etxera lagundu bitzut.
- Ez, ezetan bez ezpabe nire aitek hilgo neu mutilaz joan nazela entzuten badeu eta.

Mutilorrek bertan itxi euen hainbeste gure izeotzen neskieri. Berbetan:

- Beno hamentxe partiduko gara orduen eta partidu zien.
- Biher etorriko zara? —esaotzen mutilek, eta:
- Eztakiat ba, aitek ixten baost bai —esaotzen neskiek.

Joan zan neskiori etxera ta, neskak ezotzien itxi gure izen erremeriara joaten, baia ha neskak baino arinau etxera joan zan eta harek amamari, etxien eken amamari, kontuek kontotzezan, han zer ikusi euen eta erremerien zertzuk ikusi ozen kontotzezan.

Etxera etorri zienean neskak e:

- Nun egohaz hi ba? Hi bazterren baten sartute egohaz. Inun be ezhaz ukusi.
- Nik bai zuek, ikusi zaituet. Eta zu mutil bataz pasioan ibil zara —esaeutzen neska bateri.

Neska bat nobioagaz ibil zen, eta bera uzabagaz pasioan, baia harek ezeben ha ezetzen. Eta eurek esan ei etzen:

- Eta uzaba eztok ukusi? Han neska elegante bataz pasioan? —esan ei otzien etxeko kriedak.
- Asko ebilen han elegante ta! —berak kontestue eiotzien.

Gero, ailege da bigarren egune. Esotzie ba, aber itxikotzien atzoko moduen joaten erremeriera, eta baietz. Uzabak barrez pozik, beranari be itxi deion. Hak ez euen uzabak pentseu ha danik, baia beranari be itxi deion pozik baietz, joateko.

Joan da oingo egunien elegantiau, uzaba hori zihetz enamoreute geratu jako eta gero ez deu jakin zer ein be, eta emootzo sortijetxu bet, eta aber barrero alkar non ikusko eben edo zer eingo eben. Ez dakiela ba, eta partidu dire holan.

Joan die etxera eta uzaba gaixotu ein de. Uzabari bere amak eiten izentzen bazkariteko beti opiltxu bet, eta uzaba hori geixotu danien,

- Uzaba nun de ba? —berak preguntetan izotzie.

- Gaixorik jekuk -aspaldi beten etxoat ukusi eta.
- Geixorik? Neuk osatukot. Itxiztezu horixe eguerdiko opiltxu hori neuri eiten eta neuk osatuko dot. Neuk osatu biot.
- Ixilik egohadi!

Zorritzotz esatetzien, eta:

- Hik zorriren bat botakotzek eta gero atarako gaixak danok etxetik.

Eztotzietan itxi gure izen kriedak eiten opiltxu hori. Baia hain estimatu euki euen amak,

- Ba eindeila —esaotzan amak.

Ein deu opiltxu hori eta sartutxo erdi-erdien berak emoneko sortijetxu hori opiltxu eta eroan dotzo beran amak bazkarie ogera.

Zatitu deuenien ha opiltxue, berak neskieri erregale otzen sortijetxue hantxe erdien tope deu mutilek. Eta mutilorrek esan deu:

- Nok ein deu hau opiltxu?

Eta neskak beti entzuten eta:

- Ene Periko! Ointxe haz akabue ba hi! Ointxe joan bijuk danok etxetik kanpora.

Amak atzera:

- Ene semetxue, zer deko ba? —esaotxo eta— nik esaotzut aber nok ein deuen- mutilek atzera. Eta ba, gure Perikok ein jok.
- Perikok egin deu? Eta bai.
- Datorrela hona —esaotxo mutilek ogetik. Eta ama horrek sillie bere kendutxo apurtu ez deien, bere pentsamenduetan, eta ba, deituetxo.

Joan da mutil hori, pastoreori, baia hak e, hara joan zanian e, ondo orraztute eroangoeuen ule hori, eta txapelagaz tapeute. Eta esotzon atera ailega bakori esaotzon:

- Zelako enbrie edo zer zara zu? Eta ba:
- Ni aitek hiltako basora botaikoa, berari gatzak haragiari lez baino eztozedala gure eta hiltako basora botaikoa.
- Aber, kenduizu hori txapeleri —esantxo eta,
- Zu esan duzen berbakaz konforme zara? —esaotzen mutilek bertan, harek euren pentsamenduek ei eresan aitek ixten botzen neskieri eta.

Neskiak bai esaotxo mutileri. Eta ahor gero, ekarri erezan erropok eta ahor ipini eren bodie. Baia neskiek esaotzietan bodara hiri-lau erreinteko erregiek ekarteko bezkaien.

Ekarri derez danak, ze mutil hori aberatsa zan, eta ipini dere bazkariori eta ipini derez jaten danak.

Esaotzietan neskiek hari jatekoari gatzik ezebe ez ipinteko, danak gatz barik ipinteko. Hartzen ei euen erregeorrek hau eta bestie be, eta ezin jan, gatz barik ezin jan. Eta lotsatute gelditu kasik errege hori.

Eta beno, bezkarie be akaba zanian, neskiori pase da aber danak ondo dauzen, preguntotzie ondo dauzen banan-banan danari eta ba, ondo danak. Eta aiteana ailege danielen preguntotze hari be bestie moduen eta

- Ba, ondo —esaotxo. Eta:
- Ondo ez, —alabiek esaotxo— Ondo ez —haxe kontestaotxo— Ondo egoteko, ha bihotza eta nire atzamar txikie hartu zainuzanien e... Akordetan zara?

Aite hori zertu ei zan zihetz, paseute geratu ei jakien eta -bueno ba, ni haixe naz. Aite horrek hartu ei eban alabiori hantxe, eta ha izen ei zan gatzak haragieri gure izeotzon hori.

Eta erreinurik erdie hareri emontzo. Aberastute itxi.

El cuento se ha acabado. Baia neskie ondo gelditu zen, eztozue pentsetan? Han pastore eta ardi-txabolan eta lo ein arren ondo gelditu zana? Nik pentsetan dot, ez? Nik halan dala pentsetan dot ba. Akabe da.

Gure aitte aproposa zan berari gertautako gauzak kontatzen; ta beti, gainera, normalean izaten ziren, parre egitekok eta hola. Bea halakoa zen, oso alai zen, eta amak, bestalde, gauza tristek kontatzen zitun, bere bizitza ere halakoa izan zelako, beharbada, eta ia egunero, ez baldin bazan afal aurren, afal ondoren, beti kontatzen ziguten:

Eta zuek eskatzen zenioten edo?

Bai, bueno, hitz egiten genuen, eta esaten genion aitte kontaiguzu, ba, fraile joan zinenen; eta, orduan, zapa! Kontatzen zigun han gertatu zitzaiona.

Eta nolakoak ziren ipuin horik edo?

Ipuinak baino gehiago esan dizut gertakizunak izaten zirela. Adibidez, nere aittek kontatzen zigun —zer esango dizut ba?—, fraile joan zenen. Fraile bidali zuten Komillasa, eta berak bokaziorik ez zeukan, eta amamari idatzi zion: *Amama ez daukat nik bokaziorik*. Eta amamak esan zion: *Horiek dire inpernuko etsaiaren tentaziok, eta, horrelako bat bururatzen zaizunean, zuk esan "fuera demonios"*.

Eta berriro idatzi zion: *"Fuera demonios" esaten det, baino nik etxera bueltatzeko gogo daukat*. Eta, horrela, egun baten ari zela garbitzen ofizina edo, ikusi omen zun zakarrentzin bere karta hori puskatuta: *Katxis lamar! Hauek ez die etxera bidali*.

Ordun zer egin zun? Hurrengo egunen ogizalea etortzen omen zan goizean goiz, igoal goizeko bostetan, eta zesto tartean ixkutau, eta jun zan. Ez dakit Santanderrea edo jungo zan; behintzat, trena hartu, eta Zumarraino eta Zumarran egon omen gaua etorri arte.

Eta Azkoitin sartu omen zan gauetz. Aittarik ez zuten, eta osaba apaiza zeukan, eta harek zigortuta bidali omen zun Azkoitiko basaririk urrutina, gose bat pasatzen omen zuen han, urdaiazpiko-pusketa bat badaezpada ere, mediku eta apaiza etortzen bazen. Kriston gosek pasatzen omen zitun. Behintzat nere osaba apaiz hori jun omen da eta:

- Zer Patxiko? Zer moduz Patxiko? Zer moduz hao?
- Primeran osaba.
- Hortaz, beste hilabete pasaukok.

Gure aita tripak jaten, gaizki zegon, eta gose batekin. Behintzat hure pasa zen, eta horrelakotxeak kontatzen zuen.

Eta amak nolakoak kontatzen zizkizuen?

Amak tristure. Ba bera hiru hilabetekin amarik gabe gelditu zan; hamalau senide zien. Oso gazte zerbitzea irten behar, eta, bueno, hamabosten behin jai ematen omen zien, eta ordun ohera sartzeko hartzen omen zun jaia, nekauta egote omen zan. Eta nagusiak ez zun esaten gogorrek zirenik, baina garaia horrelakoa zan; hartzen zuten neskamea lana egitekoa zen, eta punto. Eta beti horrelako gauzak kontatzen zigun, baina gu beti oso gustora egoten ginen entzuten.

Eta zein momentutan elkartzen zineten horrelako ipuinak edo kontatzeko?

Ez, bueno, guk afal aurren, ama afarie prestatzen bukatzen zuen bitarten, edo afal ondoren ere bai askotan, errosario erre-zau baino lehen, ba kontau iten ziun. Han egoten ginen aho-zabalka danak, aitte kontau hau, aitte kontau beste hau.

Batez ere, aitari eskatzen zenioten?

Bai, aittek kontatzen zizkigun izugarri, asko.

Amak baino gehiago?

Bai, eta esaten dizut beti parre egitekoa.

Eta zuri orduan zer? Aitarenak, batez ere, gustatzen zitzaizkizun edo ...?

Ba, bai. Bueno aittenak gustatzen zitzaizkiten, baina amarenak ebai, aunque triste ziren, beldurrezkoak ere bai. Zer esango dizut nik? Gu bizi ginen fabrika baten gainen, ez? Eta, garai hartan, lapurretan asko sartzen ziren, eta gauz bat gertau zala, bestea gertau zala, lapurrekin topo egin zuela eta horrelakoak. Eta hoiak ere gustatzen zitzaizkidan, gaizki pasatzen nuen, baina gustatu egiten zitzaizkiten horrelakoak kontatzea; kuestioa da giro hartan gustora egoten ginela, bata entzun eta bestea entzun gustoa egoten ginela.

Eta zuk kontatu al dizkiozu zure seme-alabei, gero, ipuin horiek?

Ba, bai. Nik uste det ohitura orduan hartu genula, nere alabai kontau diet nere gaztetako bizitza guzie, eta nere lagunak ezagutzen ditue aditzeraz, igoal ez dituzte ezagutzen, zeren kanpoan ere badauzket lagunak, baina esaten badiet deitu dit edo holakoekin egon naiz, ah bai! hau eta hau egin zuena, beste bat Frantzin dauket, eta, ah! Geno? Osea, denak ezagutzen ditue, nik kontauta.

Eta, orduan, gustora egoten dira zure kontakizunak entzuten?

Bai, gaur egun ere bai, oraindik ere gaur ere bai. Ama konta ezazu, akordatzen zea hau eta hau esan zenuela, nola zan? Igoal, parre egiten dute nik kontatzen dieten gauzekin.

Esan biharra dauket nik, hogeta hamasei urte daukaz, eta izetez baserrikue naz, baserrixen jaixue, oin kalien bizi naz, baina, bueno, segitzen dot juten, eta nik hola, ipuin kontaketeekin ta, gogoratzen dotena da, negue izeten zan normalien ipuin kontaktarako une egokixe.

Gero, amama bizi zan gurekin, ba gurasuek, hiru anai-arreba ga eta amama, eta neguakin esaten doten moduen, eta klaro arratsaldeko seiretan e, iluntzebanetik, ba gabien ohera jun arte ba ordu dexente egoten zien eta honek orduotan edo bestelan gero, behin ohera jundakuen, eta gero beste zer bat saso bat izeten zan, batzutan ba edurregaitik edo haziegaitik edo holan, argixe jun eiten zan ez? Eta hori akordatzen naz izeten zala tarte egokixe, edo behintzet hori lotzen dot nik ipuin kontaktarekin ez?

Eta beste zer bat izeten zan zera, ule luzie neuken, bueno esan biharra dauket gure etxien telebisinue nik bederatziz urte neukezala edo holan sartu zala ez, eta ule luzie ba primera komuninue eiteko ta, korapiluek kentzeko ta izeten zan tortura bat ez, ta orduen amak erabilteban ipuinen kontaktetiana ba ezta kik ez, txantaje moduen edo gero sari moduen edo, bitartien geldik egon eraiteko. Eta horrekin lotzen dot.

Ipuinek, esaten doten moduen, amamak kontaktzeustezan, ipuinek kontaktzeustezan eta kontaktzeuskuzen ze nere ahiztie behan izeten zan ez, eta amaman ipuinek izeten zien ba askotan berakin lo eitera jutiarren da amape bai.

Aman ipuinek, esan biharra dauket, nahastatzen jataz eskolakuekin ez, ba honek Kaperuzita ta Zazpi Antxumiek eta horrek zien amak kontaktzen zoskuzenak.

Eta aitepe bai, aitek gainera akordatzen naz motxak kontaktzeuskuzen, ba geur egun nik Fernandon ahotan entzuteitutenak neri aitek kontaktzeustezan Peru te Marixe edo, Peru te Marixe jostorrata ta harixe ta bueno, horren inguruen pasarte motxak izeten zien aitek kontaktzeuskuzenak. Baina holako, teatro einez, ahotsa kanbixaez eta eiten euskuzen ez.

Amamak akordatzenaz amamak e, ze kontau edo hola faltako jakon ez, berakin lo eitiarren kontaktzeuskuzen Herodes eta Jesusito eta holakuek ba ipuintzat erabiltzen zituen eta horrekin lortzeban ba gu berakin lo eitera jutie.

Eta amamak kontaktzen zituen ipuinek ba luziek izeten zien, harik eta gu lokartu arte ba han jarduteban berak ba ipuinek kontau ta ipuinek kontau.

Gero, ipuinek bakarrik ez. Amamak neri eta nere ahizteari erakutsi euskun trikitixan dantzaren eiten. Barixekueta Loiola irratixe gogoratzen naz entzuten gendule, telebisinoik ezauen eta barixekueta egoten zan lenengo errosarixue gogutzen naz, ha be erreseu biharra egoten zan, eta gero horren ondoik etortzezan trikitixie saio bat eta ha izetan zan benetan guri gustatzen jakune, eta orduen ba babak urkuldu edo artue zuritu, dana dalakue, laguntzen geuntzen. Errosarixue be erresatzen gendun ba gero ondoik e trikitixan jarduteko ez.

Nik txikitetik gogoratzeituten ipuinetatik nik usteot gogoratzeitutenak asko gustatzeatزالako gogoratzeitutela ez, bestelan ba... Eta gero eskolan ba jarraipena emoten jakon ba amak kontateustezanak, ipuin klasiko ta ba horrei.


Neuk ume bi daukadaz eta eurei kontaktzeko ba egie esan ba neuk nahi neuken beste eztozedaz kontaktzen hori holan da ez. Ipuin bat kontaktzeko pentsatzen dot asti dexente hartu bidala, ez da ointxe kontaukotzut eta hasi te amaitu. Normalien umiei ipuin bat gustatzen bajakue ba behin da berriro kontau eraiten dotzue, telebisinoik ez dauen lekuen izen bideu, nik neuk telebisinue aurrien dala ez dakit ipuin bat kontaktzen ez ezer eiten.

Eta gero nere gizonape bai. Nere gizonak gainera uste dot daukela ze kontau gehixau ze bere ama, nere amaginarreba zana, zan oso kantuzalie, bertsozalie eta beti edozein tarte aprobeztatzeban ba jarduteko bere esku kantuok, ipuintxuok eta kontaktzeko ez, eta hor ibiltzen ga.

Baina nik esan doten moduen, nere gurasoak bizi ditut eta oin ikusten dot eurek asti gehixakin dabizela eta orduen hartzen dabela edozein bitarte eta nere umiei, euren loibeiz ba kontaktzen deutsezela.

Nik pentsatzeot ba bixer edo etzi, ba neu amama eiten nazenien ba neupe aukera hobie eukiketela kontaktzeko ez?

IKASLEAREN ZUHAITZ GENEALOGIKOA
(Ipuin kontaktaren transmisioari dagokionex)



... nekatu eta moteltzen hasi ziren denen mihiak, erabat mututurik gelditu arte. Geroztik, abere, landare eta horrelakoek ez dute gehiago inoiz hitzik egin.

Egurak jarraitzen zuen, hala ere, sukaldeetara etortzen. Behin batean, haritz haundiaren adar lodienak, batean aldapa gora eta bestean malda behera amona xahar baten etxean sartu ziren. Eskerrak, bakarrik bizi baitzen amona hura eta hotzak hilko zen bestela neguan.

Egur-zama eskaleran gora zihoala emakumea behera zetorren, eta uste gabean, egur-mutur batek gona urratu zion. Zarrata handi bat egin zion.

Egurak damu zuen, baina ezin zion amonari barkamenik eskatu; ahaztua zuen ordurako hizketan. Isil-isilik sartu zen egurra sukaldean.

Ez hala emakumea. Mihi gaizto hark izugarriak bota zituen egurraren aurka:

— Aire gaiztoak joko ahal hau! Ez ahal da hemendik aurrera egurrik hemendik mugituko!

Eta ez zen geroztik egurra mugitu. Orain, egurra nahi duenak basora joan behar du bila.

Ipuin honetako protagonista neska bat, bere izena ipurdi gizona: Ixabel. Ixabel egunero joaten omen zen eskolara, zuek joaten zeraten bezala, eta, egun hartan, gure Ixabel hantxen bere lanak egiten ari zela, bere tripa hasi omen zen mugitzen krooooo! Egundoko soinua agertu, eta andereñoek holako basurde-muturra jarri:

— Nor izan da?

Eta batek esan zuen:

— Ixabel!

Eta beste batek esan zuen:

— Ixabel!

Eta jende guztiak esan:

— I-xa-bel!

Eta andereño joan eta Ixabeli begiratu:

— Ze Ixabel, zu izan al zara?
— Ez andereño, ni ez.
— Nor izan da, ba?

Eta Ixabelek hola hatza jarri, ta:

— Nere tripa!

Eta jende guztia hasi omen zen farrezka. Eta jende guztia farrezka hasi zelako, gure Ixabel triste geratu.

— Ni ez naiz inoiz eskola honetara etorriko!

Eta Ixabelek dunba! Atea itxi, eta handikan alde egin zuen bere etxera, eta bere amak begiratu, eta:

— Ixabel, zer gertatzen zaizu hain triste eta serio egoteko?

Ixabel hantxe, serio-serio:

— Ama gaur jende guztia farrezka egon da.
— Zergatik farrezka?
— Bai, oso tripa zaratatsua dut. Trumoiari baino soinu gehiago atera zaio.
— Bai! Ixabel! Nik esaten dizut —esaten zion amak—, nik esaten dizut goizero-goizero, mantso-mantso gosalduek behar duzula, baino ez duzu kasorik egiten, eta gero, noski, gero zure tripari trumoi baina baino soinu gehiago ateratzen zaio. Badakizu hemendik aurrera poliki-poliki eta mantso-mantso gosalduek behar duzula.

Egun hartan, ederki afaldu, ohera joan, eta, biharamunean, Ixabelek mantso-mantso gosalduek zuen:

— Ama, ama, gaur mantso-mantso gosalduek dut, eta gaur nere tripa lasai egongo da.
— Bai, Ixabel. Hartu maleta, eta joan.

Agur esan, eta Ixabel hara joan zen, eskolara. Egun hartan, hantxe ari ziren solfeatzen.

— Do, re, mi
— Do, re, mi
— Fa, sol, la
— Fa, sol, la

Eta hantxe la ari zirela esaten, berriz ere Ixabeli egundoko zarata, egundoko soinua atera Kroooo! Eta berriz ere andereñoa-ri, hola, basurde-muturra agertu:

— Nor izan da?

Eta betikoak esan zuen:

— Ixabel!

Eta besteak esan zuen:

— Ixabel!
— Nor izan da?
— I-xa-bel!

Eta Ixabelengana joan andereñoa, eta zer?

— Zu izan zera, eh?
— Ez, andereño ni ez.
— Nor izan da, ba?

Eta Ixabelek horrela jarri bere hatza, eta:

— Nere tripa!

Eta jende guztia hasi omen zen berriz ere farrezka. Eta, noski, farrezka hasi zelako jendea, Ixabelek bere ukabila jarri, eta egundoko kolpea, kolpetzarra bere mahaiari, eta handikan alde egin zuen:

— Ni ez naiz inoiz ere eskola honetara etorriko!

Etxera joan eta danba! Atea, baita ere, itxi zuen, eta bere logelan geratu.

— Ixabel, atea ireki! —esaten zion bere amak—.

Baina Ixabelek ez zuen inorekin hitz egiteko gogorik, eta bere amak pentsatzen zuen:

— Zerbait egin beharko dut, zerbait egin beharko dut. Ah, badakit! Sendagileari deituko diot.

Hartu zuen telefonoa:

— Ring, ring, ring, sendagile jauna! Sendagile jauna! Etor bedi lehenbailehen.

Eta sendagilea etorri, eta:

— Zer, zer gertatzen da?
— Hor alaba oso gaizki dago.
— Ixabel ireki atea, sendagilea etorri da eta!

Azkenian, etsituta atea zabaldu, eta sartu gure sendagilea:

— Zer, zer gertatzen zaizu Ixabel?

Eta Ixabel hantxe, ez zuen inorekin hitz egiteko gogorik.

— Ea atera mingaina. Aizu, neri burlarik ez egin, eh!

Hasi zen begiratzen, begiratzen, jarri zion hemen tresna, tuku-tuku, tuku-tuku taupadak, eta pixkat beherago joan eta egundoko soinua agertu gure Ixabeli Krooooo! Eta gure sendagileak:

— Baina ze nolako soinua ateratzen zaion zure tripari!

— Bai trumoiari baino handiagoa!

— Ai, Ixabel! Begira, zuk goizero-goizero behar duzuna zera da, —eta erakutsi zion botika—, jarabea, hauxe hartu behar duzu. Goizero hiru kutxarakada bete, eguardian beste hainbeste eta gauean berdin.

Berehalaxe Ixabelek baietz, eta gau hartan ederki afaldu, ohera joan eta hurrengo egunean, biharamunean, hartu zituen:

— Zenbat kutxarakada bete?

— Hiru!

— Eta gero nola gosaldtu zuen?

— Mantso-mantso! Badaezpada ere.

Eta maleta hartu, eta tapa-tapa-tapa eskolara joan. Baina eskolara joan, eta haur guztiak falta.

— Baina, nora joan dira?

Begiratu alde batera eta bestera, eta joan zen han konserjearengana, eta galdetu:

— Non daude, non daude nere gelako haurrak?

— Ixabel, begira, hor aurkituko dituzu kalean. Joan zaitetz korrika, zoologikora joan behar dute eta.

Joan zen korrika-korrika:

— Eh itxoin! Itxoin, nik ere joan behar dutela zoologikora!

— Ixabel, mugitu!

Eta hantxen korrika-korrika, antxintxiketan, laisterka bizian, gure Ixabel besteengana joan, eta zoologikoan sartu. Eta zoologikoan, badakizute, era guztietako animaliak ikusi zituzten. Ikusi zituzten elefante eleganteak, ikusi zituzten kokodriluak, tximiniak eta, batez ere, tigre, tigre boteretsua, tigre ahaltsua gruummm! Eta denak begira-begira geratu ziren. Eta juxtu une hartan zaindaria, tigreak zaindaria, hartu zuen baldea, dena okelez, haragiz betea, eta hartu zuen bere giltza, eta kaiolan, eta kaiolako atea zabaltzen hasi, eta juxtu zabaltzen hasi zenean, atea zabaldu, eta atetikan, ustegabea, gure tigreak ihes egin zuen, gruummm! Eta, ihes egiterakoan, jende guztia hasi zen handikan ihes egiten, baita ere andereñoak:

— Korri, korri zoologikotik, kaiolatik ihes egin duela tigreak! Korri hemendik!

Eta jende guztia hasi omen zen korrika, baita jubilatua, eta jubilatua ez zirenak, guztiak. Baina gure Ixabel geratu zen harrituta, durdusatu:

— Ixabel korri, tigreak irentsi egingo zaituela!

Baina gure Ixabel!... Eta une hartan gure tigreak pentsatu zuen:

— Neska tuntun hau bertan irentsiko dut.

Eta bazihoan gure tigre, eta, juxtu, tigre bere atzaparra luzatzen ari zenean, Ixabelen tripa disparatu zen Krooooo! Eta gure tigre gruummm! Geratu zen harrituta Krooooo! Eta gure tigre —gruummm!— geratu zen harrituta, eta joan zen atzera, atzera, atzera gruummm! Eta kaiola nola irekia zegoen, kaiolako atea, tigre ez zen konturatu, eta hantxen sartu zen kaiolaren barnean; eta une hartan zaindaria altxatu lurretikan, eta rrrraaaa! itxi zuen, eta andereño etorri korrika:

— Eh! Badakizue? Badakizue nork menderatu duen tigrea?

Eta batek esan zuen:

— Ixabel!

Eta besteak esan zuen:

— Ixabel!

— Badakizue nor izan den?

Eta jende guztiak errepikatu zuen:

— I-xa-bel!

Eta gure andereñoak:

— Gora Ixabelen tripa zaratatsua! Gora!

— Gora Ixabelen tripa zaratatsua! Gora!

Denek txalo bat jo zioten Ixabeli, eta gure Ixabel kontentu eta pozik joan zen egun hartan etxera. Eta ama harrituta:

— Ze Ixabel, gaur aldarte onakin zatoz? Ze, pozik?

— Bai ama, tigrea menderatu det, tigrea!

Eta kontatu zion istorioa, eta egun hartan Ixabel, ai! Ixabel ze pozik zegoen:

— Badakizue nola gosaldu zuen?

— Mantso-mantso.

— Eta zenbat koilarakada hartu?

— Hiru koilarakada bete hantxe hartu zituen.

Eta bere maleta hartu, eta eskolara eskolara iritsi, eta han, ezker-eskubi jarrita, neska-mutikoak pasilo bat egin zioten, eta denak hasi ziren:

— Gora Ixabelen tripa zaratatsua! Gora!

Eta txalo-zartada bero bat eskeini zioten, eta gure Ixabel lepoa tente, jirafa bat baino tenteago. Sartu barnera, eta hantxe denak eserita gelditu zirenean, batak besteari esan:

— Laister Ixabelen tripa zaratatsua entzungo dugu!

Baina, egun hartan, ez zen ezer entzun, eta denak gelditu ziren isilik.

—Gaur ez dugu ezer entzungo.

Jolas-garaia iritsi, jolas-garaia bukatu, eta denak isilik. Eta, halako batean, matematikako fitxa egiten ari zirela. entzun zen soinu bat. Eta andereñoak:

— Nor izan da?

Eta betikoak esan zuen:

— Ixabel!

— Nor izan da?

Eta jende guztiak:

— I-xa-bel!

Eta andereño joan, eta:

- Ze Ixabel, zu izan zera, eh?
- Ez andereño, ni ez.
- Zure tripa, eh?
- Ez andereño, nire tripa ez.
- Nor izan da?

Eta Ixabelek hatza eraman zuen lehendabizi aurrera, eta gero gerrialdera, eta gero atzera, eta:

- Nere ipurdia!

Eta jendea hasi zen farrezka, eta andereñoek errepikatu:

- Gora Ixabelen tripa zaratatsua! Gora!
- Gora Ixabelen ipurdi zaratatsua! Gora!

Eta denak txalo-zartada beroa eskeni zioten. Eta gure Ixabel poz-pezik. Inoiz baino lagun gehiago izan zuen eskolan. Geroztik, ez zuen arazorik izan, eta oso ospetsua izan omen zen.

Eta hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan, eta atera dadila herriko enparantzan.

- Zein da Tarzan? Ba al daki norbaitek zein den Tarzan.
- Bai, tximuen jefea!
- Horixe! Ba, bueno, nik kontatuko dizuet behin neska bati gertatu zitzaiona tximuen lurralde horietan, Afrikan.

Neska hau, Kattalin zuen izena, eta aitonarekin, bere aitonak itsasontzi bat zeukan, eta itsasontzian sartu, eta Afrika aldera joan ziren oporretan. Afrikako herri batera ailegatu, barkutik, itsasontzitik jetxi, eta, bapatean, neska beltza etorri zitzaien:

- Kaixo, egun on! Nongoak zeate?

Eta hola eta hola esplikatu zien, eta:

- Begira, zuek ez dituzue ezagutzen baso-oihaneko animaliak: lehoiak, kokodriloak, jirafak, hipopotamoak...
- Ba, ez.
- Ba, etorri, etorri nerekin! Hartu argazki-kamara, eta etorri nerekin. Nik erakutsiko dizkizuet.

Hartu zuten piragua txiki bat; neska beltza aurrean jarri zen, eta gure lagun neska hau —ez dizuet esan, Kattalin zuen izena—, Kattalin, atzean jarri zen; hartu zuten bakoitzak arraun bana, eta hasi ziren ibaian gora arraunean piraguan sartuta. Han ikusi zituzten alde batean elefanteak, beste aldean, kokodriloak aho handi batzuekin eta izugarritzko hortzak. Oso arris-kutsuak dira kokodriloak, eh! Eta elefanteak ere.

- Ikusi al dituzue kokodriloak nonbait?
- Nik elefanteak bai!
- Elefanteak bai, non ikusi dituzu elefanteak?
- Hotelean!
- Argazkitan edo?
- Kanean!
- Kanean?

Bueno, ba, halako batean ari zirela kokodriloak alde batera, jirafak beste aldera eta hipopotamoak uretan sartuta, horrela sudurretatik ura botatzen zutela, eta, ba, Kattalini argazkiak ateratzen ari zen bitartean, elefante batek tronpa luzatu eta raka! argazki-kamara lapurtu zion, eta, orduan, pentsa ze disgusto!

- Jolin! Aitonak erritan egingo dit, argazki-kamararik gabe.

Eta, orduan, esan zion neskak:

- Zu lasai. Begira, jarriko dugu piragua hementxe bazter batean, lotuko dugu hemen kainabera hauetan, eta joango gara Tarzanen etxera. Tarzanek ezagutzen du elefante hau, eta seguro segituan bueltatuko digutela argazki-kamara.

Eta horrelaxe egin zuten. Lotu zuten piragua bazter batean, eta joan ziren oihanean barrena. Eta han izugarritzko zaratak entzuten ziren: txori batzuk, tximoak, hau eta beste. Eta halako batean, pixka bat belar luze-luze-luze-luze batzuen tartean, —ia-ia ez zen ikusten hainbeste belar eta hainbeste landare zeuden—, halako batean, belar batzuen atzean, gorila handi bat ikusi zuten, handi-handia —eh!—, dana ilez beteta, eta esan zien:

- Nora zoazte zuek?
- Gu Tarzanen bila! Tarzanen etxera goaz!
- Eta zertara zoazte zuek Tarzanengana?
- Begira, neska honi.

Eta, hola egin zuenean, etzuen neska beltza ikusten inondik, ezta arrastorik ere.

— Orain bai egin dudala ederra, ez kamararik, ez lagunik. Nik zer egin behar dut hemen, baso-oihanean bakar-bakarrik?

Eta negarrez hasi zen, beldurtuta noski. Etzekien etxera bueltatzen, etzekien piragua non zegoen, argazki-kamararik gabe eta gorila handi harekin han aurrean negarrez hasi zan. Eta, orduan, gorilak esan zion:

— Zu lasai neskatxa, lasai. Nik Tarzan non bizi den badakit, eta neronek lagunduko dizut.

Eta horrela eskutik heldu eta zasta! zuhaitz puntaraino igo, eta han saltoka, saltoka, saltoka zuhaitz handi bateraino ailegatu ziren, eta han badakizue Tarzan, zuhaitz batean etxea duela eta han bizi dela, ezta?

— Tarzan! Tarzan! —deika hasi ziren—.

— Zer pasatzen da? Ze eskandalo da hau? Ezin da siestarik egin baso honetan edo zer?

Eta, gorilak esan zion:

— Begira, Kattalin edo ez dakit nola deitzen den neska honek laguna galdu du, argazki-kamara galdu du eta ez omen daki bere etxera bueltatzen.

Hortarako esan zien:

— Pasa, pasa, lasai. Gora, gora etorri.

Kattalin igo zan txistu batean. Ez dakizuela zergatik? Bai, animaliak zeudelako. Horixe baietz, lehoiak, tigreak eta izugarritzko hortza luzeakin, eta igo ziran gora. Gorila ordurako joan zen bere etxera, eta Tarzaneri esplikatu zion Kattalineri gertatu zitzaion guztia, ezta? Eta Tarzanek honelako karrasi handi bat bota zuen, elefanteak egiten dutena bezelakoa, eta azaldu zen elefante bat. Esan zuen Kattalinek:

— Nik elefante hori ezagutzen det, kamara lapurtu didana da —eta hasi zen— Tarzan! Horrek, elefante horrek lapurtu dit kamara, elefante horrek!

Eta, orduan, Tarzanek esan zion:

— Janba etorri honera!

Eta etorri zen elefantea:

— Zer gertatzen da? —Zeren Tarzanek animalia guztiekin hitz egiten du—.

— Zer gertatzen da? Bueltatuiozu neska honi lapurtu diozun argazki-kamara.

Bueno, hartu zuen lepotikan tronpakin elefanteak argazki-kamara, eta bueltatu zion Kattalini:

— Eta orain zer nahi duzu, Tarzan? Horretarako bakarrik deitu nauzu?

— Ez! ez! Zure gainera igoko gara, eta eraman behar gaituzu tximuen lurraldera.

— Tximuen lurraldera? Jo! neri ez zait gustatzen, oso bihurriak dira tximuak.

— Ba, bai, beste neska bat ere bahitu omen dute edo, ez dakit, honek lagun bat zeukan, eta baso-oihanetik zetoztela halako batean desagertu egin omen da, eta seguru, seguru, tximuak harrapatu dutela.

Jarri ziren elefantearen gainean, eta han joan ziren tximuen lurraldera. Tximu pila bat! baina pila bat! kolore guztietakoak, tamaina guztietakoak. Batzuk horrela buztana luze-luze batekin, besteak belarri handi-handi batzuekin, itsusiak denak eta lotsagabeak gainera, eta Tarzanek esan zien:

— Benga, non dago horrela eta horrela, ile kiskurra, azala beltza, belarritako handi batzuekin, hemen ba omen dago neska bat.

Eta halako batean:

- Tarzan! Tarzan! Entzuten da ahots bat.
- Hori da! Hori da! Neska hori da!
- Nola du izena?
- Ez dakit —esan zuen Kattalinek—, denborarik ere ez dut izan galdetzeko.
- Bai, ni naiz, ni naiz Guangi, ni naiz.

Joan ziren berarengana, eta:

- Zer, zer egiten duzu hemen?
- Ba, begira, tximu txotxolo hauek ez didate sinesten zure laguna naizenik eta zuregana joan behar dudala, eta zuregana joan behar dudala eta ez didate sinesten.
- Bueno, ba, utz ezazue pakean, eta goazen.

Horrela, hartu zuten neska berriro, elefante gainera igo ziran, eta poliki-poliki —badakizue elefanteak nola ibiltzen diran poliki-poliki— joan ziren Guangi neska beltz horren herrira. Eta han izugarrizko festa egin zuten, danbor handi batzuk, eta badakizute beltzak nolako danborrak jotzen dituzten? Danborrak handi-handiak, eta sua piztuta zuten ordurako. Gaua zan, eta izugarrizko festa egin zuten. Han Afrikan fruta jaten dute asko: platanook, piñak eta horrelako gauzak. Eta izugarrizko ontzietan izugarrizko fruta pila jarri zuten. Festa handi bat egin zuten, eta horrela berandu-berandu arte.

Eta hurrengo goizean aitona kezkatuta egongo zen, ezta? Non ote zebilen Kattalin? Hurrengo egunean bueltatu ziren itsasontzira, eta aitona, entzun zuenean Kattalinen historia guztia, esan zuen:

- Ba hurrengo batean joan beharko duzu berriro Tarzanengana, baino oraingoan badakizu Tarzan non bizi dan, eta oraingoan neroni ere joango naiz.

1. Gaiaren hautaketa:

Gaia haurren interesari ez ezik, bere bizipen laburrari ere egokitu behar zaio. Dexente alda daiteke ume txiki-txikienetik 6 urtekoenera. Orokorrean, familiako kide, etxeko animalia eta eguneroko objektuei buruzko ipuinak gustatzen zaizkie.

.....

2. Protagonisten hautaketa. Kategoria errazak hautatuko dira:

1. Gizakientzat: zuria, beltza, horia.
2. Materialetan ere ezagunak: airea edo haizea, ura, sua eta lurra.
3. Animaliak pertsona bihurturik, xehetasun guztiekin adieraz daitezke.
4. Pertsonaiak binaka elkartu behar dira, eta salbuespen gisa bakarrik egin daitezke talde handiagoak.
5. Kontrajartze ezberdina, indarra eta trebetasuna piztuko dituen; bat beste guztien aurka arituko dena, esaterako.

.....

3. Abentura. Bidaia arrunt batetik bereizten duen etengabeko suspertzea da. Berau lortzeko:

1. Irteerarik gabeko egoerara eramaten da, heroia gutzia jokatzera behartuz.
2. Pertsonaia nagusiak ezkutatu egiten dira. Momentu batean aintzakotzat hartzen ez den pertsonaia batek (ahulegia, gazteegia, ordurarte oso azkarra ez omen zena, ...) irteera zuhurra aurkitzen du, irabaztera eramaten duen irteera, noski.
3. Amaiera azkarra eman behar zaio, haurrak ez baitu gelditu behar pertsonaien egoerak sortzen dion estuasunarekin.

.....

4. Misterio-giroa. Hori lortzeko honako hauek izan behar dira kontuan:

1. Misterio-giroa deskribapenetan sartu.
2. Ezohiko soinuak erabili.
3. Maitagarriak edo sorginak erabiltzen badira —gehiegikeriarik gabe—, bere sinesgarritasuna indartu behar da, nolabaiteko lojika azalduz euren jokabideetan.
4. Ez da misterioa gehiegi erabili behar, eta ukitu komikoz jantzi behar da ipuina, hauek eraman baitezakete, magiak bezalaxe, haurra lilurara.

.....

5. Hizkera:

1. Ez da hiztegi zehatza eta osoa erabiltzeko beldur izan behar, baldin eta haurrak galdetu bezain laister azaltzen bazaio, edo pasadizo bera beste era batean berehala eta kontaketa zehar kontaktzen bazaio, ulermen-arazoak dituztenei egin ohi zaien bezalatsu.
2. Ipuina bukatu eta gero, eta edozein elkarrizketatan zehar, haurrak hitz berriok erabil ditzan aukera aurkitu behar da.
3. Bat-bateko ipuinak, irakurritakoak baino areago, ereduaren atsegina eskaintzen dio haurrari. Eta, gainera, zuzentasun egokituia eskaintzen dio, kontalariak haurrari komeni zaion neurrira moldatzen baitu hizkera.
4. Era horretan eredu on bat lortzen da, hau da, gorde eta imitatzen dena, ipuinak bere duen zirrara afektiboaz erabat baliatzen baita haurra, mirespen- eta emozio-iturri dituen fantasiaren eta irudimenaren zirrarez.

2. IPUINAREN EZAUGARRIAK

1. Ipuinaren garrantzia: hizkuntzaren zein pedagogiaren ikuspegitik

1.1. Ipuinaren zenbait ezaugarri:

✓ Solasaldietako lehengaia

Ipuinak dira, oraindik ere, amaren eta haurren arteko solasaldietako lehengaia.

✓ Fantasia eta irudimenaren bizkortzailea

Bere bizitzako lehen urtetatik bertatik behar du umeak fantasiarentzako egitura trinkoak eraikitzen eta irudimenaren gaitasuna indartzen lagunduko dion tresna.

Ipuinen ezaugarrietako bat umearen fantasia eta irudimena bizkortzea da. Ipuinak hain ditu ugariak gaiak, giroak, egoerak eta pertsonaiak, umeari oso aukera zabalak eskaintzen baitizkio, honi bere eguneroko bizitza motzean gogoratu ere egingo ez litzaizkiokeenak.

✓ Irudi-liburuen aberastasuna

Ipuin askoren balorerik inportanteenetako bat irudien aberastasuna da, edota istorioan zehar, abesti baten leloa bailitzan errepikatzen diren hainbat pasarte, gero umeek hain gustora errepikatzen dituztenak. Merezi du ipuin horien forma mantentzea, nahiz eta tarteka geure hitzak eta "esaerak" erantsi. Hauek, segun eta zein den umeen harrera, lagundu dezakete ipuinaren arrakastan neurri batean.

✓ Egunerokotasunaren adierazle

Ipuinak irakatsiko dizkio batzuen zintzotasuna, beste batzuen bizimoduaren latza, animaliek eta gizakiek beren bizitzan dituzten zailtasun eta borrokak, bizikera ezberdinak giro eta gizatalde desberdinetan, eta gauzak, nola ikus daitezkeen besteren begiz eta beste egoera batzuetan.

Era horretan, ipotxek, erraldoiek eta maitagarriek lagunduko diete umei naturaren indarrak, zintzotasuna eta gaiztakeria ulertzen, hau da, berez badirenak, baina ume txiki bati nekez adierazten zaizkionak, horrelako era batean ez bada.

✓ Zientzia versus irudimena

Umeen irudimenari ateak zabaltzea da, agian, hezkuntzan gehien baztertu den alderdietako bat; zientziaren "sasi-zaletasunak" gauzei zientziaren ikuspegi hutsetik begiratzea eraman baititu zenbait irakasle; ahaztu egin zaie, ordea, zenbait adinetan, askoz ere ulergaitzago eta magikoagoa izan daitekeela berezko gertaera bat ahateak hizketan hastea baino.

Bestalde, zientziak eta gizarteak aurreikusitako gabeko egoera baten aurrean zabalik egon eta harbera izatea, hori irudiak bakarrik ematen duen dohaina da, honek bakarrik eman diezaioke umeari bere arazo txiki handientzako irtenbide berriak aurkitzeko laguntza.

Ez da gure helburua, fantasiaren defentsa egitea, baina nahiko genuke logikotzat eta normaltzat hartzen diren eskemetatik kanpo dagoen guztiari beldurrez ez begiratzea.

✓ Beldurra ez eragitea

Puntu honetan, benetako giltza kontalariak berak du.

Kontalariak beldurra eragin nahi badu, giro berezi bat sortzea nahikoa du; ahotsa jaitsiz, umei mesfidati begiratzu eta egoera beldurgarria luzaraziz. Berehala sortuko du beldur-giroa. Eta gauza bera gertatzen da indarkeriazko eszenekin ere. Ez da gauza bera: "Eta orduan amaordekoa sutara erori, eta hil egin zen" esatea edo beste honako hau esatea "Eta orduan amaordekoari bultza egin zioten, garraisi bizian ari zela, sutara bota zuten eta ileak eta gonak erre zitzaizkion eta berehala zuzi baten gisa piztu zen".

Norberaren eskuetan dago bata ala bestea aukeratzea, baina argi dagoena zera da: ankerkeria xehetasun handirik gabe kontatzeak oso eragin txikia izango duela umeengan. Nahi izanez gero, hainbat herri-ipuina edota fantasiako ipuinetako ezau-garri diren hainbat eszena ken edo egoki daitezke. Baina, ez al du umeak bizitzan zehar topo egiten zenbaitetan egoera bel-durgarriekin?

Bruno Bettelheim-ek "Psicoanálisis de los cuentos de hadas" liburuan dioen bezala, ipuin horiek oso interesgarriak dira, batetik, zenbait egoera zail azaleratzeko (bizitzeko baliabiderik ez duen familia, zenbait froga pasatu behar dituen gaztea, etab....), eta, bestetik, istorioko heroia edo protagonista —umeek bat egiten dute honekin— izango delako den-dena kon-ponduko duena.

Azpinarratzekoa zera da: fantasiako ipuinek, umeak ulertzeko moduko era sinple batean aurkezten dituztela gizakion arazo nagusiak: norberaren nortasunaren borroka, haurtzaroko garaia gaindituz adolezentea gurasoekin lotuz, heriotza, etab.

✓ **Hizkera ahozko kontaeraren oinarria**

Ahozko kontaeran oso aintzat hartu beharreko beste alderdi bat, oinarrian duen hizkerarena da. Hizkera baitu ipuinak garraibide nagusia, arreta handiz zaindu behar da, zuzena, aberatsa eta argia izan dadin.

Umeek, jeneralean, pozik entzuten dute ipuin berbera behin eta berriz, eta, azkenerako, buruz ikasten dute. Horregatik, egoki adierazi behar ditugu hiztegia eta esaldiak; inolako hutsegite eta okerrik gabekoak, pixkanaka ikasten ari den hizkuntza hobetzen eta aberasten laguntzeko.

Garrantzitsua da, beraz, kontalariak, kontatu aurretik ipuina ondo prestatzea, eta baldin badaki sarritan hizkuntz akatsak egiten dituela edo hitz gutxiko pertsona dela, komeni da behin eta berriro entsaiatzea zeharo buruz ikasi gabe ere erraz samar errepikatzeak gai izan dadin, kontaketa erdian "moztuta" ez geratzeko.

✓ **Herri-ipuina**

Ipuinek, herrialde bakoitzeko herri-ipuinek bereziki, lurralde hartako jendearen pentsakera, izakera, tradizio eta hainbat eza-gutza transmititzen dituzte. Ez da alferrik herri-ipuina urte luzeetako ondorio.

Aspaldiko arbasoek usadioetan, sinesmen eta mitoetan oinarrituz, aditzera ematen zizkieten beren istorioak seme-alabei, bilobei, eta, horrela, belaunaldiz belaunaldi orraztuz eta apainduz joan dira, guregana iritsi arte.

Ipuin asko, herrialde askotan gorde dira, oinarri bera dutenak, hain zuzen ere, baina herri bakoitzak egokitu ditu pertsonaiak eta egoerak, nork bere izakera eta gauzak egiteko moduaren arabera.

Herri-ipuina kontatzerakoan, munduaren interpretazio jakin bat ari gara transmititzen, umore-mota jakin bat, nolabaiteko magia. Hau da, herri bakoitzaren sustrai sakon eta sinisteak ari gara transmititzen, nolabait.

1.2. Ipuina umearen hizkuntz garapenean daukan eragina

Ipuina da hizkuntza bere osotasunean eskuratzen laguntzen duen baliabide gutxietako bat. Horregatik, gaur egun xede biko-tza du ipuina: hezitzailea eta soziologikoa.

Lehenengo eta behin, hezitzailea da, zeren umeak ipuina entzuten dituen adina da berak bere hizkuntza eraikitzen duen garaia, edota, bestela, betirako egoki menperatzeko aukera galtzen dueneko.

Azkenaldi honetan hizkuntzaren sorreraren eta garapenean inguruan egin diren azterketa guztiek erakusten dute pertsona nagusien artean dauden aldeak sorrera —ezagutza lexiko eta sintaktikoari dagokionez— heldu bakoitzak bere ingurune hur-bilean izan zuen hizkuntz kalitatearen arabera dela, eta, bereziki, 6 urte bitartean izan zuen ahozko eskakizun-mailaren arabera. Hau da, hain zuzen ere, umearen hizkuntzaren arreta pizten zaion unea.

Horra, bada, ipuinaren balore hezitzailearen garrantzia ipuina, entzuteko modu jakin batetik abiatuta, adierazpen osoa mar-txan jartzen baitu, eta, ondorioz, umeak ulertu, sentitu eta irudikatzen duenaren osotasuna jasotzen du. Ipuina txunditu, hunkitu edo ametsa eragiten dioten hitz eta esakerak bereganatuz, berez erabiltzera bultzatzen du umea.

Umeari hizkuntzak duen indarra erakustean, ipuinaren hizkuntz bitarteko berak erabiltzera bultzatzen du, ondorio berdinak lortzeko asmotan. Horrela, pixkanaka, egoera guztiak menderatzera iristen da. Era horretan ahoz jasotako adierazpide berrien erabilera kontzientea sortzen da umearengan. Ohitu egingo da ia konturatu gabe. Hazten denean, hitzaren indarra berekin izango du haurrak.

1.3. Ipuinaren balore hezitzailea

✓ Leku-denborazko testuinguru jakin bat eskaintzea

Kontaktak berak umeari leku-denborazko testuinguru jakin bat eskaintzen dio, eta era horretan ikasten du jardueraren fase desberdinak bere lekuan jartzen eta hauen garapen kronologikoari jarraitzen.

Abenturaren gertakizunak hurrenkera jakin baten arabera gertatzen dira —ez nolana—, eta honek lagundu egiten du lokailuak egoki erabiltzen. Eta ez hizkuntzan bakarrik, ondorengo gainontzeko ezagutzetan ere menderatu beharko ditu tokiaren eta denboraren nozioak.

Zehatz ikasteko, umeak eskolaratzen den unetik bertatik jakin behar du gertakizunak dagokien lekuan jartzen, fenomeno eta gertakizun guztiak hasiera eta bukaera dituen marko batean aurkezten. Ipuinak erakutsiko dio bi parametro hauen arabera lekutzen. Ez du honek zerikusi handirik publizitateko iragarki sintetikoekin, baina bai arrazonomendu logikoaren muinarekin.

Beraz, maiz samar ipuinak entzuteak, hizkuntzaz gain, buru-ariketarik onena eskaintzen dio umeari. Benetako ipuin batean, umearen jakinmina sortzen du ikusteak, ezer ez dela betirako, dena berreraiki eta kateatu egiten dela, hain gogoko dituen marrazki bizidun gehienetan gertatzen den bezala. Azkeneko hauetan, halere, umeak gehiago lantzen du umorea hizkuntza bera baino.

✓ Eskolako etorkizunerako prestatzea

Jakina da, noski, estimulazio on batek, nahiz ahozkoak nahiz adimenekoak, eskolako etorkizunerako ere prestatzen duela. Baina, maila sozioprofesionalean, hizkuntza menderatzea hain bihurtu da garrantzitsu, hizkuntz konplexuarekiko lehen hasia den ipuinarekiko interesa areagotu egin baita gaur egun. Hain zuzen ere, mendebalde osoan, eta Europan bereziki, jarduera sektore eta maila sozioprofesional ezberdinen araberrako birsailkapen esanguratsuak ari dira gertatzen, komunikazioarekin loturiko lanbide guztiak barne.

Hori dela eta, hizkuntza menderatzeak garrantzi handia hartu du, eta, nahiz eta lorpen hori unibertsitateak zuzenean homologatu ez, hizkuntzaren erabilera sotil eta zehatza arrakasta-faktore da, eta lanbidean aurrera egiteko balio dezake. Esaterako, mediku-gaitasun berdina izanda, pediatra hobe izango da gurasoekin solasean eta umei hitz egiten dakiena. Hizkuntza garaiz menderatzeak, beraz, etorkizun profesionalaren aukerak zabaltzea dakar eta abantaila osagarri bat etorkizuneko edozein jarduerarako. Ipuina egoki baliatzeak, beraz, lorpen horiek guztiak bideratzen ditu.

Baina ez da beti erraza izaten. Zeren normalean ipuinen balore hezitzailea onartzen bada ere, ipuinik egokiena kontatzea, umea adinean aurrera doan neurrian, batez ere, gero eta zailago gertatzen da.

Hasteko, denbora behar da umearentzat berria edota ia ezezaguna duen istorio bat bilatzeko, zeren gero eta gutxiago gustatuko baitzaio ipuinak errepikatzea.

Ondoren, aukeratu den istorioak atxikimendu afektiboa lortu behar du, eta hau ez da osoa izango, berezkoa ez bada. Eta atxikimendu hau lortzen da, batez ere, kontatzen den istorioa umearen berehalako bizipen batekin edota momentuko jakin-minarekin lotuta baldin badago. Ipuinarekiko interesa zirkustantzien mendean dago orain.

Horretarako egokiena, noski, umearentzako propio asmatutako ipuin bat litzateke. Eta honek hurrengo puntura garamatza.

✓ Bat-bateko ipuinaren garrantzia:

Guraso eta hezitzaile askok eman diote lehentasuna bat-bateko ipuinari. Bat-batekotasun horrek fantasia pixka bat eskatzen du, baina ez irudimen izugarria, zeren askotan zatikakoa izaten baita.

Hau da, denok gordetzen dugu buruan, nahiko ilunean bada ere, abenturen biltegi zaharra. Ganbaran zokoratutako argiontzia zahar bat berraurkitzeak ematen digun plazer berarekin kentzen diogu hautsa ipuin bati edo "montajea" berritzen, eta mantentzen dugu bai pasarte bat bai gai osoa, honen oroitzapena egoera jakin batek eskatuta. Eta oroimen hau bat-batean erabiliko dugu ipuinaren une egokian.

Kontatutako istorioa umeak bizi berri duenarekin bat datorrenean gertatzen da une egokia, esperimentatu edo ikasi berri duenarekin bat datorrenean. Orduan, kontalariak eta umeak bat hartzen dute. Elkarrekin egiten dute amets, eta baten asmenak bestearen irudimena zirikatzen du. Sortu da lotura, eta hizkuntza, konplexua bada ere, erraz isurtzen da. Era hone-tan, ipuinak eraginkortasun osoa lortzen du, nahiz eta laburra den. Zeren, bestalde, bat-bateko ipuina ez baita luzea izaten normalean, eta oso gustuko izaten dute gaur egungo umeek.

Hobe da umeak ipuina kontatzen jarraitzeko edo beste istorio bat kontatzeko eskatzea, aho-zabalka ikustea baino.

✓ Bat-bateko ipuina nola asmatu

Kontaketa on batek elkarrizketa ordeza dezake, eta, sarritan, errazago jarraitzen da. Entzutearen kalitatea, bestalde, bikaina izan daiteke haurra geldirik egonda. Badaude gezurrezko geldi egoteak, eta entzulearen jolasa sakona izan daiteke, ikusten ez bada ere. Begirada erabat galdua duen haurra istorioan murgildurik egon daiteke. Aurpegia mugitzeak, ordea, baliteke berehala ahaztuko den momentuko zirrara besterik ez adieraztea.

Nolanahi ere, handiagoa da elkarrizketaren bidez lortzen den esku-hartzea, haurrak istorioan parte-hartzea eragitera arte. Horrelakoetan, isiltzeko esan ordeza, onartu eta errepika dezagun geure egin arte haurrak gehitu duen esaldia edo egin duen oharra. Har dezagun berehala aukera. Haurra honela gure laguntzaile bihur baitaiteke. Inoiz irudimenak huts egiten badigu, bere gain utz dezakegu jarraipena: "Eta zer gertatu zela uste duzu?". Horrela, ez gara gu izango istorioa azaltzen dugunak. Haurrak berak egiten du hori, bizi egiten baitu.

Baina kontuz honekin, txalupa noraezean egon daiteke laister. Berehala eskuratu behar dugu gidaritza, umeak normalki ez baitu luzaroan mantentzen norabidea. Ez da oraindik kontaktaren leku-denborazko kokagunea berak bakarrik mantentzeko gai. Hau da helduen nagusitasuna adierazten duen gaietako bat, haurra traketsa baita, zazpi urtera bitartean bereziki, oinarriko erreferentziak eraikitzen.

✓ Bat-bateko ipuinaren estrategia:

a) Ohar orokorrak:

Haseratik irudia egoki kokatzea komeni da, ondoren aldaketak adieraziz. Ez pentsa, ordea, ipuina bideko liburua denik. Halere, zenbat eta gertakari gehiago egon, are ziurrago izan behar dugu, ez dela galtzen, mugimendua ongi jarraitzen duela.

Horretarako ezinbestekoa da istorioak —hau da gertatzen denak, protagonistei gertatzen zaienak— arreta mantentzea. Haurren arreta mantendu nahi bada, etengabe aldaketak egin beharko dira. Gure hitzek arreta aldakorra eta aniztua eragin beharko dute, bestela arreta gainbehera joango da. Ametsetik harridurara, jakinminera, ikarara eramane behar ditugu, baina larritasunera iristeraino luzatu gabe; aitzitik, lehenago iritsi behar du pozak, heroia-aren garaipenagatik lasaituak. Garaipenak, haatik, ez du askorik iraungo, berehala beste abentura batean murgilduko da eta.

Ari da, beraz, jarraitu beharreko eredia azaltzen: tokiak eta pertsonaiak kokatzen dituen eskematik abiatuta, kontaktak ez du lineala izan behar; kontalariak erbiaren moduan sigi-sagan joan behar du, haurrak segi diezaion, ehiztari nekazetara baill-tzan. Zenbat eta egongaitzagoa den entzulea, orduan eta arinagoak izango dira kontaktaren sekuentziak. Haur lasai batekin eszena hobetzeko aukera izango dugu, haurraren sentimenean nahi dugun eragina areagotuz, eta horrela bere irudimena eta hiztegia aberasteko material gehiago emango diogu.

Izan ere, mugimendua beharrezko izanik ere, ez da gehiegi azkartu behar. Gertakari berria bereganatzeko astia eman behar zaio haurrari, baina arreta galtzeraino entretenitu gabe. Kontalariak bere egin behar ditu Shakespeare-ren hitzak: "Always the unexpected happens" (ustegabekoa beti gertatzen da).

Egoera berri bat menderatu bezain laister, eta ezagunegia gertatu aurretik, abentura urrutirago eramango duen ezusteko berria eskaini behar da, etorkizunari buruzko zalantza piztuko duena: nola bukatuko ote da istorioa?

Horrela, bada, ipuin bat eraikitzeke hiru zati nagusi bereiztuko ditugu:

- hasiera-hasieratik ongi zehaztutako ingurua.
- pertsonaien ahalik eta aukera zehatzena.
- hasieratik ezagutu behar den amaiera. Bukaera, hau da, kontalariaren irudimena bereziki suspertuko duena.

Horretaz gain, ipuinaren garapena gelditzen da, horretarako ondoren azalduko diren metodo batzuk ezagutzea egoki delarik. Hasteko, esan dezagun bitartekoak begibistakoak izan daitezkeela, haurrentzat are dibertigarriagoa baita nabaritzen ditue-nean. Bat egiten dute, eta, gainera, eragina sortzen. Ez dago horretan kontraesanik, helduekin gertatuko litzatekeen bezala, haurraren bi gozamen biltzen baitira, biak ere aurkikuntzarekin lotuta.

b) Gaiaren hautaketa:

Bat-bateko ipuinaren gaia haurraren interesei ez ezik, bere historia txiki berriari ere egokitu behar zaio. Gurasoek eta irakasleek askotan apropos erabiltzen dute ipuina heziketara eta atseginera zuzenduta. Adibidez, jan nahi ez duen umeari jaten zuelako hazi eta ederra egiten zen neskaren ipuina kontatzen zaio afal aurretik.

Ez dezagun ahaztu portaera gidatzeko erabili nahi bada ipuina, konplize hartu behar dugula haurra, zeharkako sermoien entzule baino gehiago. Kontalariak haurra mindu gabe entzuna izateko, azaltzen edo iradokitzen duenak ematen dion agintez baliatuko da, eta ez inposaketaz.

Ez luke zorte handirik horrela jokatzeko duen kontalariak. Gaskuñan, esate baterako, neska batek oker bat egin zuen bakoitzean, txikiena bazen ere, bere izeba zorrotzak Astiouzie printzesaren eta Patencia des Angious-en abentura berri bat kontatzen zion. Baina neska konturatu zenean beti okerrak aurpegiratzen zizkiotela, antzarrak ferratzera bidali zuen izeba bedeinkatua. Eta ongi egin zuen, izan ere, kontalaria ez da haurraren errudun bizipenetaz baliatu behar moralizatzeko, aitzitik, bizipen mingarrien eztiagarri erabil dezake ipuina.

d) Abentura:

Bidaia batetik bereizten duen etengabeko suspertzea da. Berau lortzeko:

- Irteerarik gabeko atakara eramaten da, heroiak guztia jokatzera behartuz.
- Pertsonaia nagusiak ezkutatu egiten dira. Momentu batean, aintzakotzat hartzen ez den pertsonaia batek (gazteegia, ahulegia, ordu arte oso azkarra ez omen zena, ...) irteera zuhurra aurkitzen du, irabaztera eramaten duen irteera, noski.
- Amaiera azkarra ematen zaio, ahal bada haurrari begi-keinu baten moduan, honek ez baitu gelditu behar pertsonaien egoerak sortzen dion estuasunarekin.

Haurrari estuasuna sortzera heldu gabe bada ere, ez zaio beldurrik izan behar haurraren beldur pixka bat eragiteari, ezta "txarra"ren kontrako amorrua pizteari ere. Bizitzea erreakzionatzea da. Eta haurrak ikasi egin behar du erreakzionatzen. Entzute pasiboa baino hobea da Txano Gorritxo entzuten ari zen neska harena: otsoa amonaren aurka salto egitera doan unean, salto egin zuen neskak aitonaren belaunetatik, sutondoan etzanda zegoen bere txakurrarengana joan, lepotik helduta tarraka eraman zuen ateraino; atea ireki eta honela xaxatu zuen: "Tira, Sajo! Zoaz otsoaren bila! Akabatu ezazu! Azkar!". Gero guztiz lasaituta itzuli zen erabat harrিতuta zegoen aitonarengana, bere txakur handia zaunkaka ari zelako pozik gure neska.

Abenturak berekin ditu arriskuak eta nobedadeak. Garatu ahala azaltzen dira pertsonaiak, eta haurrak bakoitzarenganako lehentasunak finkatzen ditu.

Horregatik, ugaritu egin behar dira gertakari-adierazleak, mugituak izateaz gain, heroiarentzako proba eta arriskuz josiak egon direnak. Adi-adi erreparatu behar zaie haurraren erreakzioei, horien bidez gure ipuinaren eragina antzemateko, eta haurrak gertakarien segida abenturaren haria jarraitzen duela ziurtatzeko. Baliteke gure entzuleak zirrara sakona sentitu eta ez adieraztea, baina, normalean, ageriko sentipen argiak izango ditu. Irudikatu dugun ipuina beldurgarriegia atera bazaigu, hurrengo atalean zuzendu egingo dugu istorioa; horrela, ordaina hartu eta ipuina gogoratzeko aukera izango dugu. Eta hauxe da haurrak espero duena. Kontalari zahar batek zioen bezala, "hurrengo orria da dena aldatzen duena".

e) Misterio-giroa:

Hori lortzeko egin beharrekoak:

- Deskribapenak girotu.
- Ezohiko soinuak erabili.

Maitagarriak edo sorginak erabiltzen baditugu —gehiegikeriarik gabe—, sinesgarritasuna indartu behar da, nolabaiteko logika azalduz euren jokabidean.

Maitagarriak eta aztiak dira ipuinean gertatzen diren eraldatzeak eta beste bat-bateko aldaketak eragiten dituztenak. Ia beti aurkitzen da heroia, magia bidez ez bada, gainditu ezin dezakeen arazoren baten aurrean. Halere, haurrak hainbeste informazio duen garai honetan kontuz ibili behar izaten da, esaterako, soluzio miragarri hori aspaldi batean gertatu zela azpimarratzean.

Azkenik, bada egin ez daitekeen eraldaketarik ere: erratz bat neska eder bihurtuko da eta ipotx itsusia gazte zoragarri, etabar, baina ez da inoiz emango sexu-aldaketarik.

Ez da misterioa gehiegi erabili behar, eta ukitu komikoz jantzi behar da ipuina, hauek eraman baitezakete, magiak bezalaxe, haurra lilurara.

f) Komikotasuna:

Honetarako hartu behar dira tarte labur batzuk, haurrari zuzendutako keinuak bailiran. Honakoetatik atera daitezke:

- Ustekabe bihurri batetik: "Jaurtigaiak sorgin zahar eta zekenaren sudur konkorduna jo zuen".
- Gertakari ezinezko batetik: "Andere, esan zion hildakoari, zoaz hemendik!".
- Deabrutxo bat esnatzeagatik edo beste edozein nahigabeko ekintzagatik gaizkileari gertatzen zaionetik.
- Hutsegite edo nahaste handi batetik: "Bi itsu elefante bat ukitzen ari dira. Hortzak ukitzen dizkionak esaten du: "Elefanteak adar baten itxura du". "Baita zera ere", erantzuten dio tronpa haztatu duenak, "soka lodi bat dirudi".
- Protagonistetako baten kirtenkeriagatik, batez ere indartsuena, altuena, mardulena eta gaiztoena bada.

g) Hizkera:

Ez dugu hiztegi zehatza eta osoa erabiltzeko beldur izan behar, baldin eta haurrak galdetu bezain laister azaltzen badiogu, edo pasadizo bera beste era batean bereahala edo kontaktetan zehar, kontaktzen badiogu, pixka bat ulermen-arazoak dituztenei irakasteko egin ohi den bezalatsu.

Eta, azkenik, ipuina bukatu eta gero eta edozein elkarriketan zehar, haurrak, hitz berriok erabil ditzan aukera aurkitu behar dugu.

Zertara datoz hizkerarekin horren kontuz ibili beharra? Bere ardurapean ikasleak dituzten guztiek ongi dakite arrakastaren maila hizkuntzaren araberakoa dela, bi parametro nagusiokin: jasotako hizkera —ezagutzen duten esakera eta hitzen kopurua— eta esakera eta hitz horien zehaztasuna eta zuzentasuna. Horien baitan dago azalpenaren argitasuna ez ezik, baita pentsamentuaren barneratu eta konbentzitzeko gaitasuna ere. Menperatze bikoitz hau oso adin txikian finkatzen da: ipuinean horren indartsu azaldu diren hitzak bereganatu nahia eta, zehaztasunerako ohitura, azalpenean zehar erabili izanari esker. Aitzitik, zehaztasunik eza onartzen zaion haurra gutxi gorabehera batean aritzen ohitzen da, geroan nekez zuzenduko dena. Baina gaur egun ez da aski gutxi gorabehera aritzea, ez azterketetan, ezta bizitza profesionalean ere.

Bat-bateko ipuinak, irakurritakoak baino areago, ereduaren atsegina eskaintzen dio haurrari. Eta gainera, zuzentasun egokitu eskaintzen dio, kontalariak haurrari edo haur-taldeari komeni zaion neurrira moldatzen baitu hizkera. Eredu on bat ematea lortzen da horrela, hau da, gorde eta imitatzen dena, ipuinak bere duen zirrara afektiboaz erabat baliatzen baita haurra, mirespen- eta emozio-iturri dituen fantasiaren eta irudimenaren zirrarez.

✓ Ahozko ipuina ipuin idatzirako abiapuntu egokia

Ipuina da haurra irakurtzera, hau da, ipuin idatzira bideratzeko lehen eta garrantzi handiko bidea. Txikitatik ipuinak entzuzterazaletu denak liburuek zer dioten ulertzen interes biziagoa izango du, liburuetatik hartu baitituzte bai amak eta bai aitak ipuinik gehienak (edota horiei esker gogoratzen dituzte txikitan entzundakoak).

Ahozko narratiba haurrak irakurtzen ez dakien eta, ondorioz, liburu idatzirako sarbiderik ez duen adinean hartzen da. Kontatutako istorio horiekin nolako atsegina eta irrika, halako interesa, seguru asko, literatura edo idatzizko ipuinetarako.

2. Ipuinen egitura eta kontaketarako euskarriak

2.1. Ipuinen egitura: haur txikien ipuinetan

Sara C. Bryant-en esanean, ondorengo hiru elementuk osatuko lukete:

Gertakizunen bizkortasuna:

Istorioaren pasarte bakoitza gertakizun bat da, uneoro gertatzen da zerbait. Ez dago astirik azalpen edota deskribapenetarako. Istorioan ez da adierazten protagonistek zer pentsatzen edota sentitzen duten, zer egiten duten, baizik. Kontaerako gertakizunak elkarri loturik daude jarraitzeko asmorik gabe, eta ez dago eragozpenik pentsamenduan atzeraka eginarazten denik.

Misterioz beteriko apaltasuna:

Gertakizun bakoitzak kuadro oso bat eskaintzen dio irudimenari osagai sinpleenez osatua, gainera. Osagai horiek ezagunak dira umearentzat edo beretzako ezagunak direnen antzekoak. Berak egunero ikusi eta entzuten dituen gauzak dira, baina, era berean, atseginago eta erakargarriago egiten dituen nolabaiteko misterioz jantziak. Hiru hartzen ipuinean, esate baterako, eguneroko objektuak azaltzen zaizkigu behin eta berriro: etxe bat, aulkiak, oheak, platerak, baina horiek, hiru hartzen platerak, oheak, aulkiak eta etxea dira. Aldagai soil bat eranstea nahikoa izan da objektu horien itxura aldatzeko eta eszenari ñabardura zoragarri bat emateko.

Txerri kaskagorra erosi zuen amona ere biribil baten erdian dago, eta objektu ezagunez inguratutik: makila, ura, sua eta gainontzekoa, baina objektu horiek normalean bizirik ez badute ere, hemen jardueran parte aktiboa hartzen dute eta beren nahia adierazteko gai dira, amonak egin zezakeen bezala; eta horretan datza ipuinaren magia.

Antzeko zerbait gertatzen da hiru txerrien ipuinean. Istorioan zehar azaltzen diren irudiak oso garbiak dira umeentzat nahiz eta ezezagunak izan. Eta hori gertatzen da protagonistak ez direlako pertsonak animaliak baizik. Eta hau da beste ezaugarrietako bat.

Errepikapena:

Hirugarren ezaugarria errepikapen-multzo jakin bat izatea da. Ezaugarri hau nabariagoa da ipuinari, errepikatzen den bakoitzean, objektu berriren bat eransten zaionean.

Ez da zaila ulertzen zergatik diren hain gustukoak umeentzat ezaugarri horiek. Lehenengoa —jardueraren bizkortasuna— "benetako" ipuin guztietan dago. Umearen hobespenak gauza bakarra adierazten du: bere berezko sena askoz ere gehiago balio diola gerora kultura artifiziala eskuratzen duenean sortuko zaion gustuak baino.

Bigarren ezaugarria —gauza ezagunak— berezko sena besterik ez da. Normalean irudimenak ezin du mundu berririk sortu gauza ezagunen bidez ez bada. Irudi arraroak, edota ezezagunak ahuldu egiten dute umearen arreta eta nahastu egiten dute; aldiz, irudi ezagunek fantasiaren arlora eramanda, arreta piztu egiten diote eta arima asebetetzen.

Hirugarren ezaugarriari dagokionez, aztertu beharreko gauza da zenbateraino errepikapenaren xarmak eranstean dioen zer-bait aurreko bi ezaugarriei. Aldagai asko dago aztertzen zailak direnak. Hasteko, errepikapenak poztu egiten du haurra, horrek laguntzen diolako istorioa erabat ulertzen. Errepikapen bakoitzak alderdi ezaguna azpimarratzen du eta arreta mantentzen erraztu.

Ana Pelegrin-ek, berriz, Sanchez Romeralo-ri jarraiki, ahozko literaturan honako oinarritzko egitura hauek ikusten ditu:

Biko egiturak:

Biko mugimenduan oinarrituriko egiturak dira; arlo horietan sartuko genituzke galdera-erantzunezko egiturak ere, eta errepikazko egiturak ere bai (errepika daitezke hitzak, errepika daiteke lerro bat, errepika daiteke testu osoa).

Pilatzeak:

Pilatzeak edo metaketan oinarrituak; hori zenbatzaileak erabiliz gertatzen da batzuetan, hala aurrera (goraka), nola atzera (beheraka); beste batzuetan, gehitze-prozedura erabiltzen da, hasierakoari eduki berriak erantsiz; beste zenbaitetan egitura kateatuak sortzen dira, maila bakoitza hurrengoaren oinarri delarik ("Akerra ikusi dugu" bezalako testuen prozedura).

Batekoak eta bestekoak nahasian:

2.2. Kontaketarako euskarriak: ahokoa, liburua. Elkarren arteko aldeak eta ezberdintasunak

Umeak maite dituzten guztiak ezagutzen dute dagoen aldea —dio Sara Bryant-ek—. Ia ume guztiak nahiago dute ipuina kontatzea irakurtzea baino. Areago oraindik, deklamazio batek edota errepresentazio batek ez du umearentzat ipuinak kontatzen dakien baten xarma.

Umeek emango lituzkete hobespen honen arrazoi on batzuk.

Alde nagusia da kontalaria librea dela bere interpretazioan; irakurlea, aldiz, loturik dago. Kontalaria ez du ezerk mugatzen, altxatu, eseri, umeari begiratu, istorioari jarraitu edo egokitu, eskuz baliatu, begiez, ahotsaz bere adierazpenari hobeto laguntzeko. Areago, izpiritua libre du zeren hitzak behartu gabe sortzen baitira, segun eta gaia zenbateraino bere egin duen.

Horretaz gain, nortasunaren xarma dago. Kontalaria ipuinean sartu eta kontatzen duenean, umeak istorioari probetxua ateratzen dio, eta aberastu egiten da kontalariari dion estimarengatik; umearen eta kontalariaren atsegina bat datoz.

Beraz, edozein istorio dibertigarri, mila aldiz dibertigarriagoa izango da kontalari bizi baten ahotan liburu baten orrietan baino.

Edonork du halako jakinmin hereditario bat aldamenekoaren esperientziarekiko. Beste pertsona batek egindakoa edo sentitutakoa badu guretzat halako erakarpen berezia. Gizarteko jenderik finenak ere arreta handiagok entzungo du esploratzaile baten kontaketa espedizio bereko zientzilaria hiltzaldia baino. Han egon zaretela irudituko zaizue!

Besteren esperientzia pertsonalak ezagutu nahia oso bere du gizakiak. Desio hori askoz ere finkoagoa da umeengan. Umeak atsegin hartzen du aita eta amak umetan zer egiten zuten kontatzen zaienean, edota amonari halako batean zer gertatu zitzaion. Arreta ez du istorio pertsonaletara mugatzen, eta beste eremu batzuetara zabaltzen du bat-bateko esaldiak direnean.

Umearen arreta mantentzeko erraztasunak nahikoa arrazoi izan behar du gurasoentzat ipuinak kontatzeko irakurri ordez. Gure begiek umearekin egiten dute topo, haren adierazpena gurearen erantzuna da, elkarren arteko hartueman berehalakoa da.

Bai gurasoek baliatzeko eta bai umearen gozamenerako esan dezakegu ipuinak kontatzeko artea irakurtzekoa baino jasoa-goia dela.

3. Ipuinen kontaketa kontalariaren ikuspegitik

3.1. Ipuinak kontatzea abentura zoragarria da:

Ipuinak kontatzea zein abentura zoragarria den adierazteko hara zer-nolako deskribapena egin digun ipuin-kontalari ezagun batek:

"Badoa eguzkia arrapaladan, egun argiko erritmoaz nekaturik. Emeki-emeki, astiro-astiro gaua dator, gau iluna erritmo pausatuz, kontalariaren mihiak ipuin bat kontatzeko une egokia.

Argiaren eta ilunaren arteko mugan, itzalean, misterioa eta sorpresapean, magiaren eskuetan bilduta dator gaua. Kandelaren memoria luzea lagun liturgi zeremonia handietan bezala, ipuinak entzun daitezzen, behin eta berriz. Gure barneko kartzeletan, preso ditugun fantasmen pausuak, soinuak eta algarak entzun daitezzen, bueltaka, bueltaka eta bueltaka, hipnotizagarri.

Kontalariaren hitz eta hotsaren xarmen lilurapean, emozioa eta erritmoaren bidez, aho zabalik daude haurrak ametsaren bi leihoak zabalik, irrifarrez. Irudimenaren zutabe trinkoetan, irudi berri eta zaharrak aurkituz, fantasiaren sustrai gotorretan. Elementu arruntenak ere bizidun bihurturik, hain bizidun ze gelako lanpara ere bizirik dagoela iruditzen baitzaie, ipuinetako objektu magikoak bezala, behin eta berriz agertuz eta desagertuz.

Gaua da une egokia, ez lo egiteko, amets egiteko baizik. Emeki-emeki, astiro-astiro ikertu eta ikertu gabeko mundu berrietan barneratzeko, bidaiari hasteko, mundu berriak aurkitzeko, mundu berriez gozatzeko. Agian, ispilu magiko bat proiektatzen eta sinbolizatzen laguntzeko".

Baina barne-begiradaren bitartez orrialdeen ahotsa jasoz, ipuinak kontatzeak prestaketa behar du eta lanketa, gauza guztiek bezala.

3.2. Ipuinak kontatzerakoan gogoan eduki beharreko puntuak:

* Ipuina ondo aukeratu

Kontalariak, hasteko, ondo aukeratu beharko du kontatu behar duen ipuina. Ipuin-kontaketa komunikazio-jarduera denez, ondo aukeratzen jakin beharko du kontalariak ipuina, beronen emozioa dastatu ahal izateko. Erabat identifikaturik egon behar du ipuinarekin bere inplikazio animikoa osoa izan dadin eta entzuten ari den haurrari berau transmitituko badio. Zeren ipuina, ez ahaztu, afektibitatearen lokarriaz zein emozioaren kartoiak biltzen jakin behar dugun oparia baita, Lewis Carroll-ek dioen bezala, maitasunezko oparia; gusto estetikoez gain, haurraren maila ebolutiboa gogoan daukana.

Kontalari bakoitzak bere larrua eta jantzia daukan bezala, bere bizitzako ipuina ere gorputzean sartuta dauka, pertsonaia komikoez, lirikoez edo dramatikoez osatua. Ipuin hau egoki adierazten jakin beharko du kontatu nahi badu, behinik behin, eta komunikatu. Ipuinaren berezko erritmoa eta ezaugarri animikoa kontuan hartuz, ahotsaren kromatismoari erreparatuz, dagokion doinuera erabiliz. Bestela esanda, ipuin bakoitzari dagokion partitura interpretatzen jakin beharko du kontalariak.

Era honetan, komunikazio-zubi berria eraikitzen joango da kontalariaren eta haurraren artean, eguneroko errealitate prosaikoaz bestaldeko ertzeraz igarotzen lagunduko diona; mitoen esentzia arketipikoak gordetzen diren inkonszientearen kobara, jainkosak, jainuak, lamiak, ipotxak eta gainontzeko indar natural guztiak bizi diren kobara.

Ipuinek beste denbora baten atea irekitzen dute; denborarik gabeko denbora, denbora gelditua. Eta denbora honetan bizi direnak, ez dira inoiz zahartzen eta ez dira inoiz hiltzen, ipuinetako pertsonaiak bezala.

* **Lekua**

Nahiz eta ipuinaren partitura nolakoa den jakin eta ipuinaren trama kontalariak bereganatua eduki, ez litzateke nahikoa izango baldin eta ipuina espazio jakin batean lekutu eta mugatuko ez bagenu, zeren ipuinak bere unea behar baitu, entzuna izan dadin, eta bere giroa. Ipuin-kontaketa zeremonia osoa baita liturgia eta erritual propioarekin.

Gela ilunpean dago, gehiago ikusi eta entzun ahal izateko. Kontalariak eta haurrak aurrez aurre eserita elkarrengandik gertu. Haurrek badakite ipuinaren ordua dela.

Entzuteko eremua sortu dugu, eta haurrek badakite, objektu magikoek hitz egingo dietela, inon eta inoiz ez bezala, behin batean bezala, mago, printze, printzesa, otso ala deabru. Eta beren burua hobeto ezagutzen lagunduko diete; bizitza, ipuin handi bat baita Andersen-ek dioen bezala.

Ipuina bukatu ahala lotara. Emankizuna bukatu da. Bai kontalariak, bai haurrek badakite, jadanik, zein ardatzetan mugituko diren, ipuinaren uneko formatoa bereganatuko dute eta erabiltzen hasiko dira, automatizazioa lortu arte, konfiantza eta ordena berria.

Ipuin bat kontatzea zeremonia oso bat baita, liturgia eta errito propioa eskatzen dituen, eguneroko bizitzak bezala.

* **Isiltasuna**

Garrantzitsua da kontaketa hasi aurretik umea isilik eta ipuinaren zain egotea. Behin ipuina hasiz gero, ez eten sekula sortu den xarma, umea keinuka hasi edota distraitzen dela ikusten bada ere. Umeak behar bezala entzuten ez badu, kontalariaren errua izango da, noski. Istorioa polita bada eta ondo kontatzen bada, umeak entzun egingo du.

* **Kontatzeko era**

Apaltasuna: Apaltasuna da bai kontatzeko estiloari, bai adierazpideari egokitu beharreko ezaugarria. Estiloa egoteko modu edota enfasi berezirik gabea behar du izan. Barregarria da ahotsa itxuraldatzea eta umeari era txoroan hitz egitea. Asmo onez egiten da, baina ez du horregatik kalte txikiagoa egiten. Ama batek esan zuen bezala behin oso kezkatu: "izan naturala" esatea erraza zela, baina benetan izatea oso zaila.

Garbi ageri da apaltasunaren eta hizkuntza argiaren garrantzia; ezin daiteke inor erabat goza ipuinaz erabiltzen diren hitzak ezezagunak baldin bazaizkio.

Mugimendu logikoa: Mugimendu logikoa garrantzi handiko osagaia da jardueran.

Ipuina, dramaren antzera, interesatzeko eginda dago, eta gero eta gehiago interesatzeko ere, bere jarduera etengabea behar du izan, eta gero eta bizkorragoa, azkar garatu eta eraginkorra izan.

Komentarioek-eta hondatu egiten dute erabat mugimendu hori. Gertakizunak, elkarren segidan kontatu behar dira, bakoitza bere lekuan, istorioa argitzeko ez bada, ez da ez esplikaziorik eta ez deskribapenik egin behar. Desesperatzeko ez dago ezer idi-parea bezain aurkezpen motela baino; ez dago hori baino ezer hoberik arreta galtzeko.

Batzuetan, halere, ohar txiki batek, erantsi diezaioke grazia kontaketa. Baina, jeneralean, ahalik eta gutxien erabili behar dira.

Bukaerako azalpen eta irakaspenei buruz, berriz, askotan egiten diogu galdera gure buruari: zertarako balio dute? Definitziorik egokiena ume batek eman zigun, asmo ona zuten ipuin horiei buruz galdetu genionean. "Ipuinak politikak dira, baina beti izaten dute bukaeran zati aspergarri bat".

* **Gorputza**

Ahotsa: Ahotsa landu egin behar da kontaeraren une ezberdinetara egokitu eta ohitzeko, punturik nagusienak baloratuz eta lagunduz: ahots-doinuak eman diezaike indar gehiago puntu horiei, azpimarra ditzake zenbait hitz testuingurutik isolatuz,

ozenago ahoskatuz edo, agian, bereiztuz. (Adibide moduan entzun Pello Añorgaren "Zesar eta Ernestina" eta "Balea" ipuinak.)

Erritmoa: Kontaeraren erritmoak edukiarekin bat egin behar du: hori dela eta izan daiteke, jariotsu eta laua, azkarragoa eta mugikorragoa, edota motela tentsioa eta sortzeko; etenen erabilera konsziente batek lagundu egiten die entzuleei diskurtso beraren garapen logikoan zehar. Ebitatu behar dena da monotonia, hau da ahoskera berdina kontraera osoan. (Adibide moduan entzun Pello Añorgaren "Zesar eta Ernestina" ipuina).

Keinuak: Zaindu egin behar da bai gorputzaren posizioa bai jarrera. Gorputzaren mugimenduek hitzen jarioarekin bat etorri behar dute eta sahiestu behar dira bai egonkortasuna eta bai beldurra.

Gorputzaren zati batzuei erreparatu behar zaie bereziki: aurpegi, beso eta eskuei. Kontalari asko seguruago sentitzen da eserita; zutik hitz egiteak trebetasun handiagoa eskatzen du eta erraztasun handiago mugitzeko. (Adibide moduan entzun Pello Añorgaren "Katu tripaundia" ipuina).

Aurpegia: Entzuten duenari atentzioa ematen dion lehenengo gauza kontalariaren aurpegia da, kontalariaren aurpegia ikusten ez duenari ez diola ondo ulertzen iruditzen zaio, eta ez dabil hain oker: aurpegiaren espresioak lagundu, azpimarratu eta baloratu egiten ditu esandakoak ahots-doinuaren antzera. Aurpegiaren espresioak ere sahiestu behar ditu bai monotonia eta bai egonkortasuna. Begiradak, bereziki, ez du iheskorra izan behar, umeen begietara zuzendu behar da eta horrela konfiantza-giroa sortuko dugu.

Besoak eta eskuak: Hauek erabil daitezke adierazitakoari gorputza eta tokoa emateko. Esaterako, besoen bidez gauza baten "handitasuna" adieraz daiteke, hurbiltasun edota urruntasuna; gerturatu edo urrundu egin daiteke, igo edo jaitsi egin daiteke, behatzen bidez gauzak kontatu daitezke.

Garrantzitsuena zera da: besoen eta eskuen mugimenduak esaldiaren garapenarekin batera joatea.

*** Zein da ipuinak kontatzeko unerik egokiena?**

Unerik egokiena gaua da, ipuinak lo ondo egiteko prestatzen baitu haurra. Ildo honetatik, aipatzekoak dira loari eta umearen hazkunderari buruz egin berri diren azterketa psikofisiologikoak.

Gaur egun frogatua dago haur jaio berriak amets egiten duela sarritan, eta herri-jakinduriak arrazoi du umeak garaiz eta ordu jakinetan oheratu behar duela esaten duenean. Puerto Ricon egindako azterketa batean frogatua gelditu da inguruak lehenengo ametsa zapuztu zien haurrak nekezago hazten direla, zeren lehen ametsaren unean sortzen baitira hazkunderako hormonak.

Beraz, kontalariak lagundu egiten dio umeari oreka fisikoa eta psikologikoa lortzen, era lasai batean gauean, ametsen bidea irekiz.

*** Helburu nagusia ongi pasatzea eta interesa sortzea**

Ez dugu ahaztu behar ipuinaren helburu nagusia ongi pasatu eta interesa sortzea dela. Hori dela eta, beharrezkoa da ipuinaren giroa alaia, magiaduna izatea: kontaeraren gainontzeko ezaugarri eta abantailak bidenabar lortuko dira, baldin eta giro hori sortzen baldin badugu.

3.3. Ipuinak kontatzeko tresneria

Ipuinak kontatzeko, nahiz eta derrigorrezko ez izan, oso baliagarri gerta dakiguke zenbait objektu erabiltzea, haur txikiekin ari garenean batez ere, emozio-egoera berriak sortu ahal izateko. Aipa ditzagun batzuk:

- Lehenik eta behin, maleta, edozer gauza gordetzeko erabil dezakegun maleta zaharra, soinuak eta hotsak, kantak eta gainontzeko objektuak gorde ditzakeen maleta.
- Objektu-liburuak, gauean izkututzen diren hitzak izarrak bezala ñir-ñirka ager daitezten, orrialdeetatik kanpora begira. Sorpresa-liburuak, ipuinaren lagungarri.

- Eskuko linterna, liburuetako irudiak detektibeen modura miatu ahal izateko.
- Espazioa, leihoak, argiak, atek ... bertako eszenografia inprobisatuaren gisa.
- Soinu bereziak ateratzen dituzten objektuak, ipuinaren lagungarri eta girogarri: panderoa, joaleak, txindatak...
- Zenbait objektu: trapuak, batak, jantziak, kaxak, kandelak, sonbreroak, makilak, aterkiak, globoak, eskularruak, klipak, goxokiak, koilareak, harriak, lumak...
- Kontalariaren gorputza bera, ukitzeko, dantzatzeko edo mugitzeko beste objektu bat bezala (eskuak, hatzak, begiak, ...).
- Txotxongiloak, ipuina gidatzeko.

Kontalariak, beraz, edozein objektu erabil dezake ipuinak kontatzerakoan, liburuak barne. Ezin dugu ahaztu, halere, ezin izango dutela inoiz kontaketa ordezkatu, bai ordea berau indartu.

Horregatik, edozein objektu kontaketa integratu aurretik ipuinarekin sinkronizatzen jakin behar da, erritmo, leku eta denbora berean mugi daitezten.

4. Ahozko euskara ipuin-kontaktetan gidari

4.1 Zer da ahozkotasuna?

Ahozkotasunaren oinarriak jaiotzatik bertatik datozkigu. Haur jaioberriak belarritik eta ahotik jaso ditu inguruaren lehen ezagutzak, eta maitasun-indarrez beteriko harremanak izaten dira horiek; nonbait, ahoaren eta entzumenaren arteko lotura oso hertsia da, eta joera horrek luzaroan irauten omen du; zenbat eta haurrago, orduan eta behar handiago. Ahoak esnea bezala, belarriak soinuak jaten ditu, ia aldi berean, lotura hertsia mantenduz bi horien artean; entzute-esate prozesu hori izatearen oinarritzko beharrek loturik doa.

Paul Zumthor-en esanetan, ahozkotasunak pentsamendua era berezian antolatzen omen du; idazmena nagusitu ez zaion pentsamenduaren pausoak orekatuak eta erritmikoak izan ohi dira eta erritmo eta oreka horiek esanahia norberegantzeko oinarritzko baldintza bihurtzen dira (idazteak testuari eman ohi dion euskarri segurua erritmoaren orekan bilatzen du ahozko mezuak). Horren guztiaren harian, baliabide garantzitsuak izango dira errepika, antitesia, aliterazioa, errepika-aldaketa formulak, leku-gai komunak, esaera estilizatuak... Oroimena lehen mailako eustarria da ahozko kulturaren eta horren zerbitzura daude aipatu ditugun beste baliabide horiek; oroimena pentsamenduaren oinarri bilakatzen da.

4.2. Ahozko adierazpidearen oinarritzko zenbait ezaugarri:

Zumthor-en ikuspegian honako hauek dira:

- Koordinazioa erabiltzen da nagusiki, eta ez subordinazioa edo menpeko perpausa.
- Erreduantziak beteriko mintzabidea da (pentsamolde lineal edo analitikoak idatzitik dator, eta era artifizialean osatua izaten da; ahozkoa, aitzitik, beti bere burura itzuliz ari da, era biribilean).
- Kontserbatzaile, gordetzaile eta tradiziozala da (ez dago artxibo idatzirik, oroimenak huts egitean hara jotzeko; oroimenetik alde egindako jakintzak galdu egingo dira ahozko tradizioan; ez da harritzekoa, beraz, jakintzak oroimenean gorde behar hori).
- Giza giro bizirik oso hurbil dago; erabat txertaturik esan beharko genuke.
- Ezaugarri agonistikoak ditu (aldeko eta kontrako lehian oinarriturik dago).
- Partehartzailea da eta enpatiazkoa; ez du onartzen ikuspegi objektibista hartzeko urruntzea.

- Homeostatikoa da; adierazpena orainean biziartzen du; orain baliatu edo erabiltzeko modukoak ez diren edukiak eta oroimenak beren funtzioa galdu egiten dute, eta desagertzera joko dute. Horien helburua da ibiltzen den bidean oreka edo homeostasia mantentzea.
- Egoera jakinei lotuak daude, eta, beraz, ez dira batere abstrakzioaren aldeko. Aurki ditzakegun abstrakzioak eta kontzeptuak beti ingurune bizi bati loturik egongo dira. Egoerari hain loturik joate horrek inguru fisikoarekin kateatuta egotea esan nahi du bestalde; ingurune biziaren ezagutza da lehen helburua, eta ingurune hori, nolabait esateko, ezustearen erreinua da: ez dago ezer programaturik edo aurreikusirik (gure kulturaren ikuspegitik begiratuta behintzat).
- Paralinguistikaz baliatzen da. Kontalaria bere ingurura ari da deika etengabe, hitza biziartzeko, hitzari hartzailea bilatzearen. Entzute-esate horren prozesuan gorputza lehen mailan jartzen da (ikusten dena, mugitzen dena) ahotsarekin batera (esan-entzun). Gorputzaren mugimendu eta keinuak, begiradaren nora-nolakoak adierazgarritasun berezia dute ahozko arloan (gorputza mezuak igorri ari baita ahotsarekin batera; umorezko edo trajeriako une asko, adibidez, gorputzaren eta ahotsaren adierazpen kontraesankorrean oinarritzen dira).
- Doinua du.
- Testua, ahoz kontatua den unetik beretik, indar berriz betetzen da, eta barnean daraman mezua nolabait egokitua geratzen da, ñabarduraz josia. Zumthor-en ikuspegitik, ahotsak hizkuntzaren zeinu sinbolikoa aldatu egiten du, ikono bilakatuz; horrela, mintzatze hutsez, hizkuntzak duen arbitrariedade-zama alde batera utziz.
- Ahotsaren oinarrian soinua dago. Soinuak doinua du. Doinua da ahozkoaren ezaugarri handienetakoa eta testuingurua emango diona.

Esate baterako: -Aita etorri da.

- A bai? (beldurtuta)
- A bai! (harrituta)
- A bai (jakinaren gainean)
- A bai (axolik ez)

4.3. Euskaraz kontatzeko baliabide batzuk:

4.3.1. Aditzaren lekua:

Normalean perpausaren hasieraldera jartzen da. Hona hemen, esate baterako, Atxukarroren pasadizo batetik hartuko zati bat:

"... Pernandon txandea heldu da eta, hau jartzen da atean erdiz erdi baina barrura begira. Ah! harek tranpak et, et, et! txis, txis, txis! kanpoa! kanpoa! kanpoa! bikariok kanpoa alde! Ez, ez. Nik egingo dudana apurra barrua egingo det eta rrrauu! ta egin du egundokoa jo kopetakin sukaldoko atea bai eta sartzen da zalapartan sukaldean, izutu da neska, zer arazo ote dan..."

4.3.2. Aditzaren erabilera:

Azken urteotan Linguistikari zenbait joera berri sortu da, hala nola Pragmatika eta Berbaldiaren (edo Testuaren) linguistika. Joera horietako egileek, hizkuntz unitateak aztertzerakoan, testuaren antolaketako funtzioak atzematen saiatzen dira, testuinguruko zenbait elementu ere kontuan hartuz (norentzako, produkzio-egoera, etabar.).

Hizkuntzaren Psikologiaren aldetik, testuaren ekoizpenean parte duten "eragiketa psikologikoak" dira aztergaiak, uste baita aztarna aproposa direla hizkuntz unitateak eragiketa horiek aztertzeko.

Teoria berri hauek sortu direnetik, hizkuntz unitateen funtzionamenduak, eta tartean adizkien funtzionamenduak, hipotesi berriak eratu dira. Teoria linguistiko eta psikolinguistikoen datuen ondorioz, Bronckart eta Fayol-ek, adizkien erabilera esplikatzeko zenbait hipotesi proposatu dituzte. Horien arabera, adizkiak bost funtzio betetzen dituzte:

- 1 Denbora zehaztu. Adizkiek denboraren balioak adierazten dituzte, baina modu konplexuan. Batetik, hiztunak aukeratu duen testu-motaren arabera, abiapuntu ezberdinetan kokatzen gara: Abiapuntu Deiktikoa = atzo, Fikziozkoa

= Behin batean, edo Abiapuntu Tematikoa = Europako ekonomia. Testu-mota bakoitzak bere adizki-sistema ezartzen du (esijentzia hau beti ezinbestekoa ez bada ere) eta sistema horren barnean adierazten dira lehengo, oraingo edo geroko harremanak.

- 2 Aspektua. Denboran kokatzeaz aparte, ekintza edo prozesuak hainbat burutze-mailatan ager daitezke. Eginkizun hau ere adizki jokatuak betetzen dute hizkuntz estrategia ezberdinez baliatuz
- 3 Aditzaren lexemek, prozesuaren perfektibitate-maila adierazten dute. Aditzen sailkapenak proposatu izan dira, denboraren eskema-motaren arabera.
- 4 Testu-planaren faseak. Testuaren antolaketan, plangintza da alderdietako bat (kasurik garbiena, ipuin miresgarriena da). Hipotesi honek dio adizkiak markatzen duela testuaren erritmoa eta, batik bat, plangintzaren fase ezberdinak adierazten dituela.
- 5 Kontaktetan bereziki, adizkien jokoek "irudia eta hondoa" markatzen dituzte, testuaren kohesioa gordetzeko gertaera batzuk lehen planoan jarritz eta beste batzuk, berriz, bigarrean edo hondoa. Esate baterako, hara nola bereizten dituzten adizkiek irudia eta hondoa lehenaldiko kontakizunean:

Lehenaldiko kontakizunetan, aditz trinkoen eta aditz berezien lehenaldiko puntukariak eta lehen <tzen> adizkiek marrazten dute hondoa edo bigarren planoak; eta lehen <tu> adizkiek, irudia edo lehen planoak.

Hona hemen, adibidez, "Martixio asmatzailea" ipuinetik hartutako bi zati. Lehenengoan, hondoa adierazten duten adizkiak azpimarratuko dira eta irudia adierazten dutenak, bigarrean:

1. *"Herritxo batean Martixio izeneko zapatarari txiki bat **bizi zen**. Oso langilea **zen** baina zapatarari txarra. Ez **zuen** inoiz zapatarik behar bezala **konpontzen**. Azkenerako, lanik gabe **geratu zen**. Inork ez zion zapatarik **eramaten** konpontzeko. Eta ez **zuen** jateko hainbat ere **irabazten**. Oso pobre **bizi zen** Martixio zapataria...."*

2. *"Egun batez, eskale bat **joan zen** Martixioren etxera. Tan-tan, atea **jo zuen**.*

- Nor zara? Zer nahi duzu? - **galdetu zion** Martixiok.

- Eskale bat naiz. Hiru egun hauetan ez dut ezer jan. **Mokadutxo baten eske nator**.

*Martixiok ogi bat besterik ez zeukan etxean. Baina bihotz oneko gizona zen eta oso-osorik **eman zion** eskalari..."*

Bukatzeko, esan ipuinak orainaldian edota lehenaldian kontatzen direla. Nahiz batean nahiz bestean, ekintzak adierazi nahi direnean, burutua erabiltzen da, eta tartekatzen diren egoerak, deskribapenak eta abar adierazi nahi direnean burutugabea. Aditz horrek trinkoa baldin badu, trinkoa.

4.3.3. Elipsia:

Inondik inora elipsia dugu ahozko euskararen bereizgarri nagusienetako bat. "Hitzak falta dira. Esaldiak eta perpausak ez daude osorik...", esango du norbaitek. Eta hala da idatzizko euskararen ikuspegitik. Baina falta, ez da ezer falta. Doinuak hartzen du hemen haren lekua.

* Aditza da elipsietan gehien kentzen den hitza. Hona hemen adibide pare bat:

"... Trenean ere sekulan ez giñan sartu, ta ura ere nobedadea. Baña sartu giñan, beintzat, aita ta bi anaiok, eta etzan itzik entzuten; alkarri begiratu ta ixilik. Arruan sartu giñan trenean ta Elgoibar aldean edo orrela lenengo izketan asi giñaneko. Konfidantzan sartu giñan gero ta andik aurrera or nunbait".

"Urte-mordoa da Aia'ko baserritar bateri entzun niola pasadizo polita. Andrea gaixorik, erreumaren bidez mugitu ezinik; eta Ernio'ra joan nahi. Baiña nola iritxi ara? Orrekin buruaustek.

Gizonak pentsatu berak bizkarrean eraman bearko zuela, ta alaxe egin. Emakume txikia, pixu gutxikoa izan da bolada batean errez erabili omen zuen. Azkenerako astundu, ordea. Oso tratu txarra emango zion bere buruari, orrela bazan. Izerdi-patsetan igo zala goiko puntara gurutzearen ondora ...".

* ESAN aditzaren elipsiarekin oso lotuta doan hitz bat: OMEN. Hona hemen adibide bat:

"Bein batean, Prantzes-Txikia ta beste lagun bat Goizuetara joan omen ziran bertsotara; da erriarekin tratua egin omen zuten bertsoak dana dirutan pagatzekotan, da jaten egiten zituzten gastoak ordainduko zituztela aparte berak ..."

* Estilo zuzena:

"Milla bederatzireun da ogei ta emeretzian gerratik etorri ta egun batzuek pasa nituen etxean, da berriz ere Donostira joan nintzan lanera, lengo tokira, Cervezas El Leon edo orrera.

- Zepai, zer moduz abil, ba?
- Ondo! Askok nai baiño obeto! ta eori sano etorri al aiz?
- Ustez ez diagu gaitz aundirik ekarri Jaungoikoari eskerrak, eta orain lanerako amorratzen etorri gaituk. Bai al dezute guretzat lanik emen?
- Bai, ori zioke emen ugariena. Lanez osatuko aizela uste diat emen! Apaizak eta guardia zibillak ere ez dituk asi oraindik, eta ortik pentsatu zak, ba, ez dela oso ona izango; bestela asiko ituan oiek ere".

* Aditz ezjokatua: Ahozko euskararen beste ezaugarri bat. Hiru arlo bereiz daitezke:

1. arloa:

1.1. Aditz-oina eta partizipioa:

- Aginduak ematean:

*"Goiz etorri etxera"
"Kontuz ibili gero"
"Atea itxi, mesedez"*

- Galdera erretoriko edo harridurazkoetan:

"Nork esan hori horrela izango zenik?"

- Errefrauetan eta itxura bereko esapideetan:

"Zer ikusi, hura ikasi"

- Partizipioa posposizio batekin erabilia:

*"Ikusi arte"
"Zuk egin artean (bitartean)"*

1.2. Laguntzailerik gabeko aditza:

*"Haundiegia izan gauza onerako"
"Lan asko egin behar"
"Ezin txapela batekin bi buru jantzi"*

2. arloa: aditz-izena

*"Atsegina da ikastea"
"Ez dago ezer egiterik"
"Hori esatea ere"*

3. arloa: Bi sail bereziko ditugu hemen: -la atzizkiduna eta -lako atzizkiduna

3.1. -la atzizkiduna:

"Ume onak dira; umeak direla "

"Anaia joaten dela, ni etxean geldituko naiz".

3.2. -lako atzizkiduna: Bigarren sail honetako formarik ezagunena -lakoan atzizkiduna izango da agian.

"Ondo dagoelakoan jaiki da"
"Merkea zelakoan erosi du"

4.3.4. Zuka-hika erabilera

1. Giza harremanetako ohituren islada da. Ezaugarri kulturala.

Ondorengo adibidean, esate baterako, apaizak hika egiten dio Pernandori, baina Pernandok zuka erantzuten dio:

"Bikario jaunak apustua eratzten du.

- Hi, Pernando! lauron artean apustua jokatu behar diagu!
- Ze apustu dugu ba hori?"

2. Kontaketan zuka, elkarrizketetan hika.

Hona hemen Pello Añorgaren "Ipotxa" ipuinetik hartutako zatia

"... Eta gure zortzia furgonetara igo eta sei normalarengana joan eta sei normalari:

- Aizak, aizak, emaidak triangelua lantzaren muturra egiteko
- Nik ez zeukat, joan hadi aldebrearengana.

Eta zortzia furgonetara igo eta aldrebrearengana.

- Aizak, aizak, emaidak triangelua, lantzaren muturra egiteko behar diat.

Eta aldrebesak eman zion..."

4.3.5. Deixiaren erabilera:

Deixiak adierazten du testuinguruaren osagaiak (emailea, hartzailea, denbora, tokia, giza lekua) nola azaltzen diren testuan, beti ere emailearen ikuspegitik ikusita. Osagai hauek kodifikatuta azaltzen dira zenbait hizkuntz ikurren bidez, hala nola, aditzlagunak, izenordeak, eta baita aditz batzuk ere. Deixiak bide ematen digu, beraz, kontalariaren gai diren pertsona, ekintza eta gauzak aurkitu eta identifikatzeko.

Aipatzen den testuinguruaren arabera, hiru deixi-mota bereizi izan dira: pertsonarena, tokiarena eta denborarena.

- Pertsona-deixiak, parte hartzen dutenen rolag kodifikatzen ditu: emailea, hartzailea, eta ez bata eta ez bestea ez dena, eta hirugarren pertsona bezala adierazten dena.

- Leku-deixiak lokalizazioa kodifikatzen du.

- Denborazkoak, enuntziatuaren denborari buruzkoak. Hiru kasuetan, gogoratu behar da emailearen ikuspegitik abiatzen dela beti: tokia eta denbora berak dira, eta horrela ez denetan espreski adierazi beharko da.

Ahozko hizkuntzan, erakusleak (hau, hori, hura) dira deiktikorik ohikoenak.

4.3.6. Hitz-giltzak:

Hona hemen Koldo Ameztoiren "Axeria eta putrea" ipuinetik hartutako zatia.

"...Orduan agertzen zaio sai bat, putre zahar bat.

- Zer gertatzen da azeritxo?
- Gertatzen da nik ez dakidala zer diren zerutik erortzen diren gauza horiek. Zuk ez dakizu zer diren horiek?
- Ja! Axeri, zerutik erortzen zaizkigun gauza horiek lumak dira, lumak.
- Lumak? Lumak?
- Bai, lumak. Zeruan festa haundi baten prestatzen ari dira eta oiloak, oilaskoak, ahateak eta antzarrak lumatzen dituzte eta horiek botatzen dizkigute lumak.
- Aja! Lumak! "

4.3.7. Formulak:

Zenbait ipuinetan pasartero azaltzen dira eta bakoitzean osagai bat eransten zaio.

"... Joan da, beraz, feriara eta erosi du txerria. Baina etxerakoan ez zuela inolaz ere animalia hark bideko langa baten gainetik salto egingo.

Hantxe bertan utzi zuen amonak txerritxoa eta bere bideari jarraitu zion. Halako batean, txakur batekin egin zuen topo. Eta esan zion: "Txakurra, egiozu koska nire txerrikumeari ez du eta langaren gainetik pasa nahi izan; horregatik, ilunduta gero iritsiko naiz etxera". Baina txakurra ez zion txerritxoari koska egin nahi izan.

Gerxeago makil bat aurkitu zuen eta esan zion: "Makila, jo txakurra, ez baitio txerriari koska egin nahi, eta txerriak ez du langaren gainetik salto egin nahi eta ilunduta gero iritsiko naiz etxera". Baina makilak ez zuen txakurra jo nahi.

Badoo, bada, aurrera eta hara non aurkitzen duen sua..."

4.3.8. Errepikapenak:

Pasarteak:

"... Eta gure katu tripaundiak bigotea luzatu eta miau! miau! gehiago nahi dut! eta joan zen kamareroa etorri eta eman zizkion hiru tomate gorri! eta hiru tomate gorriak ez laban atzapar hutsez irentsi zituen bata bestearen segidan. Baina gure katu tripaundiak bigotea luzatu eta miau! miau! gehiago nahi dut! eta joan zen kamareroa, etorri eta eman zizkion lau arraultz prejitua eta arraultz prejitua ikusi zituenean gure katu tripaundiak bonboitxoak bailiran bata bestearen segidan jan zituen. Hori bai dotore-dotore laban eta tenedorez baina gure katu tripaundia oso tripaundia zenez, bigotea luzatu eta miau! miau! gehiago nahi dut!..." eta ez tenedore, hiru tomate gorriak atzaparrez,

Hitzak:

Alde-aldekoa; Alfer-alferrik; Arian-arian; Aske-askea; Bakar-bakarrik; Banaka-banaka; Barrun-barrundik; Bat-batera; Behar-beharrezkoa; Berdin-berdin; Bero-bero; Bihotz-bihotzetik; Bihotz-bihotzez; Bixi-bixi; Bixtan-bixtan; Busti-bustia; Doi-doi; Eguerdi-eguerdian; Ero-ero; Garbi-garbi; Garrondo-garrondoan; Geldi-geldi; Guri-guri; Inoizka-inoizka; Ixil-ixilik; Jardunean-jarduenan; Kontuz-kontuz; Lasai-lasai; Maltzur-maltzur; Mendi-mendian; Pake-pakean; Poliki-poliki; Serio-serio; Txuri-txuri; Umil-umil.

4.3.9. Hitz indargarriak:

"Hargina" ipuinetik hartutako zatia.

"Biharamunean, bere burua berats aurkitu zuen, lorategian, hortxe, deus egin gabe, egun osoan, eguzki azpian, lasai lasai. Baina eguzkiak berotzen zuen, erretzen zuen, buru kixkaltzen zion, "Zer da hau? Eguzkia ni baino **indartsuago**, ala? Eguzki izan behar nuke (...)

Eta holako batez hurbildu zitzaion hodei zuri bat, bere izpien aurrean eman zen, guztia trabatzen. Hau zer da? Ni baino **indartsuago** hodei hori? Ahh! Hodei izan behar nuke!"(...)

"Hau zer da? Mendi beltza ni baino **indartsuago** ala? Mendi izan behar dut (...)

4.3.11. Interjektzioak:

"Martintxo" ipuinetik hartutako zatia

" Hortxe utzi ditu basajaunak irriz eta barrezka. Zer ote zen apostu egile hau? Zer egin nahi zuen hain ttikia, aizue?. Eh! Lagunak! Ikusi ote duzue zer egin duen honek! Ez ditu botak hustu guk egiten dugun bezala, gari-metatik jaustean Botak ez hustu! Beraz, gure gari-aleak lapurtu dizkigu!. Garia lapurtu, guri!. Bai!. Om! Ontxo! ..."

4.3.12. Onomatopeiak

Atxukaroren pasadizo batetik hartuta:

"... Nik azkena salto egiteko ta. Bueno, bai, bikarioak. Iñoooo! egin du egundoko saltoa, ia harunzko arbolan ipurdiraino, baita hurrengo apaizak ere seeeesst! eta rrrauuu! haruntzaino!"

3. IPUIN-BILDUMA

Irudi-liburuak

Urtebetetik aurrera

Oxenbury, H.: Colección "*Los libros del chiquitin*". Barcelona: Juventud.

2 urtetik aurrera

Cruz, V.: "*El amigo*". Barcelona: Ediciones B, 1990.

Dahan, A.: "*El gato y el pez*". Barcelona: Destino, 1990.

Gagnon, C./ Jouannigot, L.: "*Los libros de Tupí (Musgo y sus amigos)*". Barcelona: Milan.

Hawksley, G.: "*Nor dago lehioan?*" bilduma. Donostia: Tartalo.

Steadman, R.: "*Hau nire aita da*". Barcelona: Aliorna, 1987.

Türk, H.: Colección "*Alex*". Barcelona: Destino.

3 urtetik aurrera

Ahlberg, Y., A.: "*Adiós, pequeño!*". Madrid: Altea, Taurus, Alfaguara, 1990.

Balzola, A.: "*Historia de un erizo*". Madrid: Miñon, 1982.

Bayley, N.: Colección "*El gato*". Barcelona: Lumen.

Beer De, H.: Colección "*Osito polar*". Barcelona: Lumen.

Bos, B./ Beer de, H.: "*Oli el pequeño elefante*". Barcelona: Lumen, 1989.

Browne, A.: "*Willy el tímido*". México: Fondo de Cultura Económica, 1991.

Cony, Frances: "*Txori langilea*"; "*Txakur jolastia*"; "*Katu gosetia*"; "*Oilo bizkorra*".

Eyles, E./ Ross, T.: "*Caramba!*". Barcelona: Arca de Junior, 1993.

Fuchshuber, A.: "*Toribio y el sombrero mágico*". Barcelona: Juventud, 1978.

Goffin, J.: "*Quien es el jefe?*" El masnou: M.S.V, 1991.

Goffin, J.: "*Si*". Barcelona: M.S.V., 1992.

Holzwarth, W./ Erlbruch, W.: *"El topo que quería saber quien se habia hecho aquello en su cabeza"*. Madrid: Altea, 1991.

Iwamura, K.: Colección *"Los ratoncitos"*. Barcelona: Aliorna.

King, Phillis: *"El gato tripón"*. Edit. Anaya. Fáciles de leer.

Levert, C./ Solé, C.: *"Pedro y su roble"*. Valladolid: Miñon, 1979.

Lionni, L.: *"Nadarin"*. Barcelona: Lumen, 1988.

Mckee, D.: *"Elmer"*. Madrid: Altea, 1990.

Olfers, S.: *"Los niños de las raíces"*. Madrid: Kokimos, 1992.

Ross, T.: *"Quiero el tito"; "Los tres cerditos"; "Juan perezoso"*. Colección Austral Infantil. Madrid: Espasa-Calpe.

Sendak, M.: *"Donde viven los monstruos"*. Madrid: Altea, Taurus, Alfaguara, 1984.

Vincent, G.: *"Zesar eta Ernestina"*. Barcelona: Timun Mas, 1982.

Wouters, A.: *"Ce livre est trop petit"; "Ce livre est à nous"*. Paris: L'école des loisirs, 1991.

Thomas, V./ Paul, K.: *"La bruja Gertrudis"*. Barcelona: Lumen, 1987.

Ttartalo, 1996: *"Txon eta txan erre kara doaz"; "Negua basoan"; "Basoa sutan"; "Garbiketa egunak"; "Udaberria iritsi da"; "Gure lagunik onena"*.

4 urtetik aurrera

Cole, B.: *"Tres hurras por Errol!"*. Barcelona: Destino, 1991.

Escala, J. / Solé, C.: *"Brrrrrg!"*. Barcelona: Hyma, 1992.

Ross, T.: *"Quiero un gato"; "Oscar tiene la culpa"*. Colección Altea Benjamín. Madrid: Altea.

Zimnik, R.: *"El viaje en globo de Guillermo"*. Madrid: Susaeta, 1990.

5 urtetik aurrera

Barklem, Jill: Colección *"Las 4 estaciones"*. Barcelona: Ediciones B.

Butterworth, N./ Inkpen, M.: *"La puerta pequeña"; "El rico granjero"; "La oveja perdida", "La perla preciosa"*. Madrid: S.M.

Falconer, E.: *"La casa que Yack construyó"*. Barcelona. Lumen. 1991.

Felix, M.: Colección *"Libros de ratón"*. Barcelona.: Lumen.

Heine, H.: *"El maravilloso viaje a través de la noche"*. Salamanca: Loguez, 1990.

Kitamura, C.: *"Cuando los borregos no pueden dormir"*. Madrid: Altea, 1986.

Lionni, L.: *"Frederick"*. Barcelona: Lumen, 1992.

Lionni, L.: *"El sueño de Matías"*. Barcelona: Lumen, 1988.

Lionni, L.: *"Petit-bleu et petit-jaune"*. Paris: L'École des Loisirs, 1970.

Marshak, S. /Radunsky, V.: *"El perrito creció!"*. Barcelona: Destino, 1992.

Schubert, Y. D.: *"La pequeña zapatones"*. Barcelona: Lumen, 1988.

Steig, W.: *"Doctor de Soto"*. Madrid: Altea, Taurus, Alfaguara, 1991.

Adin guztietarako

Shubert, D.: *"Monky"*. Barcelona: Lumen, 1988.

Irudi mugikorrek

Dowling, Paul: *"Xabier elurretan"; "Xabier eguzkitan"*. Tartalo, 1995.

Marueco, Isabel: *"Tximeleta erreginarekin"*. Igela eta ahatea bilduma. Susaeta, 1991.

Liburu majikoak

2 urtetik aurrera

Coyley, Stewart: *"Ahatekume bihurriak"; "Txakurtxoak ezkutaketan"; "Untxi txiki galdua"; "Bost katakume"*. Tartalo, 1995.

Objektu-liburuak:

Urtebetetik aurrera

Bishop, R.: Colección *"Minilibros animados"*. Colombia: Norma, 1991.

Vandermeer, R. A.: Colección *"Sorpresa"*. Barcelona: Molino.

2 urtetik aurrera

Carrol, M.: *"Los sonidos de la granja"*. Barcelona.: Molino, 1992.

Dunn, O. / Morris, R.: Colección *"Pon y Pon"*. Barcelona: Ediciones B, 1991.

Henrietta: *"Un raton en casa"*. Madrid: Altea, 1992.

Mitsumasa, A.: *"Bonjour citrouille!"; "Concou, me voila!"; " Choisis ton masque!"*. Paris: L'école des loisirs.

Moerbeek, K. / DIJS, C.: Colección *"Libros vivos de Kees Moerbeek"*. Barcelona: Plaza joven.

Noelle / Carter, D.: *"Búscame ratoncito!"*. Barcelona: Elfos, 1992.

Van Fleet, M.: *"Números, colores y animales"*. Barcelona: Parramón, 1992.

3 urtetik aurrera

Bateson, M. / Lelie, H.: *"La casa de las muñecas"*. Londres: Ediciones B, 1993.

Goffin, J.: *"OH!"*. El masnou: M.S.V., 1991.

Lastego, C. / Testa, F.: *"El parque"*. Italia: Gaviota, 1992.

Maekawa, K.: *"El rio"*. Barcelona: Destino, 1991.

Moseley, K. / Everit-Stewart, A.: Colección *"CUIDADO!"*. Barcelona: Plaza joven.

Piénkowski, J.: *"La casa embrujada"*. Madrid: Mondadori, 1979.

Roddie, S. / Roffey, M.: *"Ojo, que pica!"*.

4 urtetik aurrera

Wolf, T.: *"El pais de los juguetes"*. Barcelona: Molino, 1990.

5 urtetik aurrera

Inkpen, M.: *"El globo azul"*. Barcelona: Molino, 1989.

Mayorga, D.: Colección *"Oscar"*. Barcelona: Ariel.

Ipuin eta alegia klasikoak

2 urtetik aurrera

Valeri, M. E.: Colección *"El caracol"*. Barcelona: La Galera.

3 urtetik aurrera

Langley, J.: *"Caperucita Roja"*. Barcelona: Junior.

Arlekin bilduma: *"Txokolatzeko etxetxo"*; *"Mari Errauskin"*; *"Erpurutxo"*; *"Alizia"*; *"Neskatxa ederra lo"*; *"Ahateko itsusia"*; *"Botatua"*; *"Eduerne zuri"*; *"Peter Pan"*; *"Pinotxo"*; *"Banbi"*. Susaeta, 1994.

5 urtetik aurrera

Lawater, W.: *"Le petit chaperon rouge"*. Paris: Adrien Malght, 1965.

Abenturazko alegia:

Ttartalo, 1995: *"Astoa eta idia"*; *"Azeria eta otsoa"*; *"Artzain gezurtia"*; *"Oreina eta ehiztaria"*; *"Txitxarra eta iñurria"*; *"Dortoka eta erbia"*; *"Lehoia eta basurdea"*; *"Saguen biltzarra"*

Poemak, kantak eta igarkizunak:

2 urtetik aurrera

Lertxundi, A. / Olariaga, A.: *"Maria Goikoarenak"* bilduma. Donostia: Erein.

3 urtetik aurrera

Etzaniz, X.: *"Haur Folklorearen Bilduma"*. Iruñea: Pamiela, 1986.

4. JARDUEREN OSAKETARAKO HELBURU ETA EDUKIAK

SAIOA	JARDUERA	HELBURUAK	EDUKIAK
1	1.Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Taldeko kideak elkar ezagutzea. <li style="padding-left: 20px;">- Nolakoak dira taldeko kideak? ● Errealitatearen eta desioaren arteko aldea. <li style="padding-left: 20px;">- Zein da gai honetan duten aurre-ezagutza? Zer dakite dagoeneko? <li style="padding-left: 20px;">- Zer egiten ikasi nahi dute amaierarako? 	<ul style="list-style-type: none"> ● Izen-abizenak. ● Seme-alabak. ● Euskararen ezagutza. ● Euskararen erabilera. ● Moduluari buruzko espektatibak. ● Ipuin-kontaktaren inguruan lehendik duten ezagutza/ eskarmentua.
	2.Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Ipuinak duen balore hezitzailea ezagutu, eta moduluen nondik-norakoaz jabetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Helburuak. ● Edukia. ● Metodologia: Lan egiteko modua: bakarka, talde-lana, partehartze aktiboa.
2	3.Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Ipuinak euskararen transmisioan duen garrantzia azpimarratzea. ● Ipuinak munduaren ezagutzaren transmisioan duen garrantzia azpimarratzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasleek umetan ahoz jasotako kontakizunak. ● Hizkuntzaren ezagutza. ● Hizkuntzaren erabilera.
	4.Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Ipuinak kontatzerakoan hiztun batzuek dituzten hizkuntz zailtasunak aztertzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Euskaldun ele-erasanetik euskaldun garbira dagoen tartea.
3	5.Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Euskara batuaren eta euskalkiaren artean dauden ezberdintasunak ezagutzea eta, horrekin batera, ahozkoaren ezaugarriaz jabetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Euskara batua eta euskalkia. ● Ahozkoaren ezaugarriak.

SAIOA	JARDUERA	HELBURUAK	EDUKIAK
3	6.Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Ipuinak duen balore hezitzailea ezagutu, eta moduluaren nondik-norakoaz jabetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ipuinen osagaiak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Ipuina bera kontatzen hasi aurreko girotze-modua. 2. Arreta erakarrarazteko baliabideak. 3. Gorputzaren erabilera.
4	6. Jardueraren jarraipena	<ul style="list-style-type: none"> ● Ipuinak kontatzerakoan kontuan hartu beharreko osagai eta teknikez jabetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ipuinen osagaiak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Ipuinaren gaia. 2. Ipuina bera nola hasten duen (girotze-modua). 3. Umeen arreta mantenezteko baliabideak. 4. Ahotsaren erabilera. 5. Ipuina bukatzeko modua.
5	7.Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Ipuinak kontatzeko baliabideez jabetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Baliabideak: <ol style="list-style-type: none"> 1. Irudi hutseko liburuak. 2. Irudi/testua duten liburuak. 3. Kontalariaren eskuak, behatzak... 4. Objektuak. 5. Marrazkiak. 6. ...
	8.Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Aipatu baliabideetako bat, irudi/testua duen liburua harturik, beronen kontatzeko moduz jabetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ipuin-kontalariak berariaz prestatutako irudi/testua duen liburu baten kontaketa.
6	9.Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Ipuinetako irudiek umeengan duten eraginaz jabetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ipuinetako irudiak.
	10.Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● 2-6 urte bitarteko umeentzako ipuinak kontatzeko prestatzen jakitea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasleen umeen gustoko ipuinen artean adinaren arabera bi aukeratu eta berauek kontatzeko prestatu.

SAIOA	JARDUERA	HELBURUAK	EDUKIAK
6	11. Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● 2-6 urte bitarteko umeentzako ipuinak kontatzen jakitea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Aukeratutako bi ipuin horiek kontatu ondorengo puntuei erreparatuz: <ol style="list-style-type: none"> 1. Gaia eta hizpidea. 2. Edukien garapena. 3. Edukiei dagozkien soinu-efektuak. 4. Umeen arreta mantentzeko baliabideak.
7	11. Jardueraren ondokoa	<ul style="list-style-type: none"> ● Etxean ipuina kontatu dutenetatik gustoan gelditu direnek adieraztea nola joan zaien 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasleen jarduera.
	12. Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Zaharrendik ahoz jasotako ipuinen izaeraz jabetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ahoz jasotako ipuinen ezaugarriak.
	13. Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasleek beren aurrekoengandik jaso dutenaz eta beren seme-alabei transmititzen dietenaz gogoeta egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasle bakoitzaren zuhaitz genealogikoa ipuin-kontaktaren transmisioari dagokionez.
8	14. Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasleek beren aurrekoengandik jasotako ipuin bat gogoratu eta kontatzeko prestatzen jakitea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Zaharrendik jasotako ipuinak eta pasadizoak
	15. Jarduera	<ul style="list-style-type: none"> ● Zaharrendik jasotako ipuinak kontatzen jakitea. 	<ul style="list-style-type: none"> ● Zaharrendik jasotako ipuinak eta pasadizoak.

SAIOA	JARDUERA	HELBURUAK	EDUKIAK
9	16.Jarduera	● Jolastuz ipuin ezagunak beste ikuspegi batetik kontatzea	● Ipuinak asmatzeko jokoak.
	17.Jarduera	● Aspaldiko ipuinak luzatuz eta osatuz kontatzea.	● Umeen kezkek eta galderak.
	18.Jarduera	● Erdi-asmaturiko edo egokitutako ipuin bat ikusentzunez hainbat baliabideri erreparatzea.	● Bideoz grabaturiko ipuin bat ikusentzun.
10	19.Jarduera	● Ipuinak asmatzeko behar diren baliabideez jabetuz, ipuinak asmatzea eta besteen aurrean kontatzeko prestatzea.	● Ipuinak asmatzeko kontuan izan beharreko baliabideak. 1. Gaia: hizpide emango duena. 2. Protagonista. 3. Abentura-kutsua. 4. Misterio-giroa. 5. Komikotasuna. 6. Hizkera.
11	19. Jarduera Jarraipena	● Ikasleek ipuinak kontatzerakoan dituzten gaitasunaz eta gabeziak jabetzea.	● Ikasle batzuek ipuinak kontatu. ● Gainontzeko ikasleek, bitartean, norentzakoari eta euskara-motari erreparatuko diote.
	20.Jarduera	● Moduluan zehar kontaturiko ipuinik egokienak aukeratu eta arrazoitzea	● Aldez aurretik ezarritako irizpide jakin batzuen araberrako aukera.
12	Azken Jarduera	● Aukeratutako ipuinak eskolako umeen aurrean kontatzea.	● Moduluan zehar kontaturiko ipuinik onenak.
	Ebaluazioa	● Errealitatea eta desioaren arteko alderaketa. * Zer ikasi duten egiten aztertu eta espero zutenarekin alderatu (1. saioan esandakoaren ildotik). * Hemendik aurrera gurasoen eta seme-alaben arteko hizketa-gaiak eta guneak ugaritzeko egin dezaketenaz jabetzea.	● Amaierako galdesorta-gida hartu eta, elkarrizketaren bidez, moduluaren ebaluazioa egin. ● Handik aurrera egin dezaketenaz gogoeta egin

"Amaren ahotsak ez ditu ahotan Txano Gorritxo edo Erpurutxo bakarrik: bere buruaz ari zaio umeari (...) eta honi deigarri egiten zaio amaren ahotsa, haren doinuak, bolunena, goxoa dakarkion, kezka guztien korapilo - ak askatzen dizkion, beldurraren mamuak uxatzen dituen musika biguna."

"Ipuinaren jario motela goxo-goxo bien artean doala, umeak badu aitaz edo amaz bere gisara gozatzeko aukera; aurpegiko imintzio eta berezitasun guztiei begiratuko die, gurasoaren begiak, ahoa, azala ... aztertuko ditu. Entzun, bai, entzuten du, baina pozik asko egongo da arretarik gabe, beste zerbait buruan duela -adibidez, ipuina lehendik dakienean-".

(Gianni Rodari)

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreskolduntzerako Erakundea
Erakunde Autonomiaduna

